



Hezkuntza, Zientzia
eta Kulturarako Nazio
Batuen Erakundea



Garapen
Iraunkorrerako
Helburuak



Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura
Hezkuntza,
Zientzia eta Kulturarako
Nazio Batuen Erakundea



centro unesco euskal herria
centre unesco pays basque
unesco centro basque country
Miembro del Movimiento
de Clubes, Centros y
Asociaciones para la UNESCO
UNESCOrentzako Klubak,
Zentroak eta Elkarteak
Mugimenduko kidea

Garapen Iraunkorrerako

Helburuetarako Hezkuntza

Ikaskuntza-helburuak




Garapen Iraunkorrerako

Helburuetarako Hezkuntza

Ikaskuntza-helburuak

UNESCOren Hezkuntza Sektorea

Hezkuntza da UNESCOren lehentasun nagusia, bai funtsezko giza eskubidea delako eta bai bakea sendotzeko eta garapen iraunkorra sustatzeko oinarria delako. Hezkuntzan espezializatutako Nazio Batuen erakundea da UNESCO, eta haren Hezkuntza Sektoreak lider-lekua betetzen du munduan zehar nahiz eskualde-mailan arlo horretan; herrialdeetako hezkuntza-sistemak indartzen ditu, eta gure garaiotan munduak dituen erronkei erantzuten die hezkuntzaren bidez, genero-berdintasunari eta Afrikari erreparatuta bereziki.



Munduko Hezkuntzako 2030 Agenda

UNESCOk, hezkuntzan espezializatutako Nazio Batuen erakunde den aldetik, Hezkuntzako 2030 Agenda zuzendu eta koordinatzeko mandatua jaso du. Pobrezia desagerrarazteko mundu-mailako mugimendu baten parte da programa, eta Garapen Iraunkorrerako 17 Helburu zehaztu dira, hemendik 2030era erdiesteko. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza, eta, horregatik, hezkuntzak badu berariaz bere helburua, laugarrena, zehazki: **“kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea guztientzat”**. 2030erako Hezkuntza Ekintza Esparruak orientabidea eskaintzen du helburu garrantzitsu hori eta hari dagozkion konpromisoak bete ahal izateko.



Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) 2017an argitaratua, 7, Place de Fontenoy, 75352 Paris 07 SP, Frantzia

© UNESCO 2017

ISBN 978-92-3-100209-0



Argitalpen hau eskuragarri dago, modu irekian, lizentzia honekin: Attribution-ShareAlike 3.0 IGO (CC-BY-SA 3.0 IGO) (<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/igo/>). Argitalpen honen edukia erabiltzean, sarbide irekiko UNESCOren Errepositorioaren erabilera-baldintzak onartzen dituzte erabiltzaileek (<http://www.unesco.org/open-access/terms-use-ccbysa-en>).








Argitalpen honetan erabiltzen diren terminoek eta bertan ageri diren datuen aurkezpenak ez dute adierazten UNESCOk jarrera bat hartu duenik herrialde, lurralde, hiri edo eskualdeen estatutu juridikoaren aurrean, ez eta horien agintaritza edo mugalde eta mugen aurrean ere.

Argitalpen honetan adierazitako ideiak eta iritziak egileenak dira, eta ez dute nahitaez islatzen UNESCOren ikuspuntua; beraz, ez dute erakundea behartzen.

UNESCOk diseinatua eta inprimatua

Frantzian inprimatua

Aurkibidea

Hitzaurrea.....	1
Esker onez	2
Akronimoen zerrenda	3
Sarrera.....	5
1. Garapen Iraunkorrerako Helburuak – asmo handiko agenda unibertsala gure mundua eraldatzeko.....	6
2. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza – GIHak lortzeko funtsezko baliabidea.....	7
3. Norentzat da gida, eta nola erabili behar da?	8
1. GIHak lortzeko ikaskuntza-helburuak	9
1.1. Oinarrizko zeharkako gaitasunak GIH guztiak erdiesteko.....	10
1.2. Berriazko ikaskuntza-helburuak GIHetarako	11
 1 POBREZIA DESAGERTZEA	
1.2.1. 1. GIH Pobrezia desagerraraztea Pobrezia desagerraraztea, mundu osoan eta dituen forma guztietan	12
 2 GOSERIK EZIZATEA	
1.2.2. 2. GIH Gosea amaitzea Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta nutrizio hobea lortzea, eta nekazaritza iraunkorra bultzatzea	14
 3 OSASUNA ETA ONGIZATEA	
1.2.3. 3. GIH Osasuna eta ongizatea Bizitza osasuntsua bermatzea eta guztion ongizatea sustatzea adin guztietan	16
 4 KALITATE ONEKO HEZKUNTZA	
1.2.4. 4. GIH Kalitatezko hezkuntza Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea guztientzat	18
 5 GENERO-BERDINTASUNA	
1.2.5. 5. GIH Genero-berdintasuna Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neskato guztiak ahaldunduz	20
 6 EDATEKO URA ETA SANEAMENDUA	
1.2.6. 6. GIH Ur garbia eta saneamendua Uraren eta saneamenduaren erabilgarritasuna eta kudeaketa iraunkorra bermatzea guztiontzat	22
 7 ENERJIA ESURAGARRI ETA EZ-KUTSAGARRIA	
1.2.7. 7. GIH Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria Denok energia arazoizkoa, fidagarria, iraunkorra eta modernoa eskuratzeko aukera izan dezagula bermatzea	24

	1.2.8. 8. GIH Lan duina eta hazkunde ekonomikoa Eutsitako hazkunde ekonomikoa, inklusiboa eta iraunkorra, enplegu betea eta produktiboa eta guztiontzako lan duina sustatzea	26
	1.2.9. 9. GIH Industria, berrikuntza eta azpiegitura Azpiegitura sendagoak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta iraunkorra bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea	28
	1.2.10. 10. GIH Desberdintasunak murriztea Herrialdeen barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea	30
	1.2.11. 11. GIH Hiri eta komunitate iraunkorrak Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, sendoak eta iraunkorrak izatea lortzea	32
	1.2.12. 12. GIH Produkzio eta kontsumo arduratsua Kontsumo- eta ekoizpen-modalitate iraunkorrak bermatzea	34
	1.2.13. 13. GIH Klimaren aldeko ekintza Premiazko neurriak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko	36
	1.2.14. 14. GIH Itsaspeko bizia Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak zaintzea eta modu iraunkorren erabiltzea, garapen iraunkorrerako	38
	1.2.15. 15. GIH Bizia lurreko ekosistemetan Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestea, berrezartzea eta sustatzea, basoak iraunkortasunez kudeatzea, desertifikazioari aurka egitea, lurren degradazioa geldiaraztea eta horri bira ematea, eta biodibertsitate-galera geldiaraztea	40
	1.2.16. 16. GIH Bakea, justizia eta erakunde sendoak Garapen iraunkorrerako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justizia eskuratzeko aukera erraztea, eta erakunde eraginkorrak, arduratsuak eta inklusiboak eratzea maila guztietan	42
	1.2.17. 17. GIH Itunak, helburuak lortzeko Garapen Iraunkorrerako Munduko Ituna ezartzeko bitartekoak sendotzea eta itun hori suspertzea	44

2. GIHEZen bidez GIHen ikaskuntza ahalbidetzea 47

2.1. Hezkuntza-politikan, estrategietan eta programetan GIHEZ txertatzea	48
2.2. Ikasketa-planetan eta ikasliburuetan GIHEZ txertatzea	49
2.3. Irakasleen prestakuntzan GIHEZ txertatzea	51
2.4. GIHEZen irakaskuntza ikasgelan eta beste ikaskuntza-ingurune batzuetan	53
2.5. Nola ebaluatu GIHEZen emaitzak eta GIHEZeko programen kalitatea	56

3. Ondorioak 58

1. eranskina. Aukeratutako online praktikak eta baliabideak	59
2. eranskina. Bibliografia	61

Hitzaurrea

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza (GIHEZ) sustatzen ari da UNESCO 1992tik. 2005etik 2014ra, Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada koordinatu zuen, eta, orain, jarraipen-programa garatzen ari da, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Munduko Ekintza Programa, zehazki.

Inoiz ez da horren indartsua izan Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari emandako bultzada. Mundu-mailako gaiek, klima-aldaketak, esaterako, gure bizimodua ez ezik jokabidea eta pentsamoldea ere lehenbailehen aldatu behar ditugula erakusten digute. Eta, horretarako, gizarte iraunkorrakoak lortzen lagunduko diguten gaitasun, jarrera eta jokabide berriak behar ditugu.

Ikaskuntzaren helburuak eta edukiak definitzeko orduan, behar horri erantzun behar diote hezkuntza-sistemek, eta, horretarako, ikasleak ahaldunduko dituzten pedagogiak landu behar dira; horrez gain, erakundeak beren kudeaketa-egituretan iraunkortasunaren esparruko printzipioak txertatzera premiatu behar ditugu.

Garapen iraunkorrerako 2030eko mundu-agenda berriak argi eta garbi islatzen du hezkuntzaren esparruan erantzun egokia emateak duen garrantzia. Garapen Iraunkorrerako Helburuetan esplizituki aipatzen da hezkuntza, laugarrenean, zehazki. Eta hezkuntzarekin lotutako helburu eta adierazleak ageri dira beste GIHetan ere.

Kalitatezko hezkuntza, alde batetik, xede bat da bere baitan, eta, bestetik, gainerako GIHak lortzeko bitartekoa da, garapen iraunkorraren osagai delako, bai eta garapen hori errazteko oinarritzko bidea ere. Horregatik, ezinbesteko estrategia bat da hezkuntza GIHak lortu ahal izateko.

Agiriaren diseinuak lagundu egin nahi die hezkuntzako profesionali Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzan, GIHak ikasteko eta, beraz, erdiesteko orduan. Ikaskuntzarako berriazko helburuak identifikatzeaz gain, GIH bakoitzerako zenbait gai eta jarduera iradokitzen ditu. Hainbat mailatan abian jartzeko metodoak ere badakartza, ikastaroen diseinuak edo estrategia nazionalak, adibidez.

Gida hau ez da nahitaez bete beharrekoa, ez du halako asmorik; aitzitik, gida gisa erabiltzeko aukera eman nahi du, eta iradokizunak egin nahi dizkie hezitzaileei, beraiek aukeratu eta ikaskuntza-testuinguru zehatzetara egokitu ditzaten.

Ikasle guztiek iraunkortasun-gaitasunak gara ditzaten lagungarri gertatuko ahal da, eta ahaldunduko ahal ditu gure mundu-agenda handinahi eta garrantzitsuak arrakasta izan dezan!



Qian Tang
UNESCOko Hezkuntzako zuzendariorde nagusia

Esker onez

Garapen Iraunkorrerako eta Munduko Herritartasunerako Hezkuntza Sailak landu du honako agiri hau, Inklusio, Bake eta Garapen Iraunkorraren Atalaren barnean, UNESCOren Hezkuntza Sektorean. Alexander Leicht eta Julia Heiss jaun-andreek koordinatu dute idazketa.

UNESCOK bere esker ona adierazi nahi dio argitalpen honen egile nagusiari, Marco Rieckmann-i (Vechtako Unibertsitatea, Alemania), Lisa Mindt eta Senan Gardiner taldekideen babesean jardun duenari.

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzan eta Garapen Iraunkorrerako Helburuetako hainbat arlotan adituak diren zenbait lagunek berrikusi zituzten argitalpenaren hasierako bertsioak. Bereziki, hauek aipatu nahi ditugu: Bárbara Avila, UNESCOko Sistema Hidrologikoen eta Ur Eskasiaren Atala (UNESCO); Carolee Buckler, Manitoba Education and Training, Kanada; Christopher Castle, Osasun eta Hezkuntza Atala (UNESCO); Robert J. Didham, Munduko Ingurumen Estrategien Institutua (IGES), Japonia; Vera Dilari, Hezkuntza, Ikerketa eta Erljio Gaietako Ministerioa, Grezia; May East, Gaia Education, Erresuma Batua; Margherita Fanchiotti, Lurreko Zientzien eta Geoarriskuen Murrizketen Atala (UNESCO); Ann Finlayson, Sustainability and Environmental Education (SEED), Erresuma Batua; Mario Franco, Millennium@EDU Sustainable Education, Suitza; Gerhard de Haan, Freie Universität Berlin, Alemania; Keith Holmes, Hezkuntzaren eta Gaitasun Tekniko eta Profesionalaren Atala (UNESCO); Livleen Kahlon, The Energy and Resources Institute (TERI), India; Tintin Kartini, Jayagiri Centre, Indonesia; Ragini Kumar, The Energy and Resources Institute (TERI), India; Greg Misiaszek, Pekingo Unibertsitate Normala, Txina; Yoko Mochizuki, Bake eta Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzako Mahatma Gandhi Institutua, India; Miguel Ángel Moreno, Irakasleen Prestakuntza eta Gaikuntzarako Institutu Nazionala (INAFOCAM), Dominikar Errepublikan; Tanvir Muntasim, ActionAid, Bangladesh; Zipporah Musyoki, WWFren Afrikarako Eskualde Bulegoa, Kenya; Elaine Nevin, ECO-UNESCO, Irlanda; Marianne Olesen, NBE Emakumeak, Estatu Batuak; Amina Osman, The Commonwealth Secretariat, Health and Education Unit, Erresuma Batua; Oluwafunmilayo Oyatogun, Wahamba Development Organization, Nigeria; Ashok Regmi, Gazteen Nazioarteko Fundazioa, Estatu Batuak; Elyesh Sahyoun, Organisation De Développement Durable (ODDD), Libano; Robert Schreiber, Alemaniako Gobernuaren Kanpoko Garapen Erakundearen Elkartea (VENRO); Pramod Sharma, Centre for Environment Education (CEE), India; Jinan Karamah Shayya, Libanoko Unibertsitatea, Libano; Hannes Siege, Engagement Global, Alemania; Zintle Songqwaru, The Environmental Education Association of Southern Africa (EEASA); Victoria W. Thoresen, Zientzia Aplikatuaren Hedamendu Unibertsitate, Norvegia; Felisa Tibbitts, Human Rights Education and Training Centre (HREA), Estatu Batuak; Carlos Alberto Torres, University of California, Estatu Batuak; Jair Torres, Hondamendien Arriskua Murrizteko eta Erresilientziarako Munduko Aliantza, Hezkuntza Sektorea, UNESCO; Shepherd Urenje, Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Suediako Nazioarteko Zentroa (SWEDES); Raúl Valdés Coterá, Etengabeko Hezkuntzarako Ikaskuntzako UNESCOren Institutua; Hilligje van't Land, Unibertsitatearen Nazioarteko Elkartea (IAU); Paul Warwick, Centre for Sustainable Futures, Plymouth University, Erresuma Batua; Jonathan Yee, UNESCOren Kanadako Batzordea, Kanada; Daniela Zallocco, UNESCOko Elkartutako Eskolen Sareko koordinatzaile nazionala, Argentina; Japoniako Gobernuak.

Azkenik, gure eskerrik beroena Cathy Nolan-i, argitalpenerako emandako laguntzagatik.

Akronimoen zerrenda

GIHH	Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada
GIHEZ	Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza
GAP	Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari buruzko Munduko Ekintza Programa (Global Action Programme)
IKT	Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak
BZA	Bizi Zikloaren Analisisa
GKE	Gobernuz Kanpoko Erakundea
ELGA	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea
PISA	Ikasleen Ebaluaziorako Nazioarteko Programa
GIH	Garapen Iraunkorrerako Helburuak
NBE	Nazio Batuen Erakundea
UNESCO	Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea

Sarrera

Sarrera

1. Garapen Iraunkorrerako Helburuak – asmo handiko agenda unibertsala gure mundua eraldatzeko

2015eko irailaren 25ean, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda (NBE, 2015) onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. 2012ko ekainean Rio de Janeiron (Brasil) egin zen Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren ostean (Rio+20) sortu zen gizadia iraunkortasunaren norabidean jartzeko munduko esparru berri hori, eta Nazio Batuen Erakundeko kide diren estatuak prozesu horretan sarrarazi zituen hiru urtez. Bide horretan, mundu osoko milioika pertsonak eta milaka eragilek parte hartu ahal izan zuten nazio-mailako azterketetan.

2030 Agendaren erdigunean, Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak (GIH) daude. Unibertsalak, eraldatzaileak eta inklusiboak diren helburu horiek gizadiak garapenaren alorrean dituen erronkak deskribatzen dituzte. 17 helburu horien xede nagusia (ikus 1.1 taula) munduan guztiontzat bizimodu iraunkor, baketsu, oparo eta bidezkoa ahalbidetzea da, orain eta etorkizunari begira. Gizadiaren biziraupenerako funtsezko erronkak zehazten dituzte helburuok; ingurumeneko mugak eta baliabide naturalen erabilerrako atalase kritikoak finkatzen dituzte; eta pobrezia desagerraraztearekin batera garapen ekonomikoa bultzatu beharra dagoela diote. Erreferentzia egiten diete gizarte-beharrei, hala nola hezkuntzari, osasunari, gizarte-babesari eta lan-aukerari, bai eta klima-aldaketari eta ingurumenaren babesari ere. Eta arreta berezia jartzen dute garapen iraunkorrerako muga sistemikoetan, desoreketan, kontsumo-eredu jasangaitzetan, erakundeen gaitasun ahulean eta ingurumenaren degradazioan, esaterako.

Helburu horiek erdiesteko, guztiok egin behar dugu dagokiguna: gobernuek, sektore pribatuak, gizarte zibilak eta mundutar orok. Gobernuek, beren ardurak hartuta, beren herrialdeetan 2030 Agenda ezartzeko esparru, politika eta neurriak hartuko dituztela espero da.

Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren bereizgarri nagusietako bat haren unibertsaltasuna eta zatiezintasuna da. Herrialde guztiei eragiten die, hegoaldekoei eta iparraldekoei. 2030 Agenda sinatu zuten herrialde guztiek beren garapen-ahaleginak oparotasuna bultzatzera eta Lurra babestera bideratu behar dituzte, garapen iraunkorra erdiesteko. Beraz, GIHei dagokienez, herrialde guztiak garapen bidean direla jo behar da, eta guztiei dagokie lehenbailehen neurriak hartzea.

1. taula. Garapen Iraunkorrerako 17 Helburuak (GIH)

1. Pobrezia desagerraraztea – Pobrezia desagerraraztea, mundu osoan eta dituen forma guztietan.
2. Gosea amaitzea – Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta nutrizio hobea lortzea, eta nekazaritza iraunkorra bultzatzea.
3. Osasuna eta ongizatea – Bizitza osasuntsua bermatzea eta guztion ongizatea sustatzea adin guztietan.
4. Kalitatezko hezkuntza – Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea guztientzat.
5. Genero-berdintasuna – Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neskatu guztiak ahalbidetzea.
6. Ur garbia eta saneamendua – Uraren eta saneamenduaren erabilgarritasuna eta kudeaketa iraunkorra bermatzea.
7. Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria – Denok energia arrazoizkoa, fidagarria, iraunkorra eta modernoak eskuratzeko aukera izan dezagula bermatzea.
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa – Eutsitako hazkunde ekonomikoa, inklusiboa eta iraunkorra, enplegu betea eta produktiboa eta guztiontzako lan duina sustatzea.
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura – Azpiegitura sendoagoak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta iraunkorra bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.
10. Desberdintasanak murriztea – Herrialdeen barneko eta herrialdeen arteko desberdintasanak murriztea.
11. Hiri eta komunitate iraunkorrak – Hiriak eta giza kokaguneak inklusibo, seguru, sendo eta iraunkorrak izatea lortzea.
12. Produkzio eta kontsumo arduratsuak – Kontsumo- eta ekoizpen-modalitate iraunkorrak bermatzea.
13. Klimaren aldeko ekintza – Premiazko neurriak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko.
14. Itsaspeko bizia – Ozeano, itsaso eta itsas baliabideak zaintzea eta modu iraunkorrean erabiltzea, garapen iraunkorrerako.
15. Bizia lurreko ekosistemetan – Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestea, berrezartzea eta sustatzea, basoak iraunkortasunez kudeatzea, desertifikazioari aurka egitea, lurren degradazioa geldiaraztea eta horri bira ematea, eta biodibertsitate-galera geldiaraztea.
16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak – Garapen iraunkorrerako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justizia eskuratzeko aukera erraztea, eta erakunde eraginkorrak, arduratsuak eta inklusiboak eratzea maila guztietan.
17. Itunak, helburuak lortzeko – Garapen Iraunkorrerako Munduko Ituna ezartzeko bitartekoak sendotzea eta itun hori suspertzea.

Iturria: <http://www.un.org/sustainabledevelopment/sustainable-development-goals>

2 Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza – GIHak lortzeko funtsezko baliabidea

“Sakon-sakonetik aldatu behar dugu hezkuntzak munduaren garapenean betetzen duen funtzioari buruz pentsatzen duguna, eragin katalizatzailea baitaika gizabanakoen ongizatean eta gure planetaren etorkizunean... Hezkuntzak, inoiz baino gehiago, bat etorri behar du XXI. mendeko erronka eta asmoekin, eta hazkunde iraunkor eta inklusiboa eta elkarrekin bizimodu baketsua egiten lagunduko diguten balio eta gaitasun egokiak sustatu behar ditu.”

Irina Bokova, UNESCOren zuzendari nagusia

“Munduaren garapen iraunkorrari buruz ikuspegi berri bat ekar dezake hezkuntzak, eta horixe egin behar du.”

(UNESCO, 2015)

Garapen iraunkorraren bideari ekiteak gure pentsamendua eta egiteko moduak sakonetik aldatzea eskatzen digu. Mundu iraunkorragoa egiteko eta iraunkortasunarekin lotuta GIHetan deskribatutako gaiak heltzeko, aldaketaren eragile bihurtu behar dute pertsonak. Ahaldunduko dituzten ezaguerak, gaitasunak, balioak eta jarrerak behar dituzte, garapen iraunkorrari beren ekarpena egiteko. Horregatik, garapen mota horretarako, funtsezkoa da hezkuntza. Dena den, ez dute hezkuntza-mota guztiek garapen iraunkorra sustatzen. Hazkunde ekonomiko hutsa bultzatzen duen hezkuntzak kontsumo-eredu jasanezinak sor ditzake. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren (GIHEZ) ikuspegi sendotuak ahaldundu egiten ditu ikasleak, erabaki kontzienteak har ditzaten eta arduraz joka dezaten, egungo eta etorkizuneko ingurumenaren integritateari, bideragarritasun ekonomikoari eta bidezkoagoa den gizarte bati begira.

GIHEZen bidez, zenbait gaitasun gararazi nahi dira, gizon-emakumeek beren ekintzez gogoeta egin dezaten, kontuan hartuta ekintza horiek egun eta etorkizunean gizartean, kulturean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen eraginak, bai tokiko ikuspegitik eta bai ikuspegi globaletik; egoera zailtan iraunkortasunaren ikuspegitik jardun dezaten, baita horretarako norabide berriak hartu beharra dagoenean ere, eta gizarteak garapen iraunkorrerantz bultzatze aldera prozesu soziopolitikoetan parte har dezaten.

Kalitatezko hezkuntzaren osagai izan behar du GIHEZek, etengabeko ikaskuntzaren ideiarekin lotuta: hezkuntza-erakunde guztiek (haur-hezkuntzakoek, goi-mailakoek, hezkuntza formalekoek eta ez-formalekoek) ohartu behar dute garapen iraunkorrarekin lotutako gaiak sakon landu behar

dituztela, eta iraunkortasunarekin lotutako gaitasunak garatu. Egungo erronken argitan ikasle guztientzat garrantzitsua den hezkuntza ahalbidetzen du GIHEZek.

Hezkuntza holistiko eta eraldatzailea da GIHEZ, eta ikaskuntzaren edukiak eta emaitzak, pedagogia eta ikaskuntza-ingurunea hartzen ditu barnean. Beraz, ikasketa-planetan klima-aldaketa, pobrezia, kontsumo arduratsua eta horrelako gaiak lantzeaz gain, ikaskuntzako eta irakaskuntzako testuinguru interaktiboak sortzen ditu, ikasleengan oinarrituta. Irakaskuntzatik ikaskuntzarako bilakaera eskatzen du. Pedagogia eraldatzailea eta ekin-tzailea bilatzen du, eta askotariko ezaugarriak biltzen ditu, hala nola ikaskuntza autodidaktikoa, parte-hartzea eta lankidetzak, problemetarako orientabidea, zeharkako eta barneko izaera, edo ikaskuntza formalaren eta ez-formalaren arteko loturak ezartzea. Ikuspegi pedagogiko horien bidez soilik gara daitezke garapen iraunkorra sustatzeko beharrezko gaitasunak.

Nazioarteak garapen iraunkorrerako eragile gisa hezkuntza honi eman dion aitorpena sendotu egin da, eta hiru goi-bileratan aipatu da: Ingurumenari eta Garapenari buruzko NBEn Konferentzian (UNCED, ingelesezko siglaz) Rio de Janeiron, 1992an; Garapen Iraunkorrari buruzko Munduko Goi Bileran (WSSD) Johannesburgon (Hegoafrika), 2002an; eta Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentzian (UNCSD) Rio de Janeiron (Brasil), 2012an. Munduko beste akordio handi batzuetan ere aitortu izan da, Parisen, esaterako (12. artikulua).

Hezkuntzako eta ikaskuntzako arlo guztietan garapen iraunkorraren printzipio eta jarduerak txertatu beharra azpimarratu zuen Nazio Batuen GIHEZ Hamarkadak ere, aldaketak eginarazteko ezaguera, balio eta jarreretan eta, horrela, guztiontzat gizarte iraunkor eta bidezkoagoa egiteko. GIHEZi buruzko Munduko Ekintza Programak (GAP), UNESCOren Konferentzia Orokorraren 37. bilkura babestu zuenak (2013ko azaroa), hamarkadako lorpenetan oinarrituta GIHEZ zabaldu nahi du; programa Nazio Batuen Batzar Nagusiaren A/RES/69/211 Ebazpenak berretsi zuen, eta GIHEZi buruzko UNESCOren Munduko Konferentziak inauguratu zuen, 2014ko azaroaren 12an (Aichi-Nagoya, Japonia).

2. taula. GIHetako 4.7 helburua

2030erako, ikasle guztiek garapen iraunkorrerako beharrezkoak diren ezaguera teoriko eta praktikoak barneratuko dituztela bermatzea, besteak beste, garapen iraunkorrerako hezkuntzaren bidez, bizimodu iraunkorra hartuz, giza eskubideen, genero-berdintasunaren, bake-kulturaren, indarkeriarik ezaren, munduko herritartasunaren eta kultura-aniztasunaren bidez nahiz garapen iraunkorraren kulturean lagunduz.

Iturria: Nazio Batuek, 2015

GIHetan, berariaz aipatzen da GIHEZ, hezkuntzako 4.7 helburu gisa, Munduko Herritartasunerako Hezkuntzaren multzoan, UNESCOk sustatutako ikuspegi osagarri gisa¹. Gainerako 16 GIHetarako GIHEZek duen garrantzia ere nabarmendu behar da. Zeharkako izaeraz iraunkortasunarekin lotutako gaitasunak gararazten dizkie ikasleei, eta, horregatik, ezinbesteko ekarpena egiten dio GIHEZek GIHen lorpenari; izan ere, gizabanakoei garapen iraunkorraren alde egiteko bidea ematen zaie horrela, aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoa sustatuz ez ezik, beren jokabidea aldatzeko bidea emanaz. GIHEZek ikaskuntzan emaitza esanguratsuak izan ditzake ezagueran, arlo sozioekonomikoan eta jokabideetan, eta GIH bakoitzeko erronkei heltzeko eta gauzatzeko ahalmena eman diezaioke horrek gizabanakoari. Laburbilduz: GIHak betetzen laguntzeko aukera ematen zaie pertsoneri GIHEZen bidez, GIH horiek zer diren ulertzeko eta beren ekarpena egiteko behar dituzten ezagueraz eta gaitasunez hornitzen baitituzte, informatuta dauden herritar diren aldetik; horrelaxe egingo baitute horiek erdiesteko beharrezkoa den aldaketa.

3. Norentzat da gida, eta nola erabili behar da?

Argitalpen honek argibideak eman nahi dizkie irakurleei, GIHak lortzeko hezkuntza eta, bereziki, GIHEZ nola erabili jakin dezaten. Ikaskuntza-helburuak identifikatzen dira, GIH bakoitzerako jarduerak eta gaiak iradokitzen dira, eta hainbat mailatan abian jartzeko bideak ere deskribatzen dira, ikastaroak antolatuz nahiz estrategia nazionalak txertatuz, esaterako. Legegileen, ikasketa-planak garatzen dituztenen eta hezitzaileen lanaren sostengu izan nahi du, GIHen ikaskuntzarako estrategiak, planak eta ikastaroak diseinatzerakoan. Dokumentu hau ez da nahitaez bete beharrezkoa; gida bat da, eta iradokizunak egiten dizkie hezitzaileei, egokienak aukeratu eta ikaskuntza-testuinguru zehatzetara egokitu ditzaten.

Hezitzaileek baliabide gisa erabil dezakete testua, ariketak, ikasliburuak, online ikastaro irekiak nahiz erakusketak diseinatzerakoan. Lagungarri izan daiteke hezkuntza formaleko erakundeetako irakasleentzat eta ikasketa-planen egileentzat, prestakuntza profesionaleko programetako prestatzaileentzat nahiz hezkuntza ez-formaleko eskaintzen diseinatzaile diren GKEetako langileentzat. Hezkuntza-politiken arduradunentzat ere erabilgarri izango da GIHetarako ikaskuntza-helburuez ematen diren ideia nagusiak aintzat hartzea, politika eta estrategiak lantzerakoan. Batzuentzat, GIHei, GIHEZi eta arlo horretako gaitasunen ikaskuntzarako ikuspegiei buruzko

sarrera izan daiteke gida. Beste batzuentzat, gidak eta gomendatutako baliabideek beren ulermena susta dezakete. GIHEZen eta lotutako beste arlo batzuen gainean eraikitzeko ere erabil daiteke, munduko herritartasunerako, esaterako, edo giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzarako, edo ingurumen-hezkuntzarako.

Xede duen publikoa askotarikoa denez eta gida bera modu askotara erabil daitekeenez, GIH bakoitzerako helburuak, gaiak eta jarduerak orokorki deskribatu dira. Gida unibertsala da, eta, beraz, ez dago adin-tarte bateko ikasleentzat edo ikaskuntza-ingurune nahiz testuinguru nazional, sozial edo kultural zehatz baterako pentsatua. Mundu guztiko eta adin guztietako ikasleei zuzentzen zaie, eta ikaskuntza-testuinguru orotan aplika daiteke. Noski, errealitate batean abiaraztean, herrialde edo tokiko testuingurura egokitu beharko dira. Ikaskuntza-helburu bakoitzeko, ikasleek zer mailatan lortzea nahi duten definitu behar dute hezitzaileek eta ikasketa-planen egileek (adibidez, oinarrizko mailan Lehen Hezkuntzan, edo adituen mailan, goi-mailako hezkuntzan).

Gida honetan bildu diren ikaskuntza-helburu, gai eta jarduerak gida orokor gisa hartu behar dira, ez baitira ez behin betikoak eta ez zehatzegiak ere. GIHen lorpena sustatzeko beharrezko ikaskuntzaren emaitzetara (ezaguerak, gaitasunak eta jokabideak) iristen dira ikaskuntza-helburuak, eta oro har mundu osoan aplikatzeko moduan diseinatu dira; baina oinarrizko ideiak ematen dituzte soilik. Beraz, eskualde bakoitzean garrantzitsuak diren gaiekin osatu behar dira, eta eguneratu egin behar dira, etengabe aldatzen ari den gure mundu honetan sortzen direnekin. Gerta daiteke edukietako batzuk jada egungo hezkuntza-programekin landuta egotea. Halakoetan, baliabide osagarri gisa erabil daiteke testua, edo egungo programak berrikusi edo hobetzeko erreferentzia gisa.

Dokumentu honen atal nagusiak ikasleek GIHEZen garatu beharreko funtsezko gaitasunak laburtzen ditu, eta 17 GIHetako bakoitzerako beharrezkoak diren ikaskuntza-helburuak, gaiak eta ikuspegi pedagogikoak deskribatzen ditu. Gero, atal laburrago batean, hezkuntza-maila eta testuinguru desberdinetan aplikatzeko gidalerroak eskaintzen dira.

1. Global Citizenship Education: Topics and learning objectives UNESCO, 2015 <http://unesdoc.unesco.org/images/0023/002329/232993e.pdf>

1.

GIHak

lortzeko

ikaskuntza-helburuak

1. GIHak lortzeko ikaskuntza-helburuak

GIHetarako funtsezkoak diren zeharkako gaitasunak gararaz ditzake GIHEZek. Eta GIH jakin bat lortzeko beharrezkoak diren ikaskuntza-emaizta espezifikoak ere gara ditzake.

1.1. Oinarrizko zeharkako gaitasunak GIH guztiak erdiesteko

Mundu osoan gizarteak aurrerabide teknologikoarekin eta globalizazioarekin bat eginda aurrera egiteko borrokan ari diren heinean, erronka berriak sortzen zaizkie. Eta, horrekin batera, ziurgabetasun eta konplexutasun handiagoa; indibidualizazio eta gizarte-aniztasun handiagoa; uniformetasun ekonomiko eta kultural zabalagoa; euskarri dituzten ekosistemetak zerbitzuen degradazioa; eta hondamendi natural eta teknologikoekiko zaurgarritasun eta esposizio handiagoa. Informazio-kantitate handia dute eskura, gero eta handiagoa. Modu autonomo eta sortzailean ekitea eskatzen dute ezaugarri horiek guztiek, egoeraren konplexutasunak gainditu egiten dituelako arazoan ebazpenerako zehazki plan baten arabera lan egiten duten oinarrizko prozesuak. Bizi diren mundu konplexua ulertzen ikasi behar dute gizon-emakumeek. Gai izan behar dute laguntzeko, adierazteko eta ekiteko, aldaketa positiboa izan dadin (UNESCO, 2015). "Iraunkortasunaren arloko herritarrek" dei geniezaieke (Wals, 2015; Wals eta Lenglet, 2016).

Iraunkortasunaren arloko herritarrek oinarrizko gaitasun batzuk behar dituzte gaur egungo munduan modu eraikitzaile eta arduratsuan parte har dezaten, ados gaude guztiok horretan oro har. Zenbait testuingurutan eta egoera zailetan ekiteko eta autonomiaz jarduteko pertsonak izan behar dituzten ezaugarriak definitzen dituzte **gaitasunak**. Ezagutza, afektu, nahimen eta motibazioarekin lotutako elementuak dituzte barnean. Beraz, ezagutzaren, trebetasun eta abilezien, interesen eta afektuzko jarreraren interakzio dira. Gaitasunak edo konpetentziak ezin dira irakatsi, ikasleek beraiek garatu behar baitituzte. Ekinean barneratzen dira, esperientziaren eta gogoetaren bidez (UNESCO, 2015; Weinert, 2001).

Oinarrizko gaitasunak mundu osoko eta adin guztietako ikasleek behar dituzten zeharkako gaitasunak dira (adinaren arabera, gehiago edo gutxiago garatuko dira). Zeharkakoak, funtzio askotarako baliozkoak eta testuinguruarekiko independenteak dira. Ez dira zenbait egoeratan ondo jokatze beharrezkoak diren gaitasun espezifikoaren ordezkokoak, baina, horiek ere kontuan hartuta, irismen handiagoa dute (Rychen, 2003; Weinert, 2001).

Ondorengo oinarrizko gaitasun hauek ezinbestekotzat jotzen dira garapen iraunkorraren aurrerabiderako (ikusi de Haan, 2010; Rieckmann, 2012; Wiek et al., 2011).

1.1.taula. Iraunkortasunerako oinarrizko gaitasunak

Pentsamendu sistemikorako gaitasuna: harremanak ezagutu eta ulertzeko trebetasuna; sistema konplexuak aztertzea; eremu eta eskalen barnean sistemak nola txertatzen diren pentsatzeko; eta ziurgabetasun-egoeretan jarduteko.

Aurrea hartzeko gaitasuna: etorkizuneko askotariko agertokiak ulertu eta ebaluatzeko trebetasuna (izan daitezkeenak, ziurrenik izango direnak eta desiragarriak); etorkizuneko ikuspegiak lantzeko; zuhurtasun-printzipioa aplikatzeko; ekintzen ondorioak ebaluatzeko; eta arrisku eta aldaketen artean jarduteko.

Gaitasun normatiboa: gure ekintzen atzean dauden arau eta balioak ulertu eta horiei buruz gogoeta egiteko trebetasuna; eta iraunkortasun-arloko balio, printzipio, helburu eta xedeak negoziatzeko, interes-gatazketan nahiz amore emateko uneetan, ziurgabetasun-egoeretan eta kontraesanetan.

Gaitasun estrategikoa: tokiko mailan eta testuinguru zabalagoetan ekintza berritzaileak taldean garatu eta abiarazteko trebetasuna.

Lankidetzarako gaitasuna: besteengandik ikasteko trebetasuna; besteen behar, ikuspegi eta ekintzak ulertu eta errespetatzeko (enpatia); besteak ulertu, besteekin identifikatu eta sentiberatasunez jokatzeko (lidergo enpatikoa); taldean gatazkei aurre egiteko; eta parte hartuz eta elkarrekin arazoei irtenbidea bilatzeko.

Pentsamendu kritikorako gaitasuna: arauak, jardunbideak eta iritziak zalantzan jarri eta eztabaidatzeko trebetasuna; norberaren balio, ikuspegi eta ekintzez gogoeta egiteko; eta iraunkortasunari buruzko arrazoibidean jarrera bat hartzeko.

Autokontzientziarako gaitasuna: tokiko komunitatean eta gizartearen (munduan) norberak betetzen duen rolari buruz gogoeta egiteko trebetasuna; norberaren ekintzak etengabe ebaluatu eta bultzatzeko; eta norberaren sentimendu eta desirekin aurrera egiteko.

Arazoen ebazpenerako gaitasun integratua: arazoan ebazpenerako askotariko esparruak iraunkortasun-arazo konplexuei aplikatzeko eta garapen iraunkorra sustatzen duten bidezko irtenbideak pentsatzeko trebetasun orokorra, aurrez aipatutako gaitasunak bateratzen dituena.

Gaur egungo erronka zailekin jarduteko iraunkortasunaren alde ari diren herritarrek berariaz zer behar duten adierazten duten oinarrizko gaitasunek. Funtsezkoak dira GIH guztietarako, eta GIHak elkarrekin erlazionatzeko aukera ematen diete herritarrei, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaz ikuspegi globalagoa izan dezaten.

Ondoren deskribatzen diren ikaskuntza-helburu espezifikoak iraunkortasuneko zeharkako gaitasunen multzo osoa kontuan hartuta landu behar dira. Adibidez, 1. GIH hartuta (“Pobrezia desagerraraztea. Pobrezia desagerraraztea, mundu osoan eta dituen forma guztietan”), ikaskuntza-helburu espezifikoetako bat honela defini daiteke: “Ikasleak badaki zerbait pobrezia arrazoi eta ondorioez”. Zenbait herrialdeetako pobrezia buruz, kasu-azterketen bidez jakin dezake. Gainera, ikaskuntza-jarduera hori lagungarria izan daiteke pertsonaren pentsamendu sistemikorako gaitasuna lantzeko, pobrezian hainbat faktorek eragin dezaketela ulertarazten duenez. Dena den, pentsamendu sistemikorako gaitasuna ez da pobrezia mugatzen. Oinarrizko gaitasuna den aldetik, aukera du ikasleak, beraz, beste GIHen esparruetako erlazioak ikusteko.

Berebiziko garrantzia du GIHetarako ikaskuntza-helburu espezifikoak zehazteak. Baina, aldi berean, ez dugu ahaztu behar helburu horiek ez direla landu behar mundu iraunkorrerako bidean sostengu izango ditugun iraunkortasuneko oinarrizko gaitasunetatik bereizita. Multzo berean landu behar ditugu ikaskuntza-helburuak eta oinarrizko gaitasunak. Horregatik,

dokumentu honetan deskribatzen diren ikaskuntzako ikuspegi eta metodoak gaitasunen garapenerako jardunbide egokietan oinarritzen dira. Gida eta esparru hau lantzerakoan, hezitzaileei beren hezkuntza-jardueraren bidez zein oinarrizko gaitasun indartzen dituzten pentsarazi nahi diegu, kontuan hartuta hurrengo atalean GIH bakoitzerako zehaztu diren berariazko helburuen multzoa.

1.2. GIHetarako berariazko ikaskuntza-helburuak

Ondoren, GIH guztietarako berariazko ikaskuntza-helburuak adierazi dira, ezagutzaren eremuan, eremu sozioemozionalean eta jokabideei dagokienean.

Ezagutzaren eremuan, GIH bakoitza eta helburu hori lortzeko zehaztutako erronkak hobeto ulertzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta pentsamendu-tresnak bildu dira.

Eremu sozioemozionalean, ikasleei elkarrekin lan egin, negoziatu eta komunikatzeko aukera ematen dieten trebetasun sozialak bildu dira, GIHak eta garatzeko behar dituzten trebetasun, balio, jarrera eta gogoetarako pizgarriak sustatzeko.

Jokabideari dagokion eremuan, ekintzarako gaitasunak deskribatu dira.

Gainera, GIH bakoitzerako gai eta ikuspegi pedagogikoei buruzko iradokizunak ere ematen dira.



1.2.1. 2. GIH | Pobrezia desagerraraztea | Pobrezia desagerraraztea forma guztietan

1.2.1. taula. "Pobrezia desagerraraztea" 1. GIHrako ikaskuntza-helburuak

<p>Ikaskuntza-helburu kognitiboak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak ulertzen ditu muturreko pobrezia eta pobrezia erlatibo kontzeptuak, eta gai da gogoeta kritikoa egiteko bere uste eta jarduera kulturez eta azpian dauden araudiez. 2. Ikasleak ezagutzen du muturreko pobreziaren eta aberastasunaren banaketa, toki, nazio eta mundu-mailan. 3. Ikasleak ezagutzen ditu pobreziaren arrazoi eta ondorioak, hala nola baliabideen eta energiaren banaketa desorekatua, kolonizazioa, gatazkak, hondamendi naturalak eta klima-aldaketak eragindako beste ondorio batzuk, ingurumenaren degradazioa eta hondamendi teknologikoak, edota babes sozialerako sistema eta neurrien falta. 4. Ikasleak badaki muturreko pobreziak eta aberastasunak eragina dutela oinarritzko giza eskubideetan. 5. Ikasleak badaki zein diren pobrezia murrizteko estrategiak eta neurriak, eta gai da pobrezia lantzerakoan gabezieta oinarritutako ikuspegiak eta indarguneetan oinarritutakoak bereizteko.
<p>Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da beste batzuekin elkarlanean jarduteko, energiak eta baliabideek beren komunitateetan eta harago duten banaketa aldatzeko gizabanakoak eta komunitateak ahaldundu daitezen. 2. Ikaslea gai da muturreko pobreziaren eta aberastasunaren aurrean kontzientziak jokatzen duela erakusteko, eta irtenbideei buruzko elkarriketak sustatzeko. 3. Ikaslea gai da pobreziaren aurrean sentiberatasuna erakusteko, bai eta behartsuekiko eta egoera zaugarrian daudenekiko enpatiaz eta elkartasunez jokatzeko ere. 4. Ikaslea gai da pobreziaren aurrean bere bizipenak eta dituen aurreiritziak ezagutzeko. 5. Ikaslea gai da munduan desorekaren erakusle diren egiturei eusteko orduan berak betetzen duen rolaz gogoeta kritikoa egiteko.
<p>Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da pobrezia murrizten laguntzen duten jarduerak planifikatu, abiarazi, ebaluatu eta berritzeko. 2. Ikaslea gai da justizia ekonomiko eta soziala, arriskuak murrizteko estrategiak eta pobrezia desagerrarazteko neurriak sustatzen dituzten politikak landu eta integra ditzaten eskatzeko eta horren aldeko jarrera erakusteko publikoki. 3. Pobrezia eragitearekin eta desagerraraztearekin lotuta, ikaslea gai da tokiko, nazio eta nazioarteko ekimenen kudeaketarako estrategiekin lotutako erabakiak ebaluatzeko eta horietan parte hartzeko eta eragiteko. 4. Ikaslea gai da bere kontsumo-jardueretan pobrezia murrizteari, justizia sozialari eta ustelkeriari buruzko iritziak eta ideiak txertatzeko. 5. Ikaslea gai da pobreziarekin lotuta dauden arazo sistemikoak lantzeko bidea emango duten irtenbideak proposatzeko.

1.2.1a taula. "Pobrezia desagerraraztea" 1. GIHrako iradokitako gaiak

Pobreziaren definizioak

Muturreko pobreziaren eta aberastasunaren banaketa toki, nazio eta mundu-mailan, eta horien arrazoiak

Gizarte-ongizaterako babes-sistema eta neurrien garrantzia

Baliabide ekonomikoetarako eskubidean berdintasunak duen garrantzia, bai eta oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko aukeran, lurra eduki eta kontrolatzean eta ondasun, oinordetza, baliabide natural eta zerbitzu teknologiko eta finantzario egokietan (mikrofinantzaketa barne) duena ere

Pobreziaren, hondamendi naturalen, klima-aldaketaren eta ekonomia, gizarte eta ingurumeneko beste inpaktu eta arazo batzuen arteko erlazioa

Pobreziarekin lotutako lan-baldintzak, hala nola esplotazioaz baliatzen diren enpresak, haurrak lanerako erabiltzea eta esklabotza

Pobrezia eta zaugarritasun-egoeran bizi direnen erresilientzia

Pobreziaren ondorioak, besteak beste, elikadura okerra, haurren eta amen heriotzak, krimena eta indarkeria

Garapenerako lankidetzak

Behartsuen aldeko jarreraren eta genero-ikuspegian oinarritutako garapen-estrategietarako politiken esparruak, toki, nazio eta nazioarte-mailan

1.2.1b taula. "Pobrezia desagerraraztea" 1. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Eskolen eta unibertsitateen arteko itunak garatzea munduko eskualdeetan (hegoaldea/iparraldea; hegoaldea/hegoaldea)

Tokian eta munduan pobreziaz sentiberatzeko kanpaina bat planifikatzea eta egitea

Bidezko merkataritzako produktuak saltzeko enpresa bat planifikatu eta antolatzea

Tokian-tokian, parte hartzeko eta etengabe prestatzeko aukerak planifikatzea eta abian jartzea GKEekin, sektore pribatuekin eta komunitateko taldeekin elkarlanean, pobrezia-egoeran bizi direnak ahalduntzeko, arriskuekiko zaugarritasuna murrizteko eta horien erresilientzia indartzeko.

Pobreziaz eta aberastasunaz kasu-azterketa bat egitea zenbait herrialdetan (ikerketa dokumentalaren bidez), eta tokian (bisitak, elkarrizketak... eginez).

Pobreziaren aurka ari diren erakundeetan jarduteko aukera ematea

Ikerketa-proiektu bat egitea galdera honen inguruan: "Pobrezia handitzen edo murrizten ari da?"



1.2.2. 2. GIH | Gosea amaitzea | Gosea amaitzea, elikagai-segurtasun eta nutrizio hobea lortzea, eta nekazaritza iraunkorra bultzatzea

1.2.2. taula. "Gosea amaitzea" 2. GIHrako ikaskuntza-helburuak	
Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak badaki zer diren gosea eta malnutrizioa, horiek giza bizitzan dituzten ondorio fisiko eta psikologikoak, eta zer talde diren zaugarrienak. 2. Ikasleak ezagutzen ditu gosearen eta malnutrizioaren neurria eta banaketa gaur egun eta historian, toki, nazio eta mundu-mailan. 3. Ikasleak badaki zein diren gosearen eragile eta kausa nagusiak, gizabanako, toki, nazio eta mundu-mailan. 4. Ikasleak ezagutzen ditu nekazaritza iraunkorraren printzipioak, eta ulertzen du lurra eta ondasunak izateko legezko eskubideak beharrezkoak direla, nekazaritza hori sustatzeko. 5. Ikasleak badaki beharrezkoa dela nekazaritza iraunkorra munduan goseari eta malnutrizioari aurre egiteko, eta gosearen, malnutrizioaren eta dieta eskasaren aurka egiteko beste estrategia batzuk ezagutzen ditu.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da gosearen kontrako borroka, nekazaritza iraunkorraz eta nutrizio hobez nahiz horien arteko loturez hitz egiteko. 2. Ikaslea gai da besteekin elkarlanean jarduteko, besteak motibatu eta ahalduzkoak, guztiak gosearen aurka egin dezaten eta nekazaritza iraunkorra eta nutrizio hobea susta ditzaten. 3. Ikaslea gai da goserik eta malnutriziorik gabeko mundu baten ikuspegia lantzeko. 4. Ikaslea gai da bere helburuez gogoeta egiteko eta askotariko jarrera, estrategia eta balioekin lanean aritzeko, gosearen eta malnutrizioaren aurkako borrokarekin eta nekazaritza iraunkorra sustatzearekin lotuta. 5. Ikaslea gai da gosea eta malnutrizioa jasaten dituen jendearekiko enpatia, ardura eta elkartasuna sentitzeko.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da gosearen aurkako eta nekazaritza iraunkorraren aldeko jarduerak ebaluatu eta abiarazteko, pertsonalki eta tokian-tokian. 2. Ikaslea gai da gosearen eta malnutrizioaren aurkako borrokarako eta nekazaritza iraunkorrerako politika publikoekin lotutako erabakiak ebaluatzen eta halako erabakietan parte hartzeko eta eragiteko. 3. Ikaslea gai da gosearen eta malnutrizioaren aurkako eta nekazaritza iraunkorraren aldeko ekimenetan zenbait kudeaketa-estrategiaz hartutako erabakiak ebaluatzen eta halakoetan parte hartu eta eragiteko, toki, nazio eta nazioarte-mailan. 4. Ikaslea gai da gosearen aurkako borrokan munduko herritar aktiboaren rola kritikoki barneratzeko. 5. Ikaslea gai da bere produkzio eta kontsumo-ohiturak aldatzeko, gosearen aurka borrokatzen eta nekazaritza iraunkorra sustatzen laguntze aldera.

1.2.2a taula. "Gosea amaitzea" 2. GIHrako iradokitako gaiak

Gose eta malnutrizio kontzeptuen definizioa

Gosearekiko eta malnutrizioarekiko bereziki zaugarriak diren taldeak

Gosearen eta malnutrizioaren sustatzaile eta arrazoi nagusiak, barnean hartuta klima-aldaketaren eta elikadura-segurtasunaren arteko erlazioa, eta lurraren kalitatea okertzea

Goseak eta malnutrizioak pertsonen osasunean eta ongizatean dituzten ondorioak, aintzat hartuta migrazioa, egokitzapena eta antzeko praktikak

Janarien funtzio fisikoak, emozionalak eta soziokulturalak

Gosea, janarien ugaritasunarekin, obesitatearekin eta jakien hondakinekin lotuta

Munduko elikagaiak: inportazioa, esportazioa, labore komertzialak, nazioarteko zergak, diru-laguntzak, merkataritza-sistemak, genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabiltzearekin lotutako merituak, arriskuak eta erronkak

Gosearekin eta nekazaritza iraunkorrarekin lotutako erakunde eta mugimenduak, hala nola Elikadura eta Nekazaritzako Nazio Batuen Erakundea (FAO), Foodwatch, Slow Food, nekazaritza komunitarioa, nazioarteko Via Campesina mugimendua, etab.

Nekazaritza iraunkorraren kontzeptua eta printzipioak, barnean hartuta klimarekiko erresistenteak diren jarduerak, nekazaritza organikoa, nekazaritza biodinamikoa, permakultura eta basogintza

Hazi, landare eta animalien biodibertsitatea, batez ere espezie basatiekin lotuta

1.2.2b taula. "Gosea amaitzea" 2. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Rol-jokoak egitea, txikizkako ekoizleen eta enpresa handien lekua hartuta eta zergen, diru-laguntzen, muga-zergen, kuoten eta abarren eraginpeko mundu-merkatu baten testuinguruan

Tokiko eta nazioko elikagaien ekoizpenari eta kontsumo-sistemei buruzko agertokiak garatzea eta aztertzea, bai elikagaien ekoizpen-sistemetan arrisku eta hondamendi naturalek dituzten eraginei buruzkoak ere

Gosearen aurka egiteko, janarien hondakinak murrizteko eta nekazaritza iraunkorra sustatzeko ekimen egokietan eta desegokietan lantzen diren politika publiko edo kudeaketa-estrategien kasu-azterketak

Nekazaritza iraunkorra lantzen duten tokietara txangoak eta bisitak antolatzea

Eskola eta hirietako baratzeekin lotutako proiektuetan, adibidez, landaguneetatik mahaira jakiek egiten duten bideari jarraitzea: hazi, uzta bildu, janariak prestatu...

Janarien soberakinak beharrean dauden jendeari eramateko ekimenetan parte hartzea bultzatzea ikasleak

Elikagaien bizi-zikloaren analisisa (BZA) egitea



1.2.3. 3. GIH | Osasuna eta ongizatea |

Bizitza osasuntsua bermatzea eta guztion ongizatea sustatzea adin guztietan

1.2.3. taula. "Osasuna eta ongizatea" 3. GIHrako ikaskuntza-helburuak

<p>Ikaskuntza-helburu kognitiboak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kasleak badaki zer diren osasuna, higieena eta ongizatea, eta kontzeptu horiei buruzko gogoeta kritikoa egin dezake, generoak osasunean eta ongizatean duen garrantziaren ulermena ere barne hartuta. 2. Kasleak ezagutzen ditu gaixotasun kutsakor eta kutsaezin larrienei buruzko datuak eta zifrak, bai eta gaixotasun, nahasmendu eta heriotza goiztiarrekiko zaurgarrienak diren talde eta eskualdeak ere. 3. Kasleak ulertzen ditu osasunaren eta ongizatearen dimentsio sozial, politiko eta ekonomikoak, eta ezagutzen ditu publizitatearen eraginak nahiz osasuna eta ongizatea sustatzeko estrategiak. 4. Kaslea jabetzen da buru-osasunaren garrantziaz. Ohartzen da xenofobiak, diskriminazioak eta larderiak buru-osasunean eta ongizate emozionalean dituzten eragin negatiboez, eta badaki alkoholak, tabakoak eta beste droga batzuek kalte egiten dietela osasunari eta ongizateari. 5. Kasleak ezagutzen ditu fisikoki eta buruz ongi egoteko bidea eta osasuna sustatzeko prebentzio-estrategiak, barnean hartuta sexu- eta ugalketa-osasuna nahiz alerta-neurri goiztiarrak eta arriskuak murriztekoak.
<p>Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea gai da gaixo daudenekin interakzioan jarduteko eta haien egoera eta sentimenduekiko enpatia sentitzeko. 2. Kaslea gai da osasun-gaiei buruz hitz egiteko, barnean hartuta sexu- eta ugalketa-osasuna, batez ere osasuna eta ongizatea sustatzen dituzten prebentzio-estrategiak indartzeko xedez. 3. Kaslea gai da besteak guztion osasuna eta ongizatea sustatuko dituzten erabakiak hartzera eta jarduerak egitera bultzatzeko. 4. Kaslea gai da bizimodu osasuntsuari eta ongizateari buruzko ikuspegi holistiko bat osatzeko, eta horrekin lotutako zenbait balio, sinesmen eta jarrera azaltzeko. 5. Kaslea gai da bere buruari, familiari eta besteei begira osasuna eta ongizatea sustatzeko konpromisoa hartzeko, aintzat hartuta osasunaren eta ongizate sozialaren esparruko lan boluntarioak eta profesionalak ere.
<p>Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea gai da bere egunerokoan osasuna sustatzen duten jokabideak hartzeko. 2. Kaslea gai da berari, familiari eta besteei begira osasuna (sexu- eta ugalketa-osasuna barne) sustatzen duten estrategiak planifikatu, abiarazi, ebaluatu eta berrosatzeko. 3. Kaslea gai da besteek laguntza noiz behar duten hautemateko eta beretzat eta besteentzat laguntza bilatzeko. 4. Kaslea gai da osasuna eta ongizatea sustatzen dituzten politikak gara eta babes ditzaten eskatzeko. 5. Kaslea gai da sendagaiak arrazoizko prezioan eskaintzeko interes publikoaren eta industria farmazeutikoarekin lotutako interes pribatuaren artean sor daitezkeen gatazkei heltzeko moduak proposatzeko.

1.2.3a taula. "Osasuna eta ongizatea" 3. GIHrako iradokitako gaiak

Gaixotasun kutsakor eta kutsaezin larriak

Talde zaurgarrienen osasun-arazoak eskualde zaurgarrienen, eta generoen arteko desorekek osasunari eta ongizateari nola eragiten dioten ulertzea

Osasuna eta ongizatea sustatzeko zuzeneko estrategiak, hala nola txertoak, elikagai osasuntsuak, jarduera fisikoa, buru-osasuna, kontsulta medikoak, hezkuntza eta sexu- eta ugalketa-osasuna, barnean hartuta haurdunaldien prebentziorako eta sexu-jarduera seguruagoetarako hezkuntza

Osasuna eta ongizatea sustatzeko zeharkako estrategiak (osasun publikoan), hala nola osasun-aseguruetarako programa politikoak, sendagaien arrazoizko prezioak, osasun-zerbitzuak (sexu- eta ugalketa-osasunaren esparruko zerbitzuak barne), drogen prebentzioa, ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia, poluzio eta kutsaduraren murrizketa, arreta goiztiarra eta arriskuen murrizketa

Bizi-kalitateari, ongizateari eta zorionari buruzko ikuspegi filosofiko eta etikoak

Sexu- eta ugalketa-osasunerako hezkuntza, familia-plangintza barne

GI Ba, beste gaixotasun batzuk edo buruko nahasmenduak dituzten pertsonen kontrako jarrera diskriminatzaileak

Zirkulazio-istripuak

Gehiegizko pisua eta obesitatea, jarduera fisiko gutxiegi egitea eta osasunari kalte egiten dioten elikagaiak

Gai kimikoak, poluzioa eta airearen, uraren eta luraren kutsadura

1.2.3b taula. "Osasuna eta ongizatea" 3. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Hirian informazioa emateko stand bat jartzea, "Hiesaren egunean", adibidez (abendua 1)

Osasunaren esparruko prebentziorako jokabideak erakusten dituzten bideoak ikustea (adibidez, kondoia erabiltzea sexu-harreman seguruak izateko, drogak eskaintzen dizkietenean "ez" esatea...)

Bizimodu osasuntsuak eta ongizateak zer esan nahi duten aztertzeke, gai horri buruzko saiakerak idaztea edota elkarrizketa etikoak eta gogoetak garatzea

Gaixotasun larriak, droga-menpekotasuna eta antzekoak bizi dituzten pertsonekin beren historiak partekatzea

Osasuna sustatzeko eta gaixotasunen prebentziorako estrategietarako trebakuntza antolatzea (adibidez, jarduera fisikoak egitea, janari osasuntsuak prestatzea, kondoia jartzea, eltxoen aurkako sare bat ezartzea, uraren bidez kutsatutako gaixotasun-iturriak hautematea eta erabiltzea)

Gaixotasun epidemiko eta endemikoei buruzko proiektu bat garatzea; arrakasta vs. erronkak (Malaria, Zika, Ebola, etab.)

Ikerketa-proiektu bat garatzea gai honen inguruan: 'Ona da urte gehiagoz bizitzea?'



1.2.4. 4. GIH | Kalitatezko hezkuntza | Kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzako aukerak bultzatzea guztientzat

1.2.4. taula. "Kalitatezko hezkuntza" 4. GIHrako ikaskuntza-helburuak

Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak ulertzen du hezkuntzak eta etengabeko ikaskuntzak (formala, ez-formala eta informala) guztioi eskaintzen dizkiguten aukeren garrantzia, garapen iraunkorrerako sustatzaile den neurrian nahiz pertsonen bizimodua hobetzeko eta GIHak betetzeko. 2. Ikaslea jabetzen da hezkuntza ondasun publiko, munduaren ondare, oinarritzko giza eskubide eta beste eskubide batzuk betetzeko oinarri dela. 3. Ikasleak ezagutzen ditu hezkuntzarako sarbidean dauden desorekak, batez ere landa-inguruetakoko neska-mutilen artekoak, eta ezagutzen ditu kalitatezko hezkuntzarako eta etengabeko prestakuntzarako aukera-berdintasunik ez izatearen arrazoiak. 4. Kulturak iraunkortasunari begira betetzen duen rol garrantzitsua ulertzen du ikasleak. 5. Ikasleak ulertzen du hezkuntzak mundu iraunkorrago, zuzenago eta baketsuagoa sortzen lagun dezakeela.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da guztiontzako kalitatezko hezkuntzaren garrantziari, hezkuntzaren ikuspegi humanistiko eta holistikoari, GIHei eta horiekin lotutako ikuspegiei buruz kontzientziazteko. 2. Ikaslea gai da modu parte-hartzaile batean besteak motibatuz eta ahalduntzeko, aukera-berdintasuna eska eta erabil dezaten. 3. Ikaslea gai da hezkuntzaren berezko balioaz jabetzeko eta bere garapenerako dituen hezkuntza-beharrak aztertu eta identifikatzeko. 4. Ikaslea gai da bere bizitza hobetzeari eta, bereziki, lanari eta ekintzailea izateari begira bere trebetasunek duten garrantziaz ohartzeko. 5. Ikaslea gai da bere kabuz GIHehiko konpromisoa hartzeko.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da guztiok kalitatezko hezkuntza izan dezagun laguntzeko, bai eta GIHak eta horiekin lotutako ikuspegiak zenbait mailatan bideratzen laguntzeko ere. 2. Ikaslea gai da hezkuntzan genero-berdintasuna sustatzeko. 3. Ikaslea gai da guztiontzako bidezko eta kalitatezko hezkuntza askea, GIHak eta horiekin lotutako ikuspegiak sustatuko dituzten politikak eskatzeko eta publikoki babesteko, bai eta hezkuntza-erakunde seguru eta inklusiboak guztion eskura jar daitezzen saiatzeko ere. 4. Ikaslea gai da gazteen ahalduntzea bultzatzeko. 5. Ikaslea gai da etengabeko trebakuntzarako dituen aukera guztiak baliatzeko eta garapen iraunkorra sustatuko duten egoera komunetan aplikatzeko barneratutako ezaguera.

1.2.4a taula. "Kalitatezko hezkuntza" 4. GIHrako iradokitako gaiak

Hezkuntza ondasun publiko, munduaren ondare komun, oinarrizko giza eskubide eta beste eskubide batzuk betetzen direla bermatzeko oinarri

Hezkuntzako 2030 Agenda, eta mundu-mailako kasu-azterketa berritzaile eta arrakastatsuak

Kalitatezko eta etengabeko hezkuntzan (ikaskuntza formala, ez-formala eta informala, IKTen erabilera barne) berdintasunean oinarritutako aukera inklusiboek duten garrantzia, pertsonen bizitza hobetzeko eta garapen iraunkorra lortzeko

Hezkuntzan guztiak sarbidea ez izateko arrazoiak (pobrezia, gatazkak, hondamendiak, genero-desorekak, hezkuntza publikoki ez finantzatzea, gero eta pribatizazio handiagoa)

Alfabetizazio eta aritmetikako oinarrizko trebetasunak eskuratzea mundu-mailan

Aniztasuna eta hezkuntza inklusiboa

XXI. mendean beharrezkoak diren gaitasunak eta konpetentziak

Garapen iraunkorra sustatzeko beharrezkoak diren ezagutzak, balioak, trebetasunak eta jokabideak

Garapen iraunkorrerako hezkuntzaren kontzeptua, erakundeen ikuspegia garapen iraunkorrerako hezkuntza hedatzeko oinarrizko estrategia gisa, eta iraunkortasun-gaitasunak garatzeko pedagogia

Gazteak eta baztertutako taldeak ahalduntzea

1.2.4b taula. "Kalitatezko hezkuntza" 4. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Eskolen, unibertsitateen eta munduko hainbat eskualdetan hezkuntza eskaintzen duten erakundeen artean itunak egitea (hegoaldea/iparraldea; hegoaldea/hegoaldea)

Kalitatezko hezkuntzaren aldeko sentiberatze-kanpaina bat planifikatzea eta egitea

Zenbait komunitate edo herrialdetako hezkuntza-sistemaz eta hezkuntzaren irisgarritasunaz kasu-azterketa bat egitea (adibidez, lehen hezkuntzako matrikulazioa)

Eskola, unibertsitate edo tokiko komunitate baterako GIHEZ proiektu bat planifikatu eta zuzentzea

NBEren Gazteriaren Trebetasunen Mundu Eguna (uztailak 15), Alfabetizazioaren Eguna (irailak 8) edo Irakasleen Eguna (urriak 5) ospatzea; edo Hezkuntzarako Munduko Ekintza Astean parte hartzea

Tokian, eskualdean edo nazioan GIHEZ saioak antolatzea

Ikerketa-proiektu bat egitea galdera honetan oinarrituta: "Zer dira eskola iraunkorrak?"



1.2.5. 5. GIH | Genero-berdintasuna | Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neskato guztiak ahalduntzea

1.2.5. taula. "Genero-berdintasuna" 5. GIHrako ikaskuntza-helburuak

Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak ulertzen ditu genero, genero-berdintasun eta generoagatiko diskriminazio kontzeptuak, ezagutzen ditu generoarekin lotuta diskriminazioak, indarkeriak eta desberdintasunak hartzen dituzten askotariko formak (esate baterako, jarduera kaltegarriak, hala nola emakumeen genitalen mutilazioa, ohoreagatiko hilketak, haurren ezkontzak, enplegu-aukera eta ordain desberdinak, hizkuntzaren eraketa, genero-rol tradizionalak, hondamendi naturalen ondorioak generoarekin lotuta), eta ulertzen ditu genero-berdintasunik ezaren egungo arrazoiak eta arrazoi historikoak. 2. Ikasleak ulertzen ditu emakume eta neskatoen oinarriko eskubideak, esplotaziorik edo indarkeriarik ez jasateko eskubidea eta ugalketa-eskubideak barne. 3. Ikasleak ulertzen ditu bere herrialde eta kulturaren barnean dauden generoen arteko desberdintasun-mailak, mundu-mailako arauekin alderatuta (ainguraketa kulturala errespetatuz), generoaren eta beste kategoria sozial batzuen interseksionalitatea barne (gaitasuna, erlijioa eta arraza, esaterako). 4. Ikasleak badaki zer aukera eta onura dakartzaten legedian eta gobernantzan genero-berdintasunak eta generoen erabateko parte-hartzeak, kontuan hartuta aurrekontu publikoen izendapena, lan-merkatua eta esparru publiko eta pribatuko erabakimena. 5. Ikasleak ulertzen du hezkuntzak, teknologiek eta legediak betetzen duten zeregina, ahalduntzeko eta genero guztien erabateko parte-hartzea lortzeko.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da genero-rolen pertzepzio tradizionala ezagutu eta zalantzan jartzeko, ikuspegi kritiko batetik eta ainguraketa kulturala errespetatuz. 2. Ikaslea gai da generoagatiko diskriminazio oro identifikatzeko eta salatzeke eta genero guztien erabateko ahalduntzearen onurez hitz egiteko. 3. Ikaslea gai da elkarlanean jarduteko, indarkeria eta generoagatiko diskriminazioa desagerrarazi, boteretik gabekoak ahaldundu eta errespetua eta berdintasuna sustatzeko. 4. Ikaslea gai da bere genero-identitateaz eta genero-rolaz gogoeta egiteko. 5. Ikaslea gai da genero-rol eta igurikimen pertsonal edo komunitario desberdinak dituztenekiko enpatia eta elkartasuna sentitzeko.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da bere ingurunea ebaluatzeko, bai bere burua eta bai generoagatik bazterten dituztenak ahalduntzeko. 2. Ikaslea gai da genero-berdintasunari eta parte-hartzeari buruzko erabakiak ebaluatzeko eta horietan parte hartu eta eragiteko. 3. Ikaslea gai da besteei babesa emateko, generoen arteko enpatia gararazi eta generoagatiko diskriminazioa eta indarkeria geldiarazteko. 4. Ikaslea gai da generoagatiko diskriminazioa hauteman eta identifikatzeko. 5. Ikaslea gai da genero-berdintasunerako estrategiak planifikatu, abiarazi, babestu eta ebaluatzeko.

1.2.5a taula. "Genero-berdintasuna" 5. GIHrako iradokitako gaiak

Generoa eraikitako kontzeptu sozial eta kultural gisa

Genero-desberdintasuna, genero-rol tradizionalak eta egiturazko diskriminazioa

Genero-berdintasuna eta parte-hartzea erabakiak hartzeko orduan

Generoa eta enplegua, soldaten desperekotasuna eta ordaindu gabeko lanaren aitortza barne

Generoa eta hezkuntza, hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren mailetara iristeko genero-berdintasuna barne

Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak

Generoa eta pobrezia, elikadura-segurtasuna eta mendekotasun finantzarioa barne

Generoa komunitatearen dinamikan (erabakiak hartzea, gobernantza, adingabeen zaintza, hezkuntza, gatazken ebazpena, hondamendietarako arriskuak murriztea eta klima-aldaketara egokitzea)

Esplotazioa, eta emakume eta neskatoen trafikoa

Generoaren eta beste kategoria sozial batzuen intersekzionalitatea (hala nola gaitasuna, erlijioa eta arraza)

1.2.5b taula. "Genero-berdintasuna" 5. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna ospatzea (azaroak 25)

Genero-identitatean eta sexu-orientazioan oinarritutako indarkerian adituak diren hizlariak gonbidatzea

Genero-roletan² oinarritutako inklusioa eta identitatea lantzen dituzten rol-jokoak egitea

Genero-ikuspegi desberdina izan dezaketen munduko beste talde batzuekin lankidetzan aritzea

Egun batez gizonen edo emakumeen lan tradizionalak egitea (lana trukatzea)

Arrisku eta hondamendi naturalek emakume, neska, gizon eta mutilengan dituzten eragin desberdinak aztertzea

Ikerketa-proiektu bat egitea, galdera honen inguruan: "Zer alde dago berdintasunaren eta ekitatearen artean, eta nola aplikatzen da lan-munduan?"

2. E.g. http://www.youth.ie/sites/youth.ie/files/SDGs_Youth_Resource%20_Pack.pdf



1.2.6. 6. GIH | Ur garbia eta saneamendua | Uraren eta saneamenduaren erabilgarritasuna eta kudeaketa iraunkorra bermatzea guztiontzat

1.2.6. taula. "Ur garbia eta saneamendua" 6. GIHrako ikaskuntza-helburuak	
Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak ulertzen du ura bizitzarako oinarrizkoa dela, zer garrantzi duen uraren kalitateak eta kantitateak, eta zein diren uraren kutsaduraren eta ur faltaren kausak, eraginak eta ondorioak. 2. Ikasleak ulertzen du ura munduko sistema eta erlazio konplexu askoren osagai dela. 3. Ikasleak badaki munduan ez dugula guztiok ur garbia eskura, ez eta saneamendu-zerbitzuak ere. 4. Ikasleak ulertzen du "ur birtual"³ kontzeptua. 5. Ikasleak badaki zer diren baliabide hidrikoen kudeaketa integratua eta uraren erabilgarritasun eta kudeaketa iraunkorra eta saneamendua bermatzeko beste estrategia batzuk, barnean hartuta uholde eta lehorteen arriskuen kudeaketa.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da tokiko komunitateetan uraren kudeaketa eta saneamendua hobetzen duten jardueretan parte hartzeko. 2. Ikaslea gai da uraren kutsaduraz, uraren erabilgarritasunaz eta ura aurrezteko neurriez hitz egiteko, bai eta kasu arrakastatsuak agerian jartzeko ere. 3. Ikaslea gai da uraren erabileran arduraz jokatu behar duela sentitzeko. 4. Ikaslea gai da saneamendu eta higieneko estandar egokien balioa ikusteko. 5. Ikaslea gai da ur garbiaren eta saneamendu-zerbitzuen eskuragarritasunean dauden alde sozioekonomikoez eta desorekez galdetzeko.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da autosufizientziarako tokiko gaitasuna hobetzeko asmoz tokiko agintariekin lankidetzan aritzeko. 2. Ikaslea gai da tokiko baliabide hidrikoen kudeaketan laguntzeko. 3. Ikaslea gai da bere aztarna hidrikoa murrizteko eta eguneroko ohituretan ura aurrezteko. 4. Ikaslea gai da uraren kalitatea eta segurtasuna indartzen duten jarduerak planifikatzeko, abiarazteko, ebaluatzeko eta berrabiarazteko. 5. Ikaslea gai da uraren kudeaketarekin lotuta tokian, nazioan eta nazioartean enpresek kudaketa-estrategiez hartutako erabakiak ebaluatzeko eta erabaki horietan parte hartu eta eragiteko.

3. Ur birtuala oinarrizko produktueta 'txertatuta' dagoena da. Ura behar da produktu eta zerbitzuak ekoizteko; nekazaritza edo industriako produktuak egiteko erabiltzen den urari produktuaren ur birtuala esaten zaio.
<http://www.unesco.org/new/en/natural-sciences/environment/water/wwap/facts-and-figures/all-facts-wwdr3/fact-25-virtual-water-flows/>

1.2.6a taula. "Ur garbia eta saneamendua" 5. GIHrako iradokitako gaiak

Uraren zikloa eta uraren banaketa munduan

Edateko uraren eskuragarritasunean aukera seguru eta arrazoizkoak izateak duen garrantzia (klimatek aldaketaren aurrean ur-segurtasuna lortzea: adibidez, ohiko lehorteeak eta, beraz, ur eskasiak, uholdeak eta, horren ondorioz, uraren gehiegikeriak eragindako presio sozial eta ekonomikoari heltzea)

Saneamendu eta higienarako eta uraren kalitate eta kantitate egokirako osasun-parametro ekitatibo eta egokiak izateak duen garrantzia

Ura izateko giza eskubidea eta ura, munduko ondasun komun gisa

Poluzioak eta gai kimikoak eta arriskutsuak isuri eta askatzeak uraren kalitatean duen eragina

Ur falta eta uraren erabilera eraginkorra

Urarekin lotutako ekosistemen garrantzia

Urarekin eta saneamenduarekin lotutako jarduerak eta programak, hala nola ura biltzekoak, gatzak kentzekoak, uraren eraginkortasuna sustatzekoak, erabilitako ura tratatzekoak, birziklatu eta berriro erabiltzeko teknologiek lotutakoak, ur-patenteenak, lurpeko urak berreskuratzeko paisaia lantzeari dagozkionak eta ur-baliabideak modu integratuan kudeatzekoak

Uraren esportazioa (ur birtuala)

Ura eta garapen iraunkorra (esaterako, ura eta generoa, ura eta desorekak, ura eta osasuna, ura eta hiriak, ura eta energia, ura eta elikadura-segurtasuna, ura eta arriskuen murrizketa, ura eta klima-aldaketa, ura eta ekonomia berdea, ura eta enplegua)

1.2.6b taula. "Ur garbia eta saneamendua" 6. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Norberaren aztarna hidrikoa⁴ kalkulatzeko

Uraren erabilera eta hornidura iraunkorraren kontzeptua garatzea toki-mailan, kasu arrakastatsuetan oinarrituta

Ur ugari edo ur falta duten eskualdeetako eskolen arteko itunak egitea

Tokiko ur-egituretara bisitak antolatzea eta eskolan eta etxean uraren kalitatea zaintzea

Uraz eta uraren garrantziaz sentsibilizazio-kanpaina bat edo gazteentzako ekintza-plan bat planifikatu eta egitea

Ur ikusezinari buruz proiektu bat egitea, adib.: zenbat ur dago litro garagardotan, kilo haragitan, elastiko batean...

Ikerketa-proiektu bat egitea, galdera honetan oinarrituta: "Zer giza jarduera egin daitezke urik gabe?"

4. Aztarna hidrikoak edo ur-aztarnak gure ondasun edo zerbitzu bakoitzerako erabilitako ur-kantitatea neurtzen du. Prozesu bakar baterako erabilitakoa neur daiteke, hala nola arroza lantzeko, jeans pare baterako edo gure autorako erregaia ekoizteko erabilitakoa; edo multinazional batek erabilitakoa neur daiteke. Herrialde batek edo pertsona batek zenbat ur erabili duen ere esan diezaguke aztarna hidrikoak. Ikusi: <http://waterfootprint.org/en/resources/interactive-tools/personal-water-footprint-calculator/>



1.2.7. 7. GIH | Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria | Denok energia arrazoizkoa, fidagarria, iraunkorra eta modernoa eskuratzeko aukera izan dezagula bermatzea

1.2.7.taula. "Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria" 7. GIHrako ikaskuntza-helburuak	
Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kasleak ezagutzen ditu energia-iturriak (berriztagarriak eta berriztaezinak), horien alde onak eta txarrak (ingurumen-inpaktuak barne), osasunarekin lotutako gaiak, energiaren erabilera, babesa eta segurtasuna, eta tokiko, herrialdeko eta munduko energia-egituran duen parte-hartzea. 2. Kasleak badaki zer energia erabiltzen den nagusiki munduko eskualdeetan. 3. Kasleak ulertzen ditu energia-eraginkortasun eta nahikotasun kontzeptuak, eta badaki horiek lortzeko zer estrategia eta politika sozio-tekniko erabili behar diren. 4. Kaslea jabetzen da politikek energiaren ekoizpenean, horniduran, eskaeran eta erabileran duten eraginaz. 5. Kasleak badaki iraunkorrak ez diren bideetatik energia ekoizteak zer eragin negatibo dituen, ulertzen du energia-teknologia berriztagarriek garapen iraunkorra bultzatzen dutela, eta badaki teknologia berriak eta berriztaileak behar direla eta, batik bat, herrialdeen arteko lankidetzaren bidez teknologia transferitu behar dela.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea gai da energia-eraginkortasunaren eta nahikotasunaren beharra defendatzeko. 2. Kaslea gai da ikusteko beste pertsona, herrialde edo eskualde batzuen energia beharra (arrazoizkoa, fidagarria, iraunkorra eta garbia). 3. Kaslea gai da besteekin elkarlanean aritzeko, energiaren teknologiak beste testuinguru batzuetara transferitu eta egokitzeko, bai eta energia erabiltzeko jardunbide egokiak bere komunitateekin partekatzeko ere. 4. Kaslea gai da energiaren ekoizpen eta erabilerarekin lotutako arau eta balioak azaltzeko edota eraginkortasunarekin edo nahikotasunarekin lotuta berak egiten duen energia-erabilera ebaluatu eta horretaz gogoeta egiteko. 5. Kaslea gai da bere herrialdean energiaren ekoizpen, hornidura eta erabilera fidagarrian datzan ikuspegia garatzeko.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea gai da bere inguru pertsonalean energia-eraginkortasuna eta nahikotasuna areagotzeko eta tokiko energia-egituran energia berriztagarrien kantitatea handitzeko neurriak hartu eta ebaluatzeko. 2. Kaslea gai da testuinguru jakin baten arabera energia berriztagarrietarako estrategia egokiena zehazten lagunduko dioten oinarritzko printzipioak aplikatzeko. 3. Kaslea gai da proiektu energetiko handienek (adibidez, itsasoko parke eoliko bat) eta interes-taldeekin (natura barne) lotutako politikek luzera izan ditzaketen inpaktu eta ondorioak aztertzeko. 4. Kaslea gai da energiaren ekoizpen, hornidura eta erabilerarekin lotutako politika publikoetan eragiteko. 5. Kaslea gai da negozio-eredu desberdinak konparatzeko eta irtenbide energetikoetarako horien egokitasuna ebaluatzeko, bai eta energiaren hornitzaileengan eragiteko ere, energia seguru, fidagarri eta iraunkorra ekoitz dezaten.

1.2.7a taula. "Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria" 7. GIHrako iradokitako gaiak

Energia motak, energia berriztagarriak bereziki: eguzki-energia, eolikoa, hidrikoa, geotermikoa, marea-energia...

Energiaren produkzioa, hornidura, eskaria eta erabilera herrialdeetan

Energia-eraginkortasuna eta nahikotasuna, energiaren erabileran

Estrategiak: energia zentralizatu/deszentralizatu ekoiztea; autosufizientzia energetikoa (adibidez, tokiko elektrizitate-konpainien bidez)

Energiaren dimentsio politiko, ekonomiko eta soziala, eta botere-konstelazioekiko loturak; adibidez, energiaren esparruko megaproiektuetan, eskala handiko eguzki-haztegietan edo presa-proiektuetan (botere ekonomikoa eta politikoa mugetan zehar, indigenen eskubideak)

Energiaren ekoizpen, hornidura eta erabileraren eraginak; ingurumen-gaiak (adib., klima-aldaketa, energia grisa⁵)

Karbono urriko soluzio energetikoen garapenean sektore publikoak eta pribatuak betetzen duten rola

Petrolio-produkzioaren gailurra eta energia-segurtasuna; petrolio eta beste energia-iturri berriztaezin batzuekiko mendekotasun handiegia

Teknologia orokorren eta erregai fosilen erabilera "garbiagorako" teknologiaren arteko lotura

Generoarekin lotutako gaiak, energiaren ekoizpen, hornidura eta erabilerari dagokienez

1.2.7b taula. "Energia eskuragarria eta ez-kutsagarria" 7. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Energia berriztagarrien esparruko teknologiekiko esperimenduak

Norberaren energiaren erabilerari buruzko gogoeta eta eztabaida; adibidez, dimentsio batean (subjektiboa) energia erabiltzeko arrazoiak sailkatzea, "oinarrizko beharrak asetzetik" (jakiak prestatzeko energia, etab.) "luxuzko bizimodu batera" bitartean (igerileku baterako energia, etab.)

Energiaren kokaguneetara bisitak egitea, energia moten eta proiektuen alde on eta txarrez eztabaidatuz

Etorkizuneko energiaren ekoizpen, hornidura eta erabilerarako agertokiaren azterketa egitea

Energia aurrezteko kanpaina bat egitea erakundeetan bertan edo toki-mailan

Gure oinarrizko beharretarako (ogia egiteko, zerealak ekoizteko) zenbat energia behar dugun aztertzeke, taldeko proiektu bat zuzentzea.

Ikerketa-proiektu bat egitea, gai honen inguruan: "Nola lotzen dira energia eta giza ongizatea?"

5. Energia grisa produktu batekin lotutako energia ezkutua da; produktuaren bizi-zikloan kontsumitutako energia guztia hartzen du aintzat, ekoizten denetik erabat desagertu artekoa.



1.2.8. 8. GIH | Lan duina eta hazkunde ekonomikoa | Eutsitako

hazkunde ekonomikoa, inklusiboa eta iraunkorra, enplegu betea eta produktiboa eta guztiontzako lan duina sustatzea

1.2.8. taula. "Lan duina eta hazkunde ekonomikoa" 8. GIHrako ikaskuntza-helburuak

Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak ulertzen ditu kontzeptu hauek: eutsitako hazkunde ekonomikoa, inklusiboa eta iraunkorra, enplegu bete eta produktiboa, eta lan duina, barnean hartuta parekotasunean eta genero-berdintasunean aurrera egitea; ezagutzen ditu eredu eta adierazle ekonomiko alternatiboak ere. 2. Ikasleak ezagutzen ditu munduko hainbat eskualde eta herrialdetako sektoreetako enplegu formaleko, informaleko eta langabeziako tasak, eta badaki langabeziak zer gizarte-talderi eragiten dien gehien. 3. Ikasleak badaki zer erlazio dagoen enpleguaren eta hazkunde ekonomikoen artean nahiz haren eta beste faktore moderatzaile batzuen artean (lan-indarraren hazkundea, esaterako, edo lanpostuak ordezkatzeko ari diren teknologia berriak). 4. Ikaslea jabetzen da soldata txikiek edo beherantz doazenez eta gerente, jabe edo akziodunen soldata eta irabaziek desberdintasunak, pobrezia, ezinegona... sorrarazten dituztela. 5. Ikasleak ulertzen du berrikuntzak, ekintzailtzak eta enplegu berrien sorrerak lan duina eta ekonomia iraunkorra sustatzen laguntzen dutela; bereizten ditu hazkunde ekonomikoa eta hondamendi naturalek eragindako inpaktua eta ingurumen-degradazioa.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da eredu ekonomikoek eta ekonomiaren eta gizartearen etorkizuneko ikuspegiak kritikoki eztatatzeko nahiz esparru publikoetan horiez hitz egiteko. 2. Ikaslea gai da politikariei eta enplegatzaileei soldata justuak, lan berdinatik soldata berdinarak eta lan-eskubideak eskatzeko, besteekin elkarlanean. 3. Ikaslea gai da norberaren kontsumoak munduko ekonomiako beste batzuen lan-baldintzetan duen eragina ulertzeko. 4. Ikaslea gai da gizabanako gisa dituen eskubideak identifikatzeko eta lanarekin lotuta dituen behar eta balioak argitzeko. 5. Ikaslea gai da bere bizitza ekonomiko pertsonalerako ikuspegi eta planak pentsatzeko, bere gaitasun eta testuinguruen azterketatik abiatuta.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da ekonomia iraunkor eta inklusiboa bati eta lan duinari buruzko ikuspegi eta eredu berriak lantzen laguntzeko. 2. Ikaslea gai da bidegabeko soldatekin, lan berdinatik desberdin ordaintzearekin eta lan-baldintza txarrekin lotuta zenbait hobekuntza egiteko. 3. Ikaslea gai da iraunkortasunera bideratutako berrikuntzaz eta ekintzailtzaz pentsatzeko eta ideia horiek ebaluatzeko. 4. Ikaslea gai da ekintzailtzako proiektuak planifikatu eta abiarazteko. 5. Ikaslea gai da kontsumo arduratsuz bere irizpideak adierazteko eta erabakitzeko, bidezko lan-baldintzak eta saioak sustatzeko bide den aldetik, produkzioa eta hondamendi naturalen inpaktua nahiz ingurumen-degradazioa bereizteko.

1.2.8a taula. "Lan duina eta hazkunde ekonomikoa" 8. GIHrako iradokitako gaiak

Ekonomiek giza ongizateari egindako ekarpenak, eta langabeziaren ondorio sozialak eta banakakoak

Etika ekonomikoa

Hazkunde ekonomikoaren oinarri teorikoak, ereduak eta adierazleak (BPG, sarrera nazional gordina, GGI)

Eredu eta adierazle ekonomiko alternatiboak: egoera geldikorreko ekonomiak, ondasun komunerako ekonomiak, desazkundera, iraupeneko ekonomiak, Aberastasun Inklusiboaren Indizea⁶, Gosearen Mundu Indizea⁷

Sistema finantzarioko kontzeptuak eta fenomenoak, eta horiek garapen ekonomikoan duten eragina (inbertsioak, kredituak, interesak, bankuak, burtsako espekulazioak, inflazioa, etab.)

Lan-indarra (biztanleriaren hazkundera jaiotza-tasaren, migrazioaren eta abarren arabera)

Genero-berdintasuna ekonomian eta laguntzen esparruko zerbitzuen balioa (ekonomikoa)

Lan-merkatuko desberdintasunak: askotariko gizarte-taldeen ordezkartza eta parte-hartzea, diru-sarrerak, soldadak eta asteko lan-denborak herrialde, sektore, gizarte-talde eta generoen arabera

Lan formala eta informala, lan-eskubideak (etorkin eta iheslariak batik bat), gatibu-lana, esklabotza eta gizon-emakumeen trafikoa

Ekintzaitza, berrikuntza (soziala), teknologia berriak eta tokiko ekonomiak garapen iraunkorrerako

1.2.8b taula. "Lan duina eta hazkunde ekonomikoa" 8. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoak

Hazkunde ekonomikoko zenbait eredu defendatzea

Ekintzaitzako eta ekintzaitza sozialeko proiektuak planifikatu eta abiaraztea

Ikasleentzako praktikak antolatzea tokiko enprekin batera

Enplegatzaileen eta enplegatuen beharrak eta igurikimenak aztertzea elkarrizketen bidez

Bizitza pertsonalerako eta ibilbide profesionalerako aukerak identifikatzea

Enplegatzaileak gonbidatzea ikasgelako jardueretara

Ikerketa-proiektu bat garatzea, galdera honen inguruan: "Niri ibilbide profesionalak zer ekarpen egin diezaioke garapen iraunkorrari?"

6. <http://inclusivewealthindex.org/#the-world-wants-to-know-how-its-doing>

7. <http://www.ifpri.org/topic/global-hunger-index>



1.2.9. 9. GIH | Industria, berrikuntza eta azpiegitura | Azpiegitura
sendoagoak eraikitzea, eta industrializazio inklusiboa eta iraunkorra eta berrikuntza sustatzea

1.2.9. taula. "Industria, berrikuntza eta azpiegitura" 9. GIHrako ikaskuntza-helburuak	
Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kasleak ulertzen ditu azpiegitura eta industrializazio iraunkor kontzeptuak, bai eta gizarteak bere garapenerako ikuspegi sistemiko bat izateko duen beharra ere. 2. Kasleak ulertzen ditu toki, estatu eta mundu-mailan azpiegitura eta industrializazioan iraunkortasuna lortzeko zehaztutako erronkak eta sortutako gatazkak. 3. Kasleak defini dezake erresilientzia kontzeptua azpiegituren eta plangintza espazialaren testuinguruan, funtsezko zenbait kontzeptu ulertuz, hala nola modularitatea eta aniztasuna, eta tokiko komunitatean eta mundu-mailan aplikatu ditzake. 4. Kasleak ulertzen ditu industrializazio eutsiezinen amarruak; aldiz, ezagutzen ditu garapen industrial erresiliente, inklusibo eta iraunkorraren adibide zenbait ere, eta kontingentzia-plangintza baten beharraz jabetzen da. 5. Kaslea jabetzen da iraunkortasunean oinarritutako berrikuntzarako, azpiegitura sendoagoetarako eta garapen industrialerako sortu diren aukera eta merkatu berriei.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea gai da bere inguruan azpiegitura iraunkor, sendo eta inklusiboak sustatzeko. 2. Kaslea gai da bere komunitateak motibatuzko, beren azpiegitura eta garapen industrial aldaketa ditzaten eta egitura sendo eta iraunkoragoetara hurbildu daitezen. 3. Kaslea gai da testuingurura egokitutako industria iraunkorrak sustatuko dituzten kolaboratzaileak aurkitzeko, erronka berriei erantzunez merkatu berrietara iritsi daitezen. 4. Kaslea gai da tokiko azpiegiturari dagokionez bere eskariak zein diren identifikatzeko eta horiez gogoeta egiteko (karbono- eta ur-aztarna, adibidez, edo food miles deritzona). 5. Kasleak ulertzen du, baliabide baten eskuragarritasuna aldatzean (petrolio-produkzioaren gailurra, adibidez) eta beste inpaktu eta arazo batzuen ondorioz (arriku naturalak, gatazkak...) gerta daitekeela azpiegituren arloan berak dituen beharrik eta ikuspegiak aldatu beharra izatea, IKTetarako energia berriztagarrien eskuragarritasunean, esaterako, edo garraio-aukeretan, osasun-aukeretan, etab.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea gai da bere kulturaren eta herrialdean azpiegituren ikuspegi berde eta sendoagoetarako aukerak identifikatzeko, horrek gizarteari dakartzkion onurez jabetuta eta, batik bat, hondamendi-arrikuak murrizteari dagokionez. 2. Kaslea gai da industrializazio-moduak ebaluatzeko eta beren erresilientzia konparatzeko. 3. Kaslea gai da bere herrialdeak dituen behar industrialei erantzungo dieten enpresa iraunkorrak berri eta garatzeko. 4. Kaslea gai da bere ekimenak gauza ditzan zerbitzu finantzarioetara jotzeko (maileguak, mikrofinantzaketa...). 5. Kaslea gai da erabakiak hartzen dituztenekin lan egiteko, azpiegitura iraunkorrak txertatzeko bidea hobetzeko asmoz (Internet barne).

1.2.9a taula. "Industria, berrikuntza eta azpiegitura" 9. GIHrako iradokitako gaiak

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) iraunkortasuna, barnean hartuta hornidura-kateak, hondakinak ezabatzea eta birziklatzea

Kalitatezko azpiegituraren eta helburu sozial, ekonomiko eta politikoak lortzearen arteko erlazioa

Oinarrizko azpiegituren beharra: errepideak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, saneamendua, argindarra eta ura

Berrikuntza eta industrializazio inklusiboa eta iraunkorra

Azpiegitura iraunkor eta sendoen garapena

Elektrizitate iraunkorra: elektrizitate-sare nazionalak, araututako tarifak, baliabide berriztagarri iraunkorren hedapena, gatazkak

Lan-merkatu iraunkorra, aukerak eta inbertsioak

Interneten iraunkortasuna; txateko talde berdeetatik bilatzaileen aztarna ekologikora

Garraio-azpiegituraren iraunkortasuna

Dibisa alternatiboak, tokiko azpiegiturarako inbertsio gisa

1.2.9b taula. "Industria, berrikuntza eta azpiegitura" 9. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Rol-jokoa: elektrizitaterik gabeko egun bat

Tokiko enpresa batentzat jarraipen-plan bat lantzea, hondamendi natural baten inpaktua jasan ondoren

Komuniteterako energiaren erabilera murrizteko ekintza-plan bat egitea

Erregai fosilak ez darabiltzaten garraio-sistemekiko mundu baten ikuspegia lantzea

Komunitatearen euskarri izango den azpiegitura fisiko edo sozial bat aztertuko duen proiektu bat garatzea

Komunitatea batuko duten espazioak sortzera bultzatzea ikasleak eta gazteak

Ikerketa-proiektu bat egitea, gai honen inguruan: "Onak dira berrikuntza guztiak?"



1.2.10. 10. GIH | Desberdintasunak murriztea | Herrialdeen barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

1.2.10. taula. "Desberdintasunak murriztea" 10. GIHrako ikaskuntza-helburuak

<p>Ikaskuntza-helburu kognitiboak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak ezagutzen ditu desberdintasunaren dimentsioak, horien arteko erlazioak eta aplikatzen dakizkiekeen estatistikak. 2. Ikasleak ezagutzen ditu desberdintasunak neurtzeko eta deskribatzeko adierazleak, eta jabetzen da erabakiak hartzean horiek duten garrantziaz. 3. Ikasleak badaki desberdintasuna gizarte-arazoaren sortzaile eta gizabanakoaren nahigabearen eragile dela. 4. Ikasleak ulertzen ditu berdintasuna sustatzen eta eragozten duten tokiko, herrialdeko eta nazioarteko prozesuak (zerga-politikak, soldata eta babes sozialei buruzkoak, jarduerak korporatiboak, etab.). 5. Ikasleak ulertzen ditu berdintasunarekin lotutako printzipio etikoak, eta badaki zer prozesu psikologikok sustatzen dituzten jarrera eta erabaki diskriminatzaileak.
<p>Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da desberdintasunei buruzko kontzientzia pizteko. 2. Ikaslea gai da baztertutako pertsonen enpatia sentitzeko eta horien elkartzasuna erakusteko. 3. Ikaslea gai da zenbait talderen eskubideez negoziatzeko, guztion balio eta printzipio etikoak oinarri hartuta. 4. Ikaslea jabetzen da bere inguruan eta munduan dauden desparekotasun-egoerez, eta gai da horiek ekar ditzaketen ondorio eta arazoak ezagutzeko. 5. Ikaslea gai da berdintasunean oinarritutako munduaren ikuspegi justua izateko.
<p>Jokaeren eremuko ikaskuntza-helburuak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da bere ingurunearen desparekotasunak ebaluatzeko, bai kalitatearen ikuspegitik (dimentsioak, gizabanakoen gainean duten inpaktu kualitatiboa) eta bai kantitatearen ikuspegitik (adierazleak, gizabanakoen gainean duten inpaktu kuantitatiboa). 2. Ikaslea gai da adierazle objektibo bat identifikatu edo garatzeko, haren bidez iraunkortasunaren esparruan taldeak, herrialdeak eta abar konpara ditzaten. 3. Ikaslea gai da desberdintasunen kausa eta arrazoi-motak identifikatzeko eta aztertzeko. 4. Ikaslea gai da desberdintasunak murrizteko estrategiak planifikatu, abiarazi eta ebaluatzeko. 5. Ikaslea gai da desberdintasunak murrizteko xedea duten politika publikoak eta jarduerak korporatiboak lantzerakoan parte hartzeko.

1.2.10a taula. “Desberdintasunak murriztea” 10. GIHrako iradokitako gaiak

Inklusio sozial, ekonomiko eta politikoa versus desberdintasunak (nazio eta mundu-mailan); diskriminazioaren esparruko ohiko kategoriak

Desberdintasuna neurtzeko askotariko adierazleak

Berdintasunari begira lurra, jabetzak eta baliabide naturalak izateko eskubideek duten garrantzia, eta desberdintasunek zaurgarritasunean eta gaitasunetan duten inpaktua

Zerga, soldata eta gizarte-arloko politikak

Munduko merkataritza-sistemak eta araudiak (zerga-erregimenak barne)

Laneko arauak

Erakunde garrantzitsu eta ahaltsuen gobernu eta batzordeetan talde sozial eta nazionalak duten ordezkartza

Garapenerako nazioarteko laguntzaren zenbatekoa eta haren eraginak

Gaur egungo desoreken erro historikoak (konpainia multinazionalen rola barne)

Immigrazioa eta jendearen mugikortasuna

1.2.10b taula. “Desberdintasunak murriztea” 10. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Bidegabeko tratu desorekatuen ondorio psikologikoez edo komunitatea batean desberdinkeriararen ondorioz hondamendi natural baten inpaktuak okerragotzeaz eztabaidatzeko, banaketa-joko errazak egitea

Norberaren erakundeetan kategoria sozialek duten parte-hartzea aztertzea

Munduko merkataritza-sistemako desoreken aurrean, sentsibilizazio-kanpaina bat edo kanpaina politiko bat planifikatzea

Norberaren historia aztertzea, pribilegioak jaso edo diskriminatu zituzten egoera pertsonalak aintzat hartuta

Egoera zaurgarrian dauden pertsonen elkarriketak egitea (etorkinei, adibidez)

Webgune bat edo blog bat sortzea, tokiko migrazioaren edo iheslarien egoera azpimarratu eta ulertarazteko

Ikerketa-proiektu bat garatzea, galdera honen inguruan: “Zer-nolako eragina du desberdintasunak pertsonen zoriontasunean?”



1.2.11. 11. GIH | Hiri eta komunitate iraunkorrak | Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, sendoak eta iraunkorrak izatea lortzea

1.2.11. taula. "Hiri eta komunitate iraunkorrak" 11. GIHrako ikaskuntza-helburuak	
Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak badaki zein diren gizakiaren oinarrizko behar fisiko, sozial eta psikologikoak, eta gai da bere kokagune fisikoetan (hirian, hiri-ingurunean eta landan) behar horiek nola lantzen diren ikusteko. 2. Ikaslea gai da bere kokagune den sistemaren iraunkortasuna eta beste batzuen ebaluatu eta konparatzeko, askotariko beharrak asetzeari begira: elikadura, energia, garraioa, ura, segurtasuna, hondakinen tratamendua, inklusioa eta irisgarritasuna, hezkuntza, berdeguneen integrazioa eta hondamendi-arriskuak murriztea. 3. Ikasleak ulertzen ditu kokagune-ereduen arrazoi historikoak, eta ulertzen du sistema iraunkor hobeak sortzeko konpromisoak hartu beharra dagoela, jasotako ondare kulturala errespetatuz. 4. Ikasleak ulertzen ditu plangintza eta eraikuntza iraunkorretarako oinarrizko printzipioak, eta bere ingurua iraunkor eta inklusiboago egiteko aukerak identifika ditzake. 5. Ikasleak ulertzen ditu toki-mailan erabakiak hartzen dituztenek betetzen duten rola eta gobernantza parte-hartzailea, eta ohartzen da bere inguruko plangintzan eta politketan iraunkortasunari leku egiteak duen garrantziaz.
Ikaskuntza-helburu sozioemotionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da tokiko plangintza-sistemak jendearen esku jartzeko puntuak eskatzeko, identifikatzeko eta erabiltzeko, azpiegitura, eraikin eta parke iraunkorretan inberti dezaten eskatzeko, eta epe luzearako plangintzaren merituez eztabaidatzeko. 2. Ikaslea gai da tokiko komunitateekin eta onlinekoekin harremanetan jartzeko eta laguntzeko, elkarrekin lan egin eta beren komuniteterako etorkizuneko ikuspegi iraunkorra lantzeari begira. 3. Ikaslea gai da bere nortasunaren garapenean bere eskualdeak bete duen lekuaz gogoeta egiteko, eta ulertzen du bere nortasuna eta kultura osatzerakoan ingurune natural, sozial eta teknikoek bete duten zeregina. 4. Ikaslea gai da bere beharrak inguruko ekosistemen beharren testuinguru zabalagoetan kokatzeko toki-mailan eta mundu-mailan, giza kokagune iraunkorragoak lortzeko. 5. Ikaslea gai da bere bizimoduak ingurumenean eta gizartean dituen inpaktuen aurrean arduraz jokatzeko.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak iraunkortasun-proiektu komunitarioak planifikatu, abiarazi eta ebalua ditzake. 2. Ikaslea gai da bere komunitateari dagozkion erabaki-prozesuetan parte hartzeko eta eragiteko. 3. Ikaslea gai da bere komuniteterako hartzen diren erabakien alde/kontra hitz egiteko. 4. Ikaslea gai da beste batzuekin batera komunitate inklusibo, seguru, sendo eta iraunkor bat sortzeko. 5. Ikaslea gai da karbono-maila txikiko ikuspegiak sustatzeko tokian-tokian.

1.2.11a taula. "Hiri eta komunitate iraunkorrak" 11. GIHrako iradokitako gaiak

Babes, segurtasun eta inklusibitate beharra (giza beharrak, gutariko bakoitzaren eta guztion desirak eta beharrak beren testuinguruan kokatzea, generoaren, adinaren, soldataren eta gaitasunen arabera)

Baliabide naturalen kudeaketa eta erabilera (berriztagarriak eta berriztaezinak)

Energia eta garraio iraunkorrak (etxebizitzetako hornidura elektrikoaren erabilera, energia berriztagarriak, energia-eskema komunitarioak)

Elikadura iraunkorra (nekazaritza, nekazaritza organikoa eta permakultura, sostengu komunitarioko nekazaritza, foodshed edo elikadura-arroa⁸, janarien prozesaketa, elikadura-aukerak eta ohiturak, hondakinak sortzea)

Hiri-ekologia eta basabizitza giza kokaguneetara nola egokitzen den

Eraikin sendo eta iraunkorrak eta espazioaren plangintza (eraikuntza-materialak, energia aurrezteak, plangintza-prozesuak)

Hondakinak sortzea eta kudeatzea (prebentzioa, murriztea, birziklatzea, berrerabiltzea)

Komunitateak eta haien dinamikak (erabakimena, gobernantza, plangintza, arazoen ebazpena, komunitate alternatiboak, komunitate osasungarriak, komunitate inklusiboak, ekoherrixkak, trantsizioan diren hiriak)

Uraren zikloa eta lurpeko urak biltzea hiri-diseinuaren bidez (sabai berdeak, euri-urak biltzea, ibai zaharren oheak bideratzea, hiri-drainadura iraunkorra)

Prestakuntza eta erresilientzia hondamendien, arazo klimatikoen eta etorkizunekoaren aurrean, eta prebentzio eta prestakuntzan oinarritutako kultura

1.2.11b taula. "Hiri eta komunitate iraunkorrak" 11. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Bisitak ekoherrixketara eta beste "laborategi bizidun" batzuetara, ur-araztegietara eta beste zerbitzu-zentro batzuetara, gaur egungo jardunbide egokiak erakusteko

Hiri eta komunitate iraunkorrei buruzko ekintza-proiektu bat (gazteei zuzendua) planifikatu eta garatzea

Aurreko belaunaldiak gonbidatzea, denboran zehar beren kokaguneak nola aldatu diren azaltzeko. Bioeskualdearekiko harremanaz galdetzea. Kokagunea eta haren aldaketak aztertzea erabiltzea artea, literatura eta historia

Lorategi komunitario bat egitea

Proiektuen mapaketa: mapa bat egitea, hauek seinaltatzeko: erabilera ireki eta publiko egokia duten inguruak, giza eskalako plangintza, komunitateen beharrak aintzat hartzen dituzten inguruak, berdeguneak, etab. Hobetu beharreko guneak ere adieraz daitezke (adibidez, hondamendi naturalak izateko arrisku handieneko guneak)

Film labur bat (2 minutukoa) egitea bideoz, hiri-komunitate iraunkor bat ezagutarazteko

Ikerketa-proiektu bat egitea: "Guztiok hirietan biziko bagina, iraunkortasuna handiagoa litzateke?"

8. Elikadura-arroa: biztanle multzo jakin batentzat elikagaiak ekoizten dituen gune geografikoa (<http://foodshedalliance.org/what-is-a-foodshed>).



1.2.12. 12. GIH | Produkzio eta kontsumo arduratsuak |

Kontsumo eta ekoizpen-modalitate iraunkorrak bermatzea

1.2.12. taula. "Produkzio eta kontsumo arduratsuak" 12. GIHrako ikaskuntza-helburuak

Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak ulertzen du norberaren bizimoduan hartzen diren erabakiek eragina dutela gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren garapenean. 2. Ikasleak ulertzen ditu produkzio eta kontsumoko ereduak eta balio-kateak, bai eta produkzioaren eta kontsumoaren arteko erlazioa ere (eskaria eta eskaintza, gai toxikoak, CO₂ isurpenak, hondakinen sorrera, osasuna, lan-baldintzak, pobrezia, etab.). 3. Ikasleak ezagutzen ditu askotariko eragileek produkzioan eta kontsumoan betetzen dituzten rola, eskubideak eta betebeharrak (komunikabideak eta publizitatea, enpresak, udalerriak, legedia, kontsumitzaileak, etab.). 4. Ikasleak ezagutzen ditu produkzio eta kontsumo iraunkorreko estrategiak eta praktikak. 5. Ikasleak ulertzen ditu kontsumo eta produkzio iraunkorra lortzeko beharrezkoak diren dilema eta konpentsazioak eta egin beharreko aldaketa sistemikoak.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da produkzioan eta kontsumoan jardunbide iraunkorrak garatu beharraz hitz egiteko. 2. Ikaslea gai da besteak kontsumoan eta produkzioan iraunkortasunez jokatzera bultzatzeko. 3. Ikaslea gai da beharren eta desiren artean bereizteko eta bere kontsumo-joerez gogoeta egiteko, kontuan hartuta mundu naturalaren beharrak, besteenak, beste kultura eta herrialde batzuenak, eta etorkizuneko belaunaldienak. 4. Ikaslea gai da bizimodu iraunkorrak zein diren ulertzeko. 5. Ikaslea gai da ekoizle eta kontsumitzaile den aldetik dituen jokabideak ingurumenean eta gizartean dituen inpaktuen arduradun sentitzeko.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da kontsumoarekin lotutako jarduerak planifikatu, abiarazi eta ebaluatzeko, gaur egungo iraunkortasun-irizpideak erabiliz. 2. Ikaslea gai da sektore publikoan erosketez hartzen diren erabakiak ebaluatzeko eta erabaki horietan parte hartu eta eragiteko. 3. Ikaslea gai da produkzio-eredu iraunkorrak sustatzeko. 4. Ikaslea gai da bere rola kritikoki onartzeko, merkatuan interesa duen eragile den aldetik. 5. Ikaslea gai da kontsumoari eta produkzioari buruzko orientabide kulturelei eta sozialei aurre egiteko.

1.2.12a taula. "Produkzio eta kontsumo iraunkorrak" 12. GIHrako iradokitako gaiak

Publizitatea, parekideen presioa, kide izatea eta nortasunaren sorrera

Produkzioaren eta kontsumoaren historia, ereduak eta balio-kateak, baliabide naturalen (berriztagarriak eta berriztaezinak) kudeaketa eta erabilera

Kontsumoak eta produkzioak gizartean eta ingurumenean dituzten ondorioak

Energiaren produkzioa eta kontsumoa (garraioa, merkataritza eta bizitegi-tako erabilera, energia berriztagarriak)

Elikagaien produkzioa eta kudeaketa (nekazaritza, janariaren prozesaketa, elikagaien aukeraketa eta ohiturak, hondakinak sortzea, baso-soiltzea, elikagaien gehiegizko kontsumoa eta gosea)

Turismoa

Hondakinak sortzea eta kudeatzea (prebentzioa, murriztea, birziklatzea eta berrerabiltzea)

Bizimodu iraunkorrak, eta produkzio eta kontsumo iraunkorrerako askotariko praktikak

Produkzio eta kontsumo iraunkorrerako etiketatze-sistemak eta egiaztagiriak

Ekonomia berdea (sehaskatik sehaskara, ekonomia zirkularra, hazkunde berdea, desazkundera)

1.2.12b taula. "Produkzio eta kontsumo arduratsuak" 12. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Norberaren aztarna ekologikoa⁹ kalkulatu eta gogoeta egitea

Zenbait produktu aztertzea (eskuko telefonoak, ordenagailuak, jantziak...), bizi-zikloaren analisisa (BZA) erabiliz

Produktu iraunkorrak egin eta salduko dituen ikasleen enpresa bat zuzentzea

Merkataritza-sistemako funtzioak aztertzeke, rol-jokoak egitea (ekoizlea, publizista, kontsumitzailea, hondakinen kudeatzailea, etab.)

Film laburrak edo dokumentalak filmatzea, produkzio eta kontsumo-ereduak ulertzen laguntzeko ikasleei (adibidez, *Story of Stuff*, Annie Leonard¹⁰)

Produkzio eta kontsumoarekin lotutako ekintza-proiektu bat (gazteei zuzendua) sortzea eta zuzentzea (adibidez, moda, teknologia, etab.)

Ikerketa-proiektu bat egitea, galdera honen inguruan: "Iraunkortasuna zenbait gauzari uko egitea da?"

9. Aztarna ekologikoa gizakiak ekosistemetan duen inpaktua neurtzeko modu bat da. Naturaren hornidura eta eskaria neurtzen ditu, naturagune basatien bidez, edo urtean kontsumitutako kapital natural kantitatearen bidez. Ikusi: <http://www.footprintnetwork.org/en/index.php/GFN/page/calculators/>.

10. <http://storyofstuff.org/movies/story-of-stuff/>



1.2.13. 13. GIH| Klimaren aldeko ekintza| Premiazko neurriak hartzea

klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko

1.2.13. taula. "Klimaren aldeko ekintza" 13. GIHrako ikaskuntza-helburuak

Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak ulertzen du berotegi-efektua fenomeno natural bat dela, berotegi-gasen geruza isolatzaile batek eragindakoa. 2. Ikasleak gaur egungo klima-aldaketa berotegi-efektuko gas-emisioak areagotzeak eragindako fenomeno antropogeno gisa ulertzen du. 3. Ikasleak badaki zer giza jarduerak eragiten dion gehien klima-aldaketari (norbanakoaren tokiko jardueren, naziokoen eta munduko ikuspegitik). 4. Ikasleak ezagutzen ditu klima-aldaketak tokian, nazioan eta munduan izan dituen ondorio ekologiko, sozial, kultural eta ekonomiko nagusiak, eta ulertzen du horiek klima-aldaketarako faktore katalizatzaile edo indargarri bihur daitezkeela. 5. Ikasleak ezagutzen ditu prebentzio, arintze- eta egokitze-estrategiak, zenbait mailatan (norbanakoari dagokion mailatik maila globalera) eta hainbat testuingurutan, eta badaki zer lotura dituzten hondamendien kasuan emandako erantzunekin eta arriskua murriztearekin.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da ekosistemaren dinamikak eta klima-aldaketaren ingurumen-inpaktuak eta inpaktu sozial, ekonomiko eta etikoak azaltzeko. 2. Ikaslea gai da besteak klima babestera bultzatzeko. 3. Ikaslea gai da besteekin elkarlanean klima-aldaketari heltzeko estrategia komunak diseinatzeko. 4. Ikaslea gai da munduko kliman berak duen inpaktua ulertzeko, tokiko ikuspegitik ikuspegi globalera joz. 5. Ikaslea jabetzen da munduko klima babestea guztion funtsezko zeregina dela, eta, horren argitan, gure mundu-ikuspegia eta gure jokabideak berriro ebaluatu beharra dugula.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da bere jarduera pribatu eta profesionalak klima errespetatze duten ebaluatzeko, eta, errespetatzen ez badute, berrikusteko. 2. Ikaslea gai da klima-aldaketaren mehatxupearan dauden pertsonen alde egiteko. 3. Ikaslea gai da bere erabaki eta jarduerak, ingurukoek edo naziokoek munduko beste pertsona eta eskualde batzuetan dituzten inpaktuak aurrean, balioetsi eta ebaluatzeko. 4. Ikaslea gai da klima babesten duten politika publikoak sustatzeko. 5. Ikaslea gai da klima errespetatzen duten jarduerak babesteko.

1.2.13a taula. "Klimaren aldeko ekintza" 13. GIHrako iradokitako gaiak

Berotegi-gasak eta horien emisioa

Energiarekin, nekazaritzarekin eta industriarekin lotutako berotegi-efektuko gasen emisioa

Klima-aldaketarekin lotutako arriskuak, hondamendiak ekar ditzaketenak, hala nola lehortea, muturreko klimak etab.; etxe, komunitate eta herrialdeetan nahiz herrialdeen artean horiek dituzten ondorio sozial eta ekonomikoak

Itsas mailaren igoera eta horrek herrialdeetan dituen ondorioak (uharte-estatu txikiak)

Klima-aldaketarekin lotutako migrazioa eta exodoa

Prebentzio-, arintze- eta egokitze-estrategiak, eta hondamendietan emandako erantzunarekin eta hondamendi-arriskua murriztearekin duten lotura

Klima-aldaketarekin lotutako gaiak lantzen dituzten tokiko, herrialdeko eta munduko erakundeak

Klima babesteko tokiko, herrialdeko eta munduko estrategia politikoak

Etorkizuneko agertokiak (barnean hartuta munduko tenperaturaren igoerari buruzko azalpen alternatiboak)

Ekosistema handietako eraginak eta inpaktuak (basoetan, ozeanoetan, glaziarretan eta biodibertsitatean)

Etika eta klima-aldaketa

1.2.13b taula. "Klimaren aldeko ekintza" 13. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Rol-joko bat egitea, klima aldaketarekin lotutako zenbait fenomenoren inpaktua balioesteko eta sentitzeko, zenbait ikuspegitatik

Klima-aldaketaren esparruko zenbait testuinguru aztertzea, horiei buruzko hipotesiekin, ondorioekin eta aurretiko garapenarekin lotuta

Klima babestearekin lotuta, ekintza-kanpaina bat edo proiektu bat diseinatu eta zuzentzea

Webgune edo blog bat sortzea klima-aldaketaz ekarpenak egiteko taldean

Klima kontuan hartzen duten biografiak garatzea

Kasu-azterketa bat egitea klima-aldaketak tokiko komunitate batean hondamendi-arriskua areagotzeaz

Ikerketa-proiektu bat egitea esaldi honen inguruan: "Atmosferari kalte handiena eragin diotenek ordaindu egin behar lukete"



1.2.14. 14. GIH | Itsaspeko bizia | Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak zaintzea eta modu iraunkorren erabiltzea, garapen iraunkorrerako

1.2.14. taula. "Itsaspeko bizia" 14. GIHrako ikaskuntza-helburuak

Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kasleak ezagutzen ditu oinarrizko itsas ekologia, ekosistemak, harrapari-harrapakin harremanak, etab. 2. Kaslea jabetzen da jende askok itsasoarekin duen loturaz eta horrek sustatzen duen bizimoduaz, barnean hartuta itsasoa elikagai, lan eta aukera-emaila dela. 3. Kasleak ulertzen du klima-aldaketaren oinarrizko premisa, bai eta gure klimaren moderazioan ozeanoek betetzen duten zeregina ere. 4. Kasleak ulertzen ditu ozeanoei egiten zaizkien mehatxuak, hala nola kutsadura eta gehiegizko arrantza, eta ozeanoetako ekosistema askoren hauskortasuna ezagutzeko eta azaltzeko gai da, aintzat hartuta koralezko arrezifeak eta gunee hipoxiko hilak. 5. Kasleak ezagutzen ditu itsasoko baliabide bizidunen erabilera iraunkorrerako aukerak.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea gai da arrantza iraunkorreko jarduerak defendatzeko. 2. Kaslea gai da jendeari azaltzeko zer-nolako inpaktua duen gizakiak ozeanoetan (biomasaren galera, azidotzea, kutsadura, etab.) eta ozeano garbiek zer balio duten. 3. Kaslea gai da ozeanoetako produktuen produkzioan eta kontsumoan parte hartzen duten taldeetan eragiteko. 4. Kaslea gai da bere elikadura-beharrez gogoeta egiteko eta bere elikadura-ohituretan itsasoko elikadura-baliabideak iraunkortasunez erabiltzen diren aztertzeke. 5. Kaslea gai da arrantza-jardueretan izan diren aldaketek bizimodua aldatu dieten pertsonekin enpatizatzeke.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea gai da ikertzeko bere herrialdeak zer-nolako dependentzia duen itsasoarekiko. 2. Kaslea gai da arrantzako kuota zorrotzez, galzoriko espezieen arrantzarako kuota estuez, luzamenduez eta horrelako metodo iraunkorrez eztabaidatzeko. 3. Kaslea gai da modu iraunkorren ustiatutako itsas baliabideak identifikatzeko, erabiltzeko eta erosteko (esate baterako, etiketa ekologikoa duten produktuak). 4. Kaslea gai da ordezkariekin harremanetan jartzeko, gehiegizko arrantzak tokiko iraupeneko baliabideetarako adierazten duen mehatxuz hitz egiteko. 5. Kaslea gai da arrantzarik gabeko guneen eta itsas erreserben hedapena defendatzeko eta, irizpide zientifikoetan oinarrituta, horiek babestearen alde egiteko.

1.2.14a taula. "Itsaspeko bizia" 14. GIHrako iradokitako gaiak

Hidrosfera: uraren zikloa; hodeien osaketa; ura, klimaren erregulatzaile nagusi

Itsas baliabideen kudeaketa eta erabilera (berriztagarriak eta berriztaezinak): munduaren ondarea eta gehiegizko arrantza, kuotak eta horien negoziazioa, akuikultura, itsasoko algak, baliabide mineralak

Itsas energia iraunkorra (energia berriztagarriak, haize-turbinak eta horien inguruko eztabaida)

Itsas ekologia – elikadura-sarea, harrapariak eta harrapakinak, lehia, kolapsoa

Koralezko arrezifeak, kostak, mangladiak eta horien garrantzi ekologikoa

Itsas maila igotzea eta lurra osorik edo lur zati bat galduko duten herrialdeak; klimagatiko iheslariak eta subiranotasuna galtzeak zer ekarriko duen

Ozeanoak eta nazioarteko zuzenbidea: nazioarteko urak, lurraldeen arteko liskarrak, komenentziako pabiloiak eta horrekin lotutako gaiak

Ozeanoen kutsadura: plastikoak, mikroperlak, hondakin-urak, nutrienteak eta gai kimikoak

Ozeano sakona eta gune sakonetako izakiak

Itsasoarekiko harremanak kulturalak – itsasoa, ekosistema kulturalako zerbitzuen iturri gisa (aisialdia eta nortasun kulturalaren inspirazioa eta eraikuntza)

1.2.14b taula. "Itsaspeko bizia" 14. GIHrako ikuspuntu eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Itsaspeko biziarekin lotutako ekintza-proiektu bat (gazteei zuzendua) lantzea eta garatzea

Kostaldeko guneetara zuzendutako bisitak

Arrantza-baliabideen erabilera eta kudeaketa iraunkorraz eztabaidatzea eskolan

Itsas maila igo delako beste herrialde batera joan behar izan duen uhartetar baten rola jokatzea

Hainbat herrialdetan itsasoarekin dituzten kultura eta iraupeneko harremanez kasu-azterketa bat egitea

Ozeanoaren azidotzeaz ebidentziak erakusteko, esperimentuak egitea laborategian

Ikerketa-proiektu bat lantzea, gai honetaz: "Guk behar dugu ozeanoa, edo ozeanoak behar gaitu gu?"



1.2.15. 15. GIH | Bizia lurreko ekosistemetan | Lurreko ekosistemen erabilera

iraunkorra babestea, berrezartzea eta sustatzea, basoak iraunkortasunez kudeatzea,

desertifikazioari aurka egitea eta lurren degradazioa eta biodibertsitate-galera geldiaraztea

1.2.15.taula. "Bizia lurreko ekosistemetan" 15. GIHrako ikaskuntza-helburuak

Ikaskuntza-helburu kognitiboak

1. Ikasleak ulertzen du oinarritzko ekologia, tokiko eta munduko ekosistemei dagokienez, tokiko espezieak identifika ditzake, eta badaki biodibertsitatea nola neurtzen den.
2. Ikaslea jabetzen da biodibertsitateak dituen askotariko mehatxuez, barnean hartuta habitaten galera, baso-soiltzea, zatiketa, gehiegizko ustiapena eta espezie inbaditzaileak, eta mehatxu horiek tokiko biodibertsitatearekin lot ditzake.
3. Ikaslea gai da tokiko ekosistemetak zerbitzuak sailkatzeko (barnean hartuta babes-zerbitzuak, hornikuntzakoak, araudien esparrukoak eta kulturakoak), bai eta hondamendi arriskuak murrizteko ekosistema-zerbitzuak sailkatzeko ere.
4. Ikasleak badaki lurra poliki berritzen dela, eta lurra berriro aurretik suntsitzen duten askotariko mehatxuak ezagutzen ditu, hala nola nekazaritzako eta basogintzako jardunbide desegokiak.
5. Ikasleak ulertzen du kontserbazio-estrategia errealistek natura-erreserba hutsetatik kanpo funtzionatzen dutela, legedia hobetzeko, degradatutako habitat eta lurrak berritzeko, basabizitzako korridoreak, nekazaritza iraunkorra eta basogintza konektatzeko, eta gizakiaren eta basabizitzaren arteko erlazioa birpentsatzeko.

Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak

1. Ikaslea gai da biodibertsitate-galera dakarten ingurumen-jarduera kaltegarrien kontra argudiatzeko.
2. Ikaslea gai da biodibertsitatearen kontserbazioaren alde egiteko, hainbat oinarri erabilia, hala nola ekosistema-zerbitzuak eta bere baitan duten balioa.
3. Ikaslea gai da inguruko naturaguneekin konektatzeko eta gizakiak ez diren Lurreko bizidunekiko enpatia sentitzeko.
4. Ikaslea gai da gizakia/natura dualismoa kritikatzeko eta naturaren zati garela eta ez gaudela harengandik bereizita jabetzeko.
5. Ikasleak naturarekin harmonian dagoen bizitzaren ikuspegia landu dezake.

Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak

1. Ikaslea gai da bere ingurunean biodibertsitatearen kontserbazioan lan egiten duten tokiko taldeekin harremanetan jartzeko.
2. Ikaslea gai da basabizitzarekiko gertuago dauden hiri- eta natura-inguruneak sortzen lagunduko duten erabakiak hartzeko prozesuetan bere ahotsa eraginkortasunez erabiltzeko, basabizitzako korridoreak ezarri, ingurumen- eta nekazaritza-programak landuz, inguruak berritzeko ekologia bultzatuz...
3. Ikaslea gai da biodibertsitatea hobetzeko eta natura zaintzeko politikak egin eta abiarazteaz arduratzen diren pertsonekin lan egiteko.
4. Ikaslea gai da lurraren garrantzia azpimarratzeko, elikagaiak sortzeko laboreen euskarri dela kontuan hartuta, eta lurren higadura geldiarazteak edo konponbidea bilatzeak duten garrantzia azpimarratzeko.
5. Ikaslea gai da espezieen esplotazioaz nazioarteko kontzientzia sustatzeko, bai eta Basafauna eta Basafloraren Galzoriko Espezieen Nazioarteko Merkataritzari buruzko Hitzarmena (CITES) abiarazi eta garatzearen alde lan egiteko ere.

1.2.15a taula. "Bizia lurreko ekosistemetan" 15. GIHrako iradokitako gaiak

Ekologia: lehia, harrapari-harrapakin, dinamika komunitarioak, elikadura-kateen bidezko energia-fluxuak, sakabanaketa eta mailak. Ekosistema espezifikoak: tokiko eta munduko jatorrizko ekosistemak eta gizakiak sortutako ekosistemak, hala nola kontrolatutako baso-sartzeak

Biodibertsitatearen aurkako mehatxuak: habitat-galera, baso-soiltzea, zatiketa, espezie inbaditzaileak eta gehiegizko ustiaketa (iraunkorrak ez diren produkzio- eta kontsumo-jardueren edo teknologien ondoriozkoak...)

Suntsipenaren arriskuak: galzoriko espezieak, nola espezieak betiko galtzen diren, espezieak sortzeko behar den denbora luzea, eta sei suntsipen masiboak

Basabizitza leheneratzea, eta osatzeko bidetzat hartzea gizakia

Klima-aldaketa eta biodibertsitatea; ekosistemak, karbono-hustubide gisa; hondamendi-arriskua murriztea eta ekosistemak (ekosistemak, hondamendi naturalen aurkako hesi natural)

Lurra: informazioa eta egitura

Desertifikazioa, baso-soiltzea eta horien kontrako ahaleginak

Gizakiaren eta naturaren arteko lotura, izaki naturala

Ekosistema-zerbitzuak (kulturalak, hornikuntzakoak, araudien esparrukoak eta babes-eremuak)

Bilakaera eta genetika, baliabide genetikoak, etika

1.2.15b taula. "Bizia lurreko ekosistemetan" 15. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Tokiko ingurunearen mapa egitea, basabizitzako populazioen guneak eta hesiak adieraztea. Adibidez, sakabanaketa-hesiak, bideak, esaterako, eta espezie inbaditzaileen populazioak

Bioblitz bat egitea (urtean behin, komunitateak, elkartu, eta bere eremuko espezie guztien mapa egiten du)

Konpostatze-lantegi bat egitea eta material organikoaren formazioa erakustea

Bisita bat egitea gertuko parke natural batera, asmo kulturekin: aisialdirako, meditaziorako, artea egiteko...

Lorategi basati bat egitea hiri-inguruneetan animalia basatientzat; adibidez, erleentzako loreak, intsektuentzako ostatuak, putzuak

Lurraren Eguna (apirilak 22) edota Ingurumen Eguna (ekainak 5) ospatzea

Ikerketa-proiektu bat egitea, gai honen inguruan: "Zergatik da garrantzitsua biodibertsitatea?"



1.2.16. 16. GIH | Bakea, justizia eta erakunde sendoak | Garapen iraunkorrerako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justizia eskuratzeko aukera erraztea, eta erakunde eraginkorrak, arduratsuak eta inklusiboak eratzea maila guztietan

1.2.16. taula. "Bakea, justizia eta erakunde sendoak" 16. GIHrako ikaskuntza-helburuak	
Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea ulertzen ditu justizia, inklusio eta bake kontzeptuak eta legeekin duten erlazioa. 2. Kaslea ulertzen ditu tokiko eta nazioko lege eta gobernu-sistemak, eta jabetzen da nola ordezkatzan duten eta ustelkeriaren bidez nola abusa daitekeen horiez. 3. Kaslea gai da bere justizia-sistema beste herrialde batzuetakoekin alderatzeko. 4. Kaslea badaki gizabanakoak eta taldeak garrantzitsuak direla justizia, inklusioa eta bakea babesteko nahiz herrialdeko eta nazioarteko erakunde sendoei laguntzeko. 5. Kaslea ulertzen du giza eskubideen nazioarteko esparruaren garrantzia.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea gai da bakea, justizia, inklusioa eta herrialdeko erakunde sendoak sustatzen lagun diezaioketen pertsonekin harremanetan jartzeko. 2. Kaslea gai da bakearekin, justiziarekin, inklusioarekin eta erakunde sendoekin lotutako tokiko eta mundu-mailako gaiez eztabaidatzeko. 3. Kaslea gai da beren herrialdean nahiz kanpoan bidegabekeriak jasaten dituztenekiko empatia erakusteko. 4. Kaslea gai da bakearekin, justiziarekin, inklusioarekin eta erakunde sendoekin lotutako tokiko eta mundu-mailako gaiez gogoeta egiteko. 5. Kaslea gai da bera kide duten taldeez gogoeta egiteko (kontuan hartuta generoa, gizartea, ekonomia, politika, talde etnikoak, nazionalak, gaitasunak, sexu-orientazioa, etab.), bai eta justizian duen sarbideaz eta gizatasunaren zentzuaz hausnartzeko ere.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kaslea gai da bakea, justizia, inklusioa eta erakunde sendoak kritikoki ebaluatzeko, eskualdearen, nazioaren eta munduaren ikuspegitik. 2. Kaslea gai da bakea, justizia, inklusioa eta erakunde sendoak sustatuko dituzten politiken garapena eskatzeko eta publikoki babesteko. 3. Kaslea gai da gaur egun bidegabekeriak edo gatazkak jasaten ari diren taldeekin lankidetzan jarduteko. 4. Kaslea gai da aldaketarako eragile bihurtzeko, tokian-tokian erabakiak hartzen direnean, eta bidegabekeriaren aurka ozen mintzatzeko. 5. Kaslea gai da tokian-tokian eta nazioan gatazken ebazpenean laguntzeko.

1.2.16a taula. "Bakea, justizia eta erakunde sendoak" 16. GIHrako iradokitako gaiak

Justiziaren definizioa: sarietan oinarritutako justizia eta justizia errestitutiboa

Krimena eta zigorra: munduan zehar dauden legeak eta zigorrak konparatzea

Justizia klimatikoa

Merkataritza-justizia

Haurren lana eta haurren esplotazioa

Gerrarekin, bakearekin eta iheslariekin lotutako munduko itun eta akordioak

Ustelkeria; nola neurtu

Armen legez kanpoko salerosketa

Drogen abusua eta salerosketa

Nazioarteko Zigor Auzitegia; betetzen duen funtzioa

1.2.16b taula. "Bakea, justizia eta erakunde sendoak" 16. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Munduan bidegabekeriaren biktima diren pertsonen rola jokatzeko

Eskoletan eta unibertsitateetan, justizia eta berdintasunari buruzko elkarrizketa bat egitea, sinesmen desberdinen ikuspegitik

Bisita bat antolatzea justizia-azitegi batera edo polizia-etxe batera

Horma-irudi bat diseinatzea eskolan: "Zer da bidezkoa, zuzena?"

Justiziarekin lotutako gaiak eztabaidatzea, testuinguru historiko eta kulturali lotuta; adibidez, Argentinan desagerrarazitako pertsonak, Hegoafrikako apartheid, etab. Urteetan justiziarekin lotutako gai horiek zer bilakaera izan duten ikustea

Bakearen Nazioarteko Eguna (irailak 21) ospatzea

Ikerketa-proiektu bat egitea, gai honetaz: "Nolako litzateke mundu baketsu bat?"



1.2.17. 17 GIH| Itunak, helburuak lortzeko | Garapen Iraunkorrerako Munduko Ituna ezartzeko bitartekoak sendotzea eta itun hori suspertzea

1.2.17. taula. "Itunak, helburuak lortzeko" 17. GIHrako ikaskuntza-helburuak	
Ikaskuntza-helburu kognitiboak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak gai da mundu-mailako gaiak ulertzeko, hala nola garapenerako finantzaketa, zergak, zor-politikak eta merkataritzakoak, edota herrialdeen eta biztanleguneen arteko harremanak eta dependentsia. 2. Ikaslea jabetzen da alderdi interesdunen arteko mundu-mailako itunen garrantziaz eta garapen iraunkorrerako duten arduraz, eta ezagutzen ditu munduko itunak sustatzen dituzten sareak, erakundeak eta kanpainak. 3. Ikasleak ezagutzen ditu mundu-mailako gobernantza eta herritartasun global kontzeptuak. 4. Ikasleak badaki zeinen garrantzitsua den zientzian, teknologian eta berrikuntzan sarbidea izatea, bai eta ezaguera trukatzeko ere.
Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da garapen iraunkorrerako munduko itunak sustatzeak zer-nolako garrantzia duen ikusarazteko. 2. Ikaslea gai da garapen iraunkorrerako munduko itunak sustatzeko xedez beste batzuekin elkarlanean aritzeko, eta gobernuei GIHen ardura har dezaten eskatzeko. 3. Ikaslea gai da GIHekin identifikatzeko. 4. Ikaslea gai da munduaren ikuspegi iraunkor bat lantzeko. 5. Ikaslea gai da gizadiaren zati dela sentitzeko, giza eskubideak oinarritzat hartuta balio eta erantzukizunak parteka ditzagun guztiok.
Jokabideen eremuko ikaskuntza-helburuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslea gai da GIHak bete daitezen aldaketarako eragile bihurtzeko, eta munduko herritar aktibo eta kritiko gisa betetzen duen rolaz jabetzeko. 2. Ikaslea gai da garapen iraunkorrerako tokiko, herrialdeko eta munduko itunak abiarazteak duen garrantziaz kontzientzia hartzeko. 3. Ikaslea gai da munduan garapen iraunkorra sustatuko duten politikak gara ditzaten eskatzeko eta horretarako babes publikoa emateko. 4. Ikaslea gai da garapenerako lankidetzajarduerak bultzatzeko. 5. Ikaslea gai da konpainiei eragiteko, garapen iraunkorrerako mundu-mailako itunak egin ditzaten.

1.2.17a taula. "Itunak, helburuak lortzeko" 17. GIHrako iradokitako gaiak

Garapen iraunkorrerako gobernuen, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko mundu-mailako itunak, guztien ardura, eta eragileen artean sor daitezken gatazkak

Tokiko, nazioko eta munduko botere-sistemak, egiturak eta dinamikak

Mundu-mailako gobernantza eta politikak eta merkataritza-sistema, garapen iraunkorraren argitan

Presoaren dilema¹¹ eta ondasun komunen tragedia¹², mundu-mailako gobernantza eta garapen iraunkorra sustatzen duten merkatuak sortzeko erronka gisa

Munduko herritarrak eta herritartasuna, garapen iraunkorrerako aldaketa-eragile gisa

Lankidetzeta eta zientzia, teknologia eta berrikuntzarako edota ezagutza-trukerako sarbidea

Interneteko sarbidearen banaketa munduan

Garapenerako lankidetzeta, garapenerako laguntza, eta askotariko iturrietako baliabide finantzario gehigarriak garapen-bidean diren herrialdeetarako

Gaitasunaren garapena, GIHak abiarazteko herrialdeko planak sustatzeko xedez

Garapen iraunkorraren aurrerabidearen adierazleak

1.2.17b taula. "Itunak, helburuak lortzeko" 17. GIHrako ikuspegi eta ikaskuntza-metodoen adibideak

Urrutiko hezkuntzako itunak edo esperientziak lantzea eskolen, unibertsitateen eta beste erakunde batzuen arteko mundu-mailako sare baten bidez munduko hainbat eskualdetan (hegoaldea/iparraldea; hegoaldea/hegoaldea)

Klima-aldaketari, biodibertsitateari eta abarri buruzko mundu-mailako politiken lanketa eta ezarpena aztertzea

Munduan eta herrialdean GIHen ezarpenean egindako aurrerabidea aztertzea, eta aurrerabide horren edo aurrera ez egitearen arduraduna nor den zehaztea

GIHen inguruko sentsibilizazio-kanpaina bat planifikatzea eta abian jartzea

Munduko konferentzietako negoziazioekin lotuta simulakroak egitea (adibidez, NBEko eredu bat)

GIHei eta horien garrantziari buruzko ekintza-proiektu bat (gazteei zuzendua) sortzea eta garatzea

Ikerketa-proiektu bat egitea gai honen inguruan: "Elkarrekin... maiz erabiltzen den otoitz hau iker dezakegu, eta GIHei nola aplikatzen zaien ikusi"

11. <http://www.prisoners-dilemma.com>

12. <http://www.econlib.org/library/Enc/TragedyoftheCommons.html>

2.

GIHEZen bidez

GIHen ikaskuntza

ahalbidetzea

2. GIHEZen bidez GIHen ikaskuntza ahalbidetzea

GIHEZek aipatu ditugun ikaskuntza kognitiboen, sozioemozionalen eta jokabideen eremuko enaitzak lortzen laguntzen du, eta, gainera, iraunkortasunaren barnean GIHak lortzeko beharrezkoak diren funtsezko zehar-gaitasunak lantzen ditu. Hirugarren atal honetan, zenbait gomendio dituzu, bai eta estrategien adibide batzuk ere, GIHEZ ezarri ahal izateko.

Ikuspegi honen asmo nagusia hezkuntza-sistemetan GIHEZ txertatzea da, eta halaxe adierazten da 4.7 xederako mundu-mailako adierazlean: “Munduko herritartasunerako hezkuntza (i) eta garapen iraunkorrerako hezkuntza (ii) (genero-berdintasuna eta giza eskubideak barne) zer mailatan txertatzen diren arlo hauetan: (a) nazioko hezkuntza-politiketan, (b) ikasketa-planetan, (c) irakasleen prestakuntzan eta ikasleen ebaluazioan” (IAEG-GIHak, 2016: 7). Lehenengo, politikek zer rol betetzen duten deskribatzen da testuan, eta GIHEZ sustatuko duten politikak, estrategiak eta programak arrakastaz garatzeko funtsezko arloak adierazten dira. Bigarrenik, ikasketa-planetan GIHEZek egun duen garrantzia eta integrazio-egoera aztertzen dira. Hirugarrenik, irakasleen prestakuntza eta GIHEZ bideratzeko aukerak jorratzen dira. Laugarrenik, erakundeen esparruko ikuspegia eta ekintzara bideratutako pedagogia eraldatzaileak aurkezten dira, GIHEZ ikasgelan eta ikaskuntzako beste testuinguru batzuetan txertatzeko lagungarri diren heinean. Eta, azkenik, ikaskuntza-helburuak nola ebaluatu behar diren eta GIHEZen testuinguruan programek zer kalitate duten aztertzen da.

2.1. Hezkuntza-politiketan, estrategietan eta programetan GIHEZ txertatzea

Funtsezko faktoreak dira politikak ikaskuntza-testuinguru formaletan, ez-formaletan eta informaletan GIHEZ txertatzeko. Pisu handiko politika koherenteak landu behar dira hezkuntza-sistemak aldarazteko. Hezkuntza-sistemak egungo iraunkortasun-beharrei eta sortzen ari direnei erantzuteko prest daudela ziurtatu behar dute hezkuntza-ministerioek mundu osoan zehar, eta, horretarako, beharrezkoa da, besteak beste, ikasketa-planetan eta herrialdeko kalitate-estandarretan GIHEZ txertatzea, eta ikaskuntza-enaitzetarako esparru adierazgarri esanguratsuak sortzea.

GIHEZ ikuskatzeak eta ebaluatzeak erakusten du nahiko aurrera egin dugula GIHEZ hezkuntza-politiketan integratzean (ikus 2.1.1 taula). Hezkuntza-politikak garapen iraunkorrera bideratzeko prozesua egiten ari dira herrialde askotan (ikus

2.1.2 taulan bi adibide) nahiz eta aurrerabidea ez den berdina (UNESCO, 2014a).

Testuinguru horretan, GIHEZerako Munduko Ekintza Programaren Lehentasunezko Ekintza Eremuak (UNESCO) dei egiten du, xede honekin: “Politikak sustatzea: hezkuntzan eta garapen iraunkorreko politiketan txertatzea GIHEZ, GIHak lortzeko eta aldaketa sistemikoa ahalbidetzeko” (UNESCO, 2014b). Aldaketa sistemikoa hasteko, politika garrantzitsu eta koherenteak landu behar dira, ministerioek sektore pribatuekin, tokiko komunitateekin, akademikoekin eta gizarte zibilarekin diseinatutakoak. GIHEZ politikak lantzeko egungo ahaleginak indartu eta hobeto koordinatu behar dira, sektoreen arteko ikuspegietan eta askotariko alderdi interesdunetan oinarrituta. GIHEZ hori hezkuntzarekin eta garapen iraunkorrarekin lotutako nazio barneko, nazioko, eskualde barneko, eskualdeko eta nazioarteko esparru, plan, estrategia eta prozesuetan txertatu behar da” (UNESCO, 2014b: 17).

Ikasleak etengabe aldatzen ari den mundu batean bizi eta jarduteko ahalduetzeko bidean, GIHEZek indartu egiten du ikaskuntzaren eta irakaskuntzaren kalitatea. Hortaz, hezkuntza-politikak hezkuntzaren kalitateari egiten dion ekarpena hartu behar du kontuan, eta, horregatik, nazioko hezkuntza-sistemaren kalitaterako parametroek barnean hartu behar lukete GIHEZ. Garapen iraunkorraren gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-dimentsioak lantzen dituzten nazioko eta nazioarteko politikek (pobrezia murrizteko estrategiek, hondamendiak kudeatzeko planek nahiz karbono gutxiko garapen-estategiek) barnean hartu behar dute GIHEZ. Gainera, garapenerako lankidetzaren zati izan behar luke, alde biko eta alde anitzeko esparruen barnean (UNESCO, 2014b).

Zenbait gai funtsezkoak dira GIHEZ sustatzeko politikak ezartzeko (ikus 2.1.3 taula).

2.1.1. taula. GIHEZ politiketako aurrerapenak

Munduan, hegoaldeko nahiz iparraldeko gobernu askotako politikek dei egiten dute GIHEZ eta horrekin lotutako kontzeptu ugari ikaskuntza formalean eta ez-formalean txertatzeko, hauek, besteak beste: garapenerako hezkuntza, bakerakoa, munduko herritartasunerakoa, giza eskubideetarakoa, ingurumen-hezkuntza.

Politikei buruzko arrazoibidean, zati garrantzitsua da GIHEZ.

Gero eta presentzia handiagoa du tokiko, nazioko eta munduko politiketan, garapen iraunkorrarekin lotutako gaitetan (esate baterako, klima-aldaketa).

Garapen iraunkorrerako politikak eta hezkuntza gero eta koordinatuago daude.

Iturria: UNESCO (2014a)

2.1.2. taula. Politikan GIHEZ txertatzerakoan jardunbide egokiak erakutsi dituzten herrialdeen adibideak**Costa Rica – Garapen iraunkorreko politikan GIHEZ txertatzerakoan arrakasta izan duten herrialdeen kasu bat**

“2006an, GIHetarako Itun Nazionala onartu zuen Costa Ricak, eta garapen iraunkorrera iristeko egin beharreko kultura-aldaketarako ezinbestekotzat jo zuen hezkuntza; beharrezkoa jo zuen, gainera, ingurumen-hezkuntza sustatzea diziplinarteko gaietan. Politika berrien inpaktuari buruzko C-neutral 2021 azterlanak, karbonoaren esparruan Costa Rica lehen herrialde neutral bihurtzea xede duenak, argi dio ondorioetan politika hori ‘giltzarria’ izan dela Costa Ricako hezkuntza-sektorean: ‘hezkuntzako ingurumen-politiken ikuspegia GIHEZ eta klima-aldaketaren inguruko hezkuntzara bideratu du, berriagoak, biak ere’ (Tsuneki eta Shaw, laster: 1). Klima-aldaketari buruzko nazio-politikako tresna sakon berriagoak, Klima Aldaketari buruzko Estrategia Nazionalak, barnean hartu ditu, halaber, gaitasunen garapena eta sentsibilizazio publikoa, hezkuntza eta kultura-aldaketa, ingurumenaren inguruko alfabetismoa indartzeko xedez. Costa Ricako adibideak argi erakusten du GIHEZen barneko garapen iraunkorreko politikek hezkuntza-sistemetan aldaketak indartzen eta bultzatzen lagundu dezaketela.”

Kenya – Hezkuntza-politikan GIHEZ txertatzerakoan arrakasta izan duten herrialdeen kasu bat

“Kenyan GIHEZ ezartzeko 2008an onartutako estrategiak zera dio: ‘garapenerako kalitatezko hezkuntza eta gaitasuna’ izateko, gizaritean arduraz jokatu duten gizabanako produktiboen garapena sustatu behar du hezkuntzak. Besteak beste gobernantza onerako eta iraunkortasunerako egokiak izango ziren balio, jokabide eta bizimoduak barnean hartuko zituen irakaskuntza eta ikaskuntza bultzatu nahi zituen GIHEZ estrategiak. Berrikiago, 2012an, Kenyak GIHEZerako Politiken Esparrua formulatu du, Curriculum Garapenerako Institutuaren bidez, ikasketa-planerako eraldatzaileak izango diren babes-materialekin garapen iraunkorra hobetzeko helburuz. Gainera, Hezkuntza Sektorako Programa Nazionalan (bost urtean ezartzekoa, 2013tik 2018ra) txertatu da GIHEZ, eta 2030eko ikuspegiari islatu da, garapen iraunkorrera iristeko Kenyaren bide-orrian; garapen iraunkorrerako helburu nazionalak koordinatzearen garrantzia azpimarratzen da orri horretan.”

Iturria: UNESCO (2014a: 50, 52)

2.1.3. taula. GIHEZ sustatzeko politiken ezarpenerako funtsezko alderdiak

Hezkuntza-sektorearen eta garapen iraunkorraren sektorearen arteko erabateko koherentzia bermatu behar da. Tokiko eta nazioko garapen iraunkorreko helburuak eta estrategiak hezkuntza-politikarekin lerrotatzeak garapen iraunkorrera bidera ditzake hezkuntza-sistemak. Modu koherentean bildu behar da GIHEZ sektore eta azpisektore garrantzitsuetako politikan.

Ez dago ‘guztintzat balio duen’ GIHEZ bertsiorik. Kontuan hartuta errealitate politiko eta soziokulturalak eta ekologiaren eta ingurumenaren esparruetako erroka zehatzak, ezinbestekoa da GIHEZerako testuinguru ere zehaztea. Horregatik, GIHEZn eta harekin lotutako beste hezkuntza mota batzuen interpretazio zehatzak egin behar ditugu, tokian-tokian eta nazio bakoitzean.

Lidergo politikoak berebiziko garrantzia du GIHEZerako. Frogatuta geratu da erakundearen eta mekanismoen arteko koordinazioa babes handia dela GIHEZ hezkuntza-sistemetan txertatzeko. Horregatik, politikek egitura horiek sortu behar lituzkete hainbat mailatan. Eta gobernuak GIHEZerako xedeak zehaztu behar lituzkete.

GIHEZ ez da estatuko erakundearen bidez soilik sustatzen; neurri handi batean, ikaskuntza-testuinguru ez-formaletan eta informaletan aritzen diren GKEen bidez egiten da. Nazioarteko, nazioko eta tokiko politikek laguntza eman beharko liekete GKEei horrelako jardueretarako, finantzaketaren bidez, sareak josiz eta gizarte-ikaskuntzarako prozesuak bultzatuz.

Iturria: UNESCO (2014a)

2.2. Ikasketa-planetan eta ikasliburuetan GIHEZ txertatzea

Hezkuntza formaleko ikasketa-plan guztietan txertatu behar da GIHEZ, barnean hartuta haurren zainketa eta haur-hezkuntza, lehen eta bigarren hezkuntza, prestakuntza teknikoa eta lanbide-prestakuntza, eta goi-hezkuntza. Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren funtsarekin lotuta dago GIHEZ, ez baita egungo ikasketa-planen eranskina. Hezkuntza hori garatzeko, iraunkortasunarekin lotutako gaiak txertatu behar dira ikasketa-planetan, bai eta iraunkortasunarekin lotutako emaitza espezifikoak ere. “Ikasketa-planek bermatu behar dute haur eta gazte guztiek oinarrizko trebetasunak ez ezik trebetasun transferigarriak ikasten dituztela, hala nola pentsamendu kritikoa, problema nahiz gatazken ebazpena eta aktibismoa, munduko herritar arduratsu izateko bidean laguntzeko” (UNESCO, 2014c: 36). Iraunkortasunaren esparruko ikasketa-planekin, espero da “gure hezkuntza-

sistemek jendea garapen iraunkorrerako prestatzeko duten gaitasuna hobetuko dutela (Nazio Batuak, 2012: 230).

GIHEZen Hamarkadaren jarraipenak eta ebaluazioak hezkuntza mota hori txertatu duten ikasketa-planen adibide egokiak agerrarazi ditu (ikus 2.2.1 taula). Ikasketa-plan ofizialetako dokumentuen ebaluazioek erakutsi dutenez, “herrialde askok iraunkortasuna eta ingurumen-gaiak txertatzen dituzte hezkuntzaren helburu orokorretan” (UNESCO, 2014a: 30). Lehen eta bigarren hezkuntzan egin da aurrera gehien GIHEZerako ikasketa-planen garapenean. “Estatu kideen % 40 inguruk dio GIHEZekin lotuta erdietsi duten lorpenik handiena hezkuntza hori ikasketa-plan formaletan txertatzea izan dela, eta bostenak adierazi du arlo horretako ekarpen handiena eskola-proiektu espezifikoaren bidez egin dutela” (UNESCO, 2014a: 82).

2.2.1. taula. Ikasketa-planetan GIHEZ nola txertatu den erakusten duten adibideak

Maurizio – Ikasketa-plan nazionalaren esparrua

“Maurice Ile Durable politika 2008an aurkeztu zuten, 2020rako Maurizio Uharteari garapen-eredu bat itzultzeko xedez. Bost zutabeetako bat da hezkuntza, eta hainbat adar biltzen dituen talde baten sorrera du ardatz, GIHEZ hezkuntza-maila guztietan txertatzeko. Hezkuntza-sistema iraunkortasunera, gaitasunen garapenera (maila guztietan) eta funtsezko gaien kontzientziario indartzera bideratu nahi da. Politika horretan ageri denez, GIHEZ, orain, ‘Ikasketa Plan Nazionalaren Esparruko zati da, eta, Maurice Ile Durable gizarte-proiektuari esker, erakunde formal eta ez-formal asko GIHEZ lantzen ari dira. Politika horren bidez, ministerio asko, hala nola Ingurumen eta Garapen Iraunkorreko Ministerioa eta Hezkuntza eta Giza Eskubideen Garapeneko Ministerioa, elkarrekin sendoago lan egiten hasi dira, ikuspegi integratuagoa jorratzeko. Garapen Iraunkorrerako Klima Aldaketari buruzko Hezkuntzako (UNESCO) herrialde pilotua da orain Maurizio, eta eredu bihur daiteke GIHEZen esparruan, Maurice Ile Durable politika erabat ezartzen denean.”

Togo – Kalitatezko Hezkuntza etorkizun iraunkorrerako

“Togon, hezkuntza-politiken arloa (Lakalaka) kultura nazionalan oinarritzen da, eta GIHEZerako ikasketa-plan bat hartzen du barnean, Etorkizun Iraunkorrerako Kalitatezko Hezkuntza deritzona.”

Finlandia – Eskolaurrerako eta oinarrizko hezkuntzarako ikasketa-plan nazionalak berritzea

“Eskolaurrerako eta oinarrizko hezkuntzarako ikasketa-plan nazionalak berritzen ari da Finlandia, hezkuntza oinarri hartuta garapen iraunkorra eta ongizatea sustatu eta bultzatzeko; nabarmendu dute beharrezkoak direla bizimodu iraunkorra eta ikuspegi ekosoziala. Helburua da ikasle guztiei babesa ematea, etorkizun iraunkorraren garrantzia ulertarazteko gaitasuna sustatzen duten ezagutzak, trebetasunak, balioak eta jarrerak gara ditzaten.”

Manitoba, Kanada – Lidergo arrakastatsuen adibidea

“Manitoba, gobernuaren lehentasunezko ekintza-arlo bat da GIHEZ, eta lehen eta bigarren hezkuntzako asmo orokorretan txertatu da. Orain, gobernu-politikaren xede da ‘Manitobako haur eta gazte guztiek hezkuntza-aukeretan sarbidea dutela bermatzea, ikasleek kalitate handiko hezkuntza esanguratsu eta motibatzaile baten bidez arrakasta bizi dezaten eta etengabeko ikaskuntzan eta herritartasunean oinarrituta bizi daitezen, sozialki justua den gizarte demokratiko eta iraunkor batean’. Horixe da probintziako Hezkuntza eta Ikaskuntza Aurreratuko Ministerioaren misioa. Konpromiso politiko horri erantzunez, haurtzaindegietatik 12. mailara arteko ikasketa-planetan txertatu da GIHEZ, eta berariazko hezkuntza-helburuak identifikatu dira zientzietan, gizarte-ikasketetan, osasunean eta gorpuz-hezkuntzan. Irakasle eta eskolako liderren gaitasunak gararaziz eta iraunkortasun-praktika, printzipio, programa eta itunetarako finantzaketa emanez, eskolei beren ikasgeletan, eragiketetan eta kudeaketan iraunkortasuna txertatzen lagundu zaie.”

Iturria: UNESCO (2014a: 50, 51, 53)

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Alemaniako Curriculum Esparruak gai, kompetentzia eta adibide zehatzak biltzen ditu lehen hezkuntzarako, bai eta bigarren hezkuntzarako eta lanbide-trebakuntzarako ikaskuntza-material guztiak ere. Emaizta horixe izan du Hezkuntza eta Kultura Gaien Ministerioak eta Lankidetzak eta Garapen Ekonomikorako Ministerio Federalak Alemaniako 16 estatu federalekin eta gizarte zibilarekin batera garatutako ekimenak (KMK/BMZ, 2016).

Munduko Ekintza Programaren Lehentasunezko Ekintza Eremuak (“Politikak sustatzea”) dei egiten du, xede batekin: “ikasketa-planetan eta kalitate-estandar nazionalen GIHEZ txertatzea” (UNESCO, 2014b: 16). Ikasketa-plana aldatu beharra dago, eta, horretarako, ezinbestekoak dira ekintza batzuk.

Ikasketa-planetan eta irakaskuntzako praktketan, aldaketarako eragile garrantzitsua izan daiteke ikasleek iraunkortasunean oinarritutako hezkuntza eskatzea. Beraz, eskaera horrek jarraipen estuagoa izan behar luke (UNESCO, 2014a).

2.2.2. taula. Ikasketa-planetan aldaketak sustatzeko iradokitako ekintzak

Etengabeko ahaleginak egitea kalitatezko hezkuntzaren ulermenean sakontzeko, iraunkortasunerako horrek duen garrantzia, asmoak eta balioak bateratuz

Ikerketa, ebaluazio eta bizipenen truke gehiago, ikasketa-planen aldaketetarako ikuspegia aztertzeko

GIHEZen instituzionalizazioa, langileen arloko inbertsioa eta baliabide finantzarioak barne hartuta

Irakasleen prestakuntzako gaitasunetan, kompetentzietan, estandar profesionaletan eta irakasle eta erakundeen ziurtagiri eta sinestamenduetan GIHEZ txertatzea

Irakasleentzako babes handiagoa ikasgeletan (adibidez, GIHEZeko materialak sortu eta ebaluatzeko jarraibideak; ezagueren trukeerako laguntza-mekanismoak, tokiko irakasleak, GIHEZen bideratzaileak eta trebatzaileak ahalduzko)

Politikak lantzeko ardurak dituztenentzat, hezkuntzako liderrentzat eta irakasleentzat gaitasunak garatzeko laguntza

Malgutasuna ikasketa-planetan buruzko politikan, lehen eta bigarren hezkuntzako eskolei tokiko testuinguruari egokitutako edukiak eta proiektuak garatzeko modua emateko

Iturria: UNESCO (2014a)

Hezkuntza-maila eta mota guztietan, ikasketa-plana aldatzeko jarrera hartu behar litzateke, GIHEZekin lotutako eduki, helburu eta ikaskuntza-praktika gehiago sartzeko. Eskolaurreak, eskolek eta hezkuntzako eta trebakuntza tekniko eta profesionaleko hezkuntza-erakundeek nahiz goi-hezkuntzakoek ez litzukete banako ikastaroak soilik eskaini behar; aitzitik, ikasleek beren bizitza pertsonal eta profesionalean iraunkortasunarekin lotuta izango dituzten

erronkei erantzuteko beharrezko dituzten ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak garatzen dituztela ziurtatu behar lukete (UNESCO, 2014a). Horretarako, lehenik, GIHEZ ez litzateke hartu behar hezkuntzako gai erantsi edo bakarkako gai espezifiko gisa. Esate baterako, eskola-hezkuntzan, ikasgai nagusien irakaskuntzako eta ikaskuntzako parte izan behar luke (matematikan, zientzietan, gizarte-zientzietan eta hizkuntzetan, adibidez). Bigarrenik, garrantzitsua da ikaskuntza-helburuak, irakaskuntzako eta ikaskuntzako metodoak eta ebaluaziorako neurriak zorrotz koordinatzea, elkar indartu dezaten. Hirugarrenik, ikaskuntza-helburuak ezarri behar lirateke, hau da, maila batetik bestera konpetentziak osatzen joateko ikaskuntza (egitura).

2.3. Irakasleen prestakuntza GIHEZ txertatzea¹³

Aldaketarako eragile ahaltsuak dira hezitzaileak, eta GIHEtarako hezkuntza-erantzuna eman dezakete. Haien ezagutzak eta gaitasunak ezinbestekoak dira iraunkortasun-hezkuntzarako.

Erronka horri aurre egin behar dio irakasleen prestakuntzak, GIHEZera bideratzeko. Hezkuntza mota horren jarraipenak eta ebaluazioak agerian jarri dituzte irakasleen prestakuntzan GIHEZ txertatu duten kasu askoren adibideak (ikusi 2.3.1. taula), eta argi geratu da irasleei emandako babesa funtsezkoa izan dela GIHEZ egokitu eta arrakastaz ezartzeko (UNESCO, 2014a).

Dena den, GIHEZ abian jarriko duten irakasleen prestakuntzarako ahaleginek ez dute behar beste egin aurrera. Lan handiagoa egin behar da irakasleen prestakuntza hobeto bideratzeko, horien edukiak eta irakaskuntzako eta ikaskuntzako metodoak GIHEZera hurbil daitezen. Horregatik, Munduko Ekintza Programako Lehentasunezko Ekintza Eremua hezitzaileen gaitasunak garatzera zuzendu da. Arlo horretan proposatutako ekintza bat GIHEZ prestakuntza-programetan txertatzea da, bai hasierako prestakuntzan eta bai etengabekoan (UNESCO, 2014b).

Irakasleak GIHEZerako prest egon daitezen, iraunkortasunaren ikuspegitik gakoak diren konpetentziak garatu behar dituzte (ezagutzak, trebetasunak, jarrerak, balioak, motibazioak, konpromisoa). Dena den, iraunkortasunerako konpetentzia orokorrekin batera, GIHEZerako berariazkoak ere behar dira, hala nola pertsonen irakaskuntzako eta ikaskuntzako praktika berritzaileen bidez iraunkortasun-konpetentziak garatzen laguntzeko irakasleen gaitasuna (ikusi 2.3.2 taula).

13. Hemen oinarritua bereziki: *Irakasleen prestakuntza garapen iraunkorrerako, proiektu eta ekimen pilotuetatik egitura berrietara. Alemania, Austria eta Suitzako irakasleen prestakuntza orientatzeko memoraduma*. Garapen Iraunkorrerako Irakasleen Prestakuntzarako Aleman Hiztunen Sarea (2015).

2.3.1. taula. GIHEZ barnean hartzen duten irakasleen prestakuntza-programa egokien adibideak

Jamaika – Hasierako prestakuntzan ari diren irakasleek GIHEZeko ekintza-proiektu komunitarioen bidez ikasten dute

“Garapen Iraunkorrerako Literatura eta Hezkuntza nahitaezko ikastaroa da graduondoko programako ikasleentzat hizkuntzen irakaskuntzan, eta hautazkoa da Irakasleen Prestakuntzako graduondoko programako gure ikasleentzat, Mendebaldeko Indietako Unibertsitatean, Monan, Jamaikan. Ikasleei garapen iraunkorraren kontzeptua eta printzipioak lantzeko hasierako prestakuntza ematea du xede, eta GIHEZ-en rola arakatzeko aukera eskaintzea, mundu iraunkorra sortzeko bidean. Hiru osagai ditu ikastaroak:

1. Tokian eta munduan iraunkortasunaren esparruan dauden erronkak aztertzeko esparru globala eskaintzea ikasleei.
2. Literatura ikastea, enpatia garatzeko, ikasleei komunitate zentzua emateko, balioak argitzeko, iraunkortasuna zenbait ikuspegitik ulertzeko eta zerbait egiteko motibatuzko bide gisa.
3. Komunitateko ekintza-proiektuetan sartzeta. Zeregin berezi gisa, beren komunitateetako iraunkortasun-erronkei heltzeko eskatzen zaie ikasleei. Ikasleek lantzeko aukeratutako gaien artean, indarkeria, pobrezia eta ingurumenaren degradazioa daude, eta bake-proiektuen bidez, etxerik gabeko pertsonekin lan eginez, nekazaritzako eta erlezaintzako eskola-proiektuen bidez... landu dituzte. Ikasleei oso erabilgarria iruditu zaie ikastaroa, mundu errealeko arazoei heldu dietelako eta beren komunitateekin elkarlanean jardun dutelako. Beren komunitateetatik ikas dezaketela eta horietan bizi-kalitatea hobetzen lagundu dezaketela ulertu dute.”

Grezia – Irakasleen etengabeko prestakuntza

“Hezkuntza Ministerioak 46 zentro ezarri zituen herrialdean Ingurumen Hezkuntza eta Iraunkortasunerako, eskualdeetako hezkuntza-zuzendaritzaren bidez. Zentro horietan garatzen diren proiektuak irakasleak prestatzera zuzentzen dira, beren eskoletan GIHEZekin lotutako proiektuak abian jar ditzaten horrela. 2011ko ikasturtean, 184 mintegi egin zituzten lehen eta bigarren hezkuntzako 8.745 irakasleek.”

Iturria: UNESCO (2014a: 92, 97)

GIHEZerako konpetentzietako elementu horiek zehatzago deskribatzen dira GIHEZ-en eremuko irakasleen prestakuntzako esparru kontzeptualetan; esate baterako, CSCT eredu (Sleurs, 2008), UNECE eredu (UNECE, 2012), KOM-BiNE eredu (Rauch eta Steiner, 2013), edota Bertschy-ren hurbilketa (Bertschy *et al.*, 2013). Estandar horietara iristeko, aldatu egin behar dira irakasleen prestakuntza-programak.

Irakasleen prestakuntzan GIHEZerako konpetentziak garatzen laguntzeko, aldaketak egin behar dira hasierako prestakuntzan eta etengabekoan dabilzan irakasleen prestakuntzako edukiak eta egitura. GIHEZek oinarritzko orientabidea eskaini behar luke irakasleen prestakuntzako programetan. Ikasgaiek, didaktikak, hezkuntza-zientziak eta praktikara orientatutako ikasketek

GIHEZen barneko metodologia-printzipioak eta ezagutzak txertatu behar lituzkete (ikusi 2.3.3 taula).

Tokiko testuingurueta dauden erronka sozial errealak oinarri hartuta ikasi ahal izateko, kanpoko kolaboratzaileekin lankidetzan jardun beharra dago. Beraz, kanpoko kolaboratzaileei (komunitateak, hezkuntza-komunitate ez-formalak eta GIHEZ sareak) sarbidea emateko modua eman behar lukete moduluek, eta proiektuetara zuzendutako lankidetzak aukerak eskaini.

2.3.2. taula. Irakasleentzako ikaskuntza-helburuak GIHEZ sustatzeko

Garapen iraunkorraz jakitea, eta GIHak eta horiekin lotutako gai eta erronkak ezagutzea

GIHEZen arrazoibidea eta praktika ulertzea, tokiko, nazioko eta munduko testuingurueta

Garapen iraunkorraren barneko gai eta erronkei buruzko ikuspegi integratzailea lantzea, garapen iraunkorraren printzipio eta balioekin lotutako dimentsio sozial, ekologiko, ekonomiko eta kulturalak kontuan hartuta, belaunaldien arteko justizia eta justizia globala barne

Diziplina-ikuspegia, diziplinartekoa eta diziplinaz gaidikoa¹⁴ hartzea mundu-mailako aldaketek eta horiek tokian-tokian dituzten agerbideez

Gogoeta egitea garapen iraunkorraz, GIHak lortzeko erronkez, helburu horiek betetzeko norberaren espezializazio-esparruaren garrantziaz eta prozesuan bakoitzak betetzen duen rolaz

Garapen iraunkorari begira, irakaskuntza formalaren, ez-formalaren eta informalaren arteko erlazioaz gogoeta egitea, eta ezagutza hori norberaren lanbideari aplikatzea

Ulertzea kultura-aniztasuna, genero-berdintasuna, justizia soziala, ingurumenaren babesa eta garapen pertsonala GIHEZen zati direla, eta hezkuntza-prozesuan sartu behar ditugula

Ekintzara bideratutako pedagogia eraldatzailea praktikatzeko, ikasleak pentsamendu eta ekintza-prozesu parte-hartzaile, sistemiko, sortzaile eta berritzaileetan sar daitezela, bai tokiko komunitateen testuinguruan eta bai ikasleek ohiko bizimoduan

Eskola garapen iraunkorraren bidean jarriko duen ikaskuntzako antolakuntza-prozesu batean aldaketaren eragile gisa jokatzeko

Tokian-tokian, garapen iraunkorarekin lotutako ikaskuntza-aukerak identifikatzea, eta lankidetzak-harremanak ezartzea

Zeharkako iraunkortasun-kompetentzietan ikasleek izan duten garapena ebaluatzea eta neurtzea, bai eta iraunkortasunarekin lotuta egindako ikaskuntza espezifikoen emaitzak ere

Gainera, nazioartekotzea irakasleen prestakuntzaren osagai izan dadin eskatzen du GIHEZek, batez ere GIHEZi buruzko nazioarteko debaten eta kultura-aniztasunari buruzko elkarrizketen bidez, moduluen osagarri diren neurrian. Horrek esan nahi du ikasleek atzerrian ikasteko aukera izan behar luketela, arlo horretan esperientzia praktikoa izateko. Irakasleen prestakuntzan GIHEZ sakonago integratu ahal izateko, interesdunen partaidetzarekin diseinatu behar lirateke prestakuntza-programetako edukiak eta antolaera, ikasleekin, irakasleekin, tokiko GKEekin eta GIHEZeko adituekin, esaterako. Berrikuntza sustatzeko, ezinbestekoa da hezkuntza-instituzioak beharrezkoak diren egitura-baldintzak izatea eta antolamenduarekin lotutako ikaskuntza-prozesuetan parte hartzeko askatasuna izatea.

Asko dira oraindik beren lanean hasi aurretik GIHEZi buruz ezer ikasi ez duten irakasleak, eta, horregatik, gai horiekin lotutako praktikak egiteko aukera izan behar dute horiek. Alde batetik, garapen iraunkorreko prozesuetan parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutza eta kompetentziak garatzeko aukera izango dute horrela. Eta, bestetik, hezkuntza-prozesuak eta erakundeak berriro orientatzeko aurretiazko baldintza da garapen profesionala. Garrantzitsua da GIHEZerako garapen profesionala erakunde bakoitzeko irakasle bati baino gehiagori eskaintzea, eta lan-eskabideetan, promozioetan eta abarretan hezkuntza-sistema horiei dagokien aitorpena egitea. GIHEZen espezializatutako herrialdeko edo eskualdeko zentroek garapen pertsonalerako eta aholkularitzarako aukerak sar ditzakete, gobernu eta gobernu kanpoko erakundeen, unibertsitateen eta goi-mailako beste erakunde batzuen ahalmenaz baliatuta.

2.3.3. taula. GIHEZ ardatz duen irakasleen prestakuntzako ikasketa-plan baterako eredu posibleak

Garapen iraunkorarekin lotutako oinarritutako kontzeptuak, tokiko, nazioko eta nazioarteko ikuspegitik

GIHEZekin lotutako kontzeptuak tokiko, nazioko eta nazioarteko ikuspegitik

Iraunkortasun-erronken funtsezko adibide batzuk diziplinetako, diziplinarteko eta diziplinaz gaidikoa ikuspegietatik

Tokiko, nazioko eta munduko arazo espezifikoetara zuzendutako proiektuetan oinarritutako lana, hezkuntza-erakundeen eta beste kolaboratzaile batzuen (tokioak) laguntzarekin

GIHEZeko prozesuen ikerketan oinarritutako azterketak ikaskuntza-testuinguru desberdinetan (eskolak, unibertsitateak eta hezkuntza-erakunde ez-formalak)

Esperientzia praktikoa GIHEZen ikuspegiarekin, eta horren inguruko gogoeta kritikoa

¹⁴. Diziplinartekotasunak zenbait diziplinaren arteko lankidetzak esan nahi du, eta "hainbat diziplinaren arteko ikuspegi, teoria eta metodoak integratzea". Diziplinaz gaidikoa izateko "mundu akademikotik kanpo esperientzia praktikoa duten adituekin lankidetzan" aritzea egiten dio erreferentzia (Godemann, 2006: 52).


2.4. GIHEZen irakaskuntza ikasgelan eta beste ikaskuntza-ingurune batzuetan

2.4.1 Erakunde-mailako Ikuspegia

GIHEZ ez da soilik garapen iraunkorra zer den irakastea eta ikastaroetan eta prestakuntza-saioetan eduki berriak sartzea. Eskolek eta unibertsitateek garapen iraunkorra ikasteko eta bizitzeko toki direla jabetu behar dute, eta horrela erakutsi beren burua; horregatik, iraunkortasun-printzipioetara bideratu behar dituzte beren prozesu guztiak. GIHEZek funtziona dezan, hezkuntza-erakunde osoak aldatu behar du. Erakunde-mailako

ikuspegiak iraunkortasuna hezkuntza-erakundearen alderdi guztietan txertatzen dakar. Ikasketa-planak, taldearen funtzioak, antolamendu-kultura, ikasleen parte-hartzea, lidergoa eta kudeaketa, harreman komunitarioak eta ikerketa berriro planteatzea eskatzen du (UNESCO, 2014a). Horrela, erakundeak berak ikasleentzako eredu gisa funtzionatzen du. Ikaskuntza-ingurune iraunkorrek, hala nola eskola ekologikoek eta campus berdeek, ikasle eta irakasleei iraunkortasun-printzipioak beren eguneroko jardunean txertatzeko aukera ematen diete, bai eta gaitasunen eraikuntza, kompetentzien garapena eta hezkuntza-balioa sendo sustatzekoa ere.

1. irudia. Erakunde-mailako ikuspegia (UNESCO 2014a: 89)



GIHEZen jarraipenak eta ebaluazioak erakunde-mailako ikuspegiaren adibide egoki ugari erakutsi dizkigute (ikus 2.4.1 taula).

Hezkuntza-erakunde osoa eraldatzeak duen garrantzia kontuan hartuta, GAPen 2. Lehentasunezko Ekintza Eremuak (“Ikasteko eta gaitzeko inguruneak aldatzea: iraunkortasun-printzipioak hezteko eta trebatzeko testuinguruetan txertatzea”) xede argia du: “GIHEZen ikuspegiak erakunde-mailan sustatzea eskoletan eta beste ikaskuntza eta trebakuntza-ingurune batzuetan” (UNESCO, 2014b: 18). Beraz, ikuspegi instituzional horiek maila eta testuinguru guztietan sustatu behar lirateke. Eskolei eta beste hezkuntza-erakunde batzuei nahiz sektore publikoko eta pribatuko erakundeei iraunkortasun-planak edo estrategiak abiarazteko eskatzen zaie. Goi-mailako hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan ikuspegi instituzionalarekin garatutako esperientziak beste maila eta hezkuntza mota batzuetara hedatu behar dira, haur-hezkuntzara, trebakuntza tekniko eta profesionalera edota gazte eta helduentzako hezkuntza ez-formalera, esaterako. Erakunde-mailako ikuspegietarako gakoak dituzue 2.4.2. taulan, laburtuta.

2.4.1. taula Erakunde-mailako ikuspegiaren adibideak

Australia – Australiako eskola iraunkorren ekimena

“Eskolak Iraunkortasunerako Hezkuntzarako eskola-mailako ikuspegi sistemikoa hartzea bultzatzeko ahaleginaren adibide bat baino ez da Australiako eskola iraunkorren ekimena. Ekimen horren lehen bertsio pilotua 2005ekoa da, eta lagungarria izan zen oso GIHEZerako eskola-mailako ikuspegia argitzeko. Bestiak beste, emaitza hauek izan ditu: sakontasun eta irismen handiagoa abiatutako GIHEZ proiektuetan; GIHEZ hobeto integratzea ikasketa-planean; etekin orokorrako antolamenduaren, finantzen eta ingurumenaren esparruetan; eta iraunkortasunari buruzko ezaguera eta xedeekin lotura estuagoak. Beraz, ekimenean parte hartu zuten eskolei lagundu egin zien GIHEZeko programa eraginkor eta sakonagoa garatzen.”

Bhutan – Bhutan Berdea Programarako eskola berdeak

“2009tik, Bhutan Berdea Programaren barnean ari dira eskolak, eta Hezkuntza Ministerioaren erreforma nazionalerako ekimen honen parte dira: Hezkuntza - Barne Zoriontasun Gordina. Eskola berdearen kontzeptua Jardunaren Kudeaketarako Sistemaren zati da gainera, eta eskolen jarduna eta kalitatezko hezkuntza-erakundeak sustatzea du xede sistema horrek. Horretarako, eskolen autoebaluaziorako baliabideak erabiltzen ditu, Barne Zoriontasun Gordineko eta GIHEZeko balio eta prozesuak barnean bildu ahal izateko. Bhutango UNICEFek ituna egin du gobernuarekin, eskola berdeen ekimena kudeatzen laguntzeko, eta irakasleen prestakuntzako ekimen nazional bat ere garatu du, eskola berdeen printzipioak praktikan jartzeko. Orain arte, emaitza positiboak izan ditu: ‘Eskola askok funtsezko hobekuntza nabarmenak egin dituztela agertu du, ingurumen fisikoaren esparruan, ikasleek naturarekiko edota kulturarekiko erakutsitako ulermen eta interesean, etab.’ (Bhutango Hezkuntza Ministerioa, 2012).”

Iturria: UNESCO (2014a: 89, 90)

2.4.2. taula. Erakunde-mailako ikuspegietarako gakoak

Erakunde-mailako prozesu bat, interesa duten alderdi guztiei (zuzendariak, irakasleak, ikasleak, administrazioa) erakunde osoan GIHEZ ezartzeko ikuspegi bateratu bat lantzea ahalbidetuko diena.

Erakundearentzako babes teknikoa eta finantzarioa, berrorientatzen laguntzeko, barnean hartuta adibide arrakastatsu eta garrantzitsuen aurkezpena, zuzendarientzat eta administrazioarako trebakuntza, jarraibideen formulazioa edota ikerketa, adibidez.

Erakunde arteko sareak, elkarri laguntzeko (parekoen arteko ikaskuntza, adibidez, erakunde-mailako ikuspegitik) eta ikuspegi hori gehiago nabarmentzeko, egokitu daitekeen eredu gisa susta dadin.

Iturria: UNESCO (2014b)

Erakunde-mailako ikuspegiaren elementu guztiak garrantzitsuak dira. GIHEZ ikasgelan eta beste ikaskuntza-ingurune batzuetan eskaintzerakoan, berriz, ikaskuntza-modu interaktiboak, integratzaileak eta kritikoak kokatzen dira erdigunean, hots: ekintzara orientatutako pedagogia eraldatzaile bat.

2.4.2. Ekintzara bideratutako pedagogia eraldatzailea

Ikasleak ahalduz eta motibatuz du xede GIHEZek, ikasleak kritikoki pentsatzeko gai diren eta etorkizun iraunkorren osaketan parte hartuko duten herritar iraunkor eta aktibo bihurtzeko. Xede horretarako egokiak diren ikuspegi pedagogikoak ikasleengan oinarritzen dira, ekintzara bideratzen dira, eta eraldatzaileak dira (ikus 2.4.3. taula).

Ikuspegi pedagogikoen GIHEZeko ikaskuntza-prozesuen izaera orokorra edo horien diseinua gidatzen duten printzipioak adierazten dituzte; printzipio horiekin koordinatutako metodo espezifikoak behar dira, ikaskuntza-prozesua errazteko. GIHEZen, konpetentziak ikaskuntza aktiboaren bidez sustatzen dituzten metodoen alde egiten da. Horietako batzuk oso gomendagarriak dira GIHEZerako (horietako batzuk 2. kapituluko tauletan zehaztu dira, eta GIH espezifikoetara egokitu dira). (Ikusi 2.4.4. taula)

Ikasteko eta irakasteko metodo parte-hartzaile horiek ikasleei garapen iraunkorren alde egiten laguntzen diete. Testuinguru espezifiko baterako ikasteko eta irakasteko metodoak aukeratzen direnean, metodo horiek egokitzeko, kontuan hartu behar dituzte ikasleen taldearen beharrak (adibidez, adinaren, aurretik dakitenaren, interesen edota gaitasunen arabera); ikaskuntza zer testuingurutan garatzen den (curriculumeko espazio bat, giro pedagogikoa, kultura-tradizioak, etab.); eta zer baliabide eta lagungarri dituzten eskura (adibidez, irakaskuntzako gaitasunak eta materialak, teknologia, dirua).

2.4.3. taula. GIHEzerako ikuspegi pedagogikoak**Arreta ikaslearengan jartzen duen ikuspegia**

Ikasleengan funtsatzen den pedagogiak hezigai autonomo gisa hartzen ditu ikasleak, eta ezagutzaren garapen aktiboa nabarmentzen du, ezagutzaren transferentzia hutsaren edo ikaskuntza-esperientzia pasiboan gainetik. Ikasleen aurretiazko ezagutzak eta gizarte-testuinguruetan dituzten esperientziak dira abiapuntuak, ikasleek beren ezagutzaren oinarria eraikitzeko garatuko dituzten ikaskuntza-prozesuak sustatzeko. Mota honetako ikuspegieta, ikasleei beren ezagutzaz eta ikaskuntza-prozesuez gogoeta egiteko eskatzen zaie, horiek kudeatu eta behatzeko. Gogoeta horiek estimulatzen eta babestuz behar dituzte irakasleek. Arreta ikaslearengan jartzen duen ikuspegiak aldatu egiten dute irakaslearen rola: ikaskuntza-prozesuen erraztaile bihurtzen da irakaslea (ezagutza-egiturak transmititzen dituen aditu hutsa izan beharrean) (Barth, 2015).

Ekintzara bideratutako ikaskuntza

Ekintzara bideratutako ikaskuntza, ikasleek ekintzetan parte hartzen dute eta beren esperientziaz gogoeta egiten dute, nahi den ikaskuntza-prozesuaren eta garapen pertsonalaren ikuspegiatik. Esperientzia proiektu baten bidez gauza daiteke (laneko ikaskuntza), edo praktiken bidez, lantegi baten bidez, kanpaina bat ezarriz, etab. Ekintzan datza ikaskuntza Kolben ikaskuntza enpirikoaren zikloaren teoriaraino oinarritzen da, eta etapa hauek bereizten ditu: 1. Esperientzia zehatz bat bizitzea. 2. Behatu eta gogoeta egitea. 3. Kontzeptu abstraktuak osatzea, gero orokortzeko. 4. Egoera berrietan aplikatzea (Kolb, 1984). Ekintzan datzan ikaskuntzak indartu egiten du ezagutzak barneratzeko, konpetentziak garatzeko eta balioa zehazteko bidea, kontzeptu abstraktuak ikaslearen esperientzia pertsonalarekin eta bizitzarekin konektatzean. Ikasleen esperientziak eta pentsamendu gogoetatsurako prozesuak sustatuko dituen ikaskuntza-ingurune bat sortzea da irakaslearen rola.

Ikaskuntza eraldatzailea

Ikaskuntza eraldatzailea hobeto definitzen dute haren helburu eta printzipioek ikaskuntzako eta irakaskuntzako estrategia zehatz batekin baino. Ikasleak ahalbidetu nahi ditu, mundua ikusi eta pentsatzeko moduak zalantza jarri eta alda ditzaten, hobeto ulertzeko xedez (Slavich eta Zimbardo, 2012; Mezirow, 2000). Irakaslea ikasleak ahalbidutzeko dituen erraztaileak da, eta ikasleei desafio egiten die, munduaz dituzten ikuspegiak alda ditzaten. Horrekin lotuta dagoen ikaskuntza apurtzaile kontzeptua (Lotz-Sisitka et al., 2015) pauso bat aurrerago doa: GIHEZ barneko ikaskuntzak ikaslearen statu quo eraitsi behar duela dio, eta pentsamendu disruptiborako eta ezagutza berria zehazteko prestatu behar duela.

Askotariko eta diziplina askotako ikaskuntza-testuinguruak sortzeko nahiz GIHak holistikoki eta zorrotz zehazteko, hezkuntza-erakundeek eta irakasleek itunak sustatu behar lituzkete tokian-tokian, nazioan eta nazioartean. Garrantzitsua da argi izatea iraunkortasuneko erronkei egokitutako erantzunak ezin direla mugatu ikuspegi, diziplina edo ezagutza-modu bakarretara. Eragile sozialak partaide dituzten elkarteek, hala nola enpresek, GKEek, erakunde publikoek, politikak lantzen dituztenek edota gizabanakoek, aukera berriak ekartzen dituzte ikasteko, eta sorkuntza eta berrikuntza-iturri bihurtzen dira.

Praktikan bazkide batekin elkarlanean aritzea eskatzen duen elkarriketa edo proiektu batean, ikasleek mundu errealeko desfioez ikas dezakete, eta bazkidearen ezagutzak eta esperientziak bere alde erabil ditzake. Bazkideak ahalbidetu daitezke, halaber, eta aldaketarako eragile kritiko gisa duten ahalmena indartu daiteke. Munduko hainbat tokitako ikasleen arteko lankidetzak gai beren inguruko ikuspegi eta ezagutza trukea susta dezake. Adibidez, ikastaro birtualek mundu-mailako elkarriketa baterako ingurunea eskain dezakete, eta elkarren arteko ulermena eta errespetua susta ditzakete (ikus 2.4.5. taula).

2.4.4. taula. GIHetarako ikaskuntza-metodo nagusiak

Elkarlaneko proiektuak mundu errealean, hala nola ikaskuntza- eta lan-proiektuak eta kanpainak GIHetarako

Ikusmoldeak eraikitzeko ariketak, adib., etorkizuneko lantegiak, agertokiaren azterketa, narratiba utopikoa/distopikoa, zientzia-fikzioko pentsamendua, eta pronostikoa eta atzera begiratzeko

Komunitatean oinarritutako ikerketa-proiektuen bidezko sistema konplexuen azterketa, kasu-azterketak, alde interesdunen analisia, eragileen analisia, modelatzea, sistema-jolasak, etab.

Pentsamendu kritiko eta gogoetatsua “arrainontziko” debaten bidez, gogoeta-egunkarien bidez, etab.

2.4.5. taula. Ikasleen arteko kulturarteko elkarriketa baten adibidea

Maisu Gazteak Programa: ikaskuntza malguaren ikuspegia

Maisu Gazteak Programa 16-18 urteko ikasleei eta haien irakasleei zuzentzen zaie online hezkuntza eta ikaskuntzako sare bat da, mundu-mailakoa. Ikasleak eta irakasleak ikasgela birtualetan biltzen dira, iraunkortasunari buruzko ezagutza eraikitzeko eta lankidetzan aritzeko. Ikasgela birtualetan, elkarrengandik ikasten dute ikasleek, hainbat herrialdetako ikasleekin batera. Iraunkortasun-erronka komunez jabetzen dira, eta tokiko ikuspegi eta irtenbideak ezagutzen dituzte. Orain arte, 116 herrialde baino gehiagotako 30.000 ikasle eta 3.000 irakasle egin dute programa. Ebaluazio batean, ikasle, irakasle eta eskolentzat emaitza positiboak izan dituela jasotzen da: “ingurumenaren ezagutza handiagoa, komunikaziorako gaitasun hobekak, curriculumetik kanpoko ingurumen-jardueretan parte hartzea, lagun gehiago nazioartean, eta gaitasun informatiko hobekak” (McCormick et al., 2005).

Iturria: UNESCO (2014a: 88)

Ekintzara bideratutako pedagogia eraldatzaileak GAPen 4. Lehenetsuneko Ekintza Eremuko (“Gazteak ahalbidetzea eta mobilizatzea”) helburuak lortzen laguntzen du, dei honekin: “gazteentzako kalitatezko ikaskuntza-aukera gehiago; gazteen parte-hartze handiagoa, GIHEZ politikak garatu eta ezartzea toki, nazio eta mundu-mailan, eta esparru horretako jarduerak gehiago gazteen gidaritzapean” (UNESCO, 2014b: 23).

2.5. Nola ebaluatu GIHEZen emaitzak eta GIHEZeko programen kalitatea

GIHEZen helburuak eta hezkuntza-sistemak berriro bideratzeko ahaleginak ebaluatzea aurre egin beharreko erronka garrantzitsua da (UNESCO, 2014a). Maila askotan ebaluatu behar dira GIHEZeko programak eta ekimenak. Hemen, ikuspegi hauek aipatuko ditugu: ikaskuntza-helburuetarako eskala handiko ebaluazioak; ikaskuntza-emaitzen ebaluazioak banaka; hezkuntzako lehenetsun nazionalekin ondoen lotutako ebaluazio nazionalak; eskolen eta erakundeen ebaluazioak beren testuinguruan, ezarpena eta gauzatzea hobetzeko; prestakuntzako ebaluazio-praktiken garapena irakasleak ahalduzko, horien gelako praktika pedagogiko espezifikoak neurtzeko; eta norberaren aurrerapenaren autoebaluazio pertsonala.

Badaude zenbait adibide jada, GIHEZeko elementu batzuk eskala handiko ebaluazioen ikuspegietan nola txertatu diren erakusten dutenak (ikusi 2.5.1 taula).

2.5.1. taula. GIHEZeko elementuak txertatu dituzten eskala handiko ebaluazioen adibideak

Garapen iraunkorrerakiko esposizioa ebaluatzea

“Ikaskuntzako lorpenen nazioarteko ebaluazioak hasi dira GIHEZeko zenbait alderdi txertatzen. 2006ko PISA txostenak oinarriko ezagutza zientifikoan jarri zuen arreta batik bat, eta, besteak beste, eskolako ikasketa-planeari ingurumen-zientziarako gaiak txertatzeari buruzko informazioa jaso zuen (ELGA, 2009). PISAk azaldu zuen ELGAko kide ziren herrialdeetako ikasleen % 98 ingurumen-gaiak irakasten ziren eskoletan zebiltzala (adibidez, kutsadura, ingurumenaren degradazioa, organismoen arteko erlazioak, biodibertsitatea eta baliabideak zaindu eta gordetzea). Sistema batean edo bestean, leku desberdina bete dezakete ingurumen-zientziak ikasketa-planetan; baina ELGAko herrialdeetako bigarren hezkuntzako (1. zikloa) ikasle gehienek izan dituzte aurrez aurre eta ikasi dituzte funtsezko ingurumen-gaiak. ELGAko kide ez diren herrialdeetan, ingurumenaz ikasteko aukeran alde handiagoak daude batzuen eta besteen artean.”

Iraunkortasunarekin lotutako aukerak eta ekintzak ebaluatzea

“Are desafio handiagoa da ea ezagutzak eta ikaskuntzako lorpenek iraunkortasunarekin lotutako aukerak eta ekintzak dakartzaten zehaztea. Badaude etorkizun handiko zenbait ekimen esparru horretan: adibidez, Gizarte Hezkuntzako eta Herritarren Prestakuntzako Nazioarteko Azterketa (ICCS, ingelesezko sigletan) egin zen 38 herrialdetan 2008an eta 2009an (Hezkuntzako Lorpena Ebaluatze Nazioarteko Elkartearen babesean), eta herritartasunerako hezkuntzaren eta herritartasun aktiboan ikasleek zuten parte-hartzearen artean korrelazio positiboa zegoela ikusi zen azterlan horretan (Schulz et al., 2010).”

Iturria: UNESCO (2014a: 98)

2013an, PISAren Zuzendaritza Batzordeak 2018ko PISA azterlanean “kompetentzia globalaren” ebaluazioa aztertuko zela erabaki zuen (ELGA, 2016). Horrela definitzen du kompetentzia globala ELGak:

“Mundu-mailako eta kulturarteko gaiak kritikoki eta hainbat ikuspegitaz aztertze gaitasuna, desberdintasunek norberari eta besteei buruzko pertzepzio, iritzi eta ideietan duten eragina ulertze, eta zenbait testuingurutako pertsonekin interakzio ireki, egoki eta eraginkorretan parte hartze, giza duintasunaren errespetu komuna oinarri hartuta.” (ELGA, 2016: 4)

ELGAko kide diren herrialdeen eta adituen aholkularitzarekin landutako azterketa horrek, ebaluazio kognitibo bidez, mundu-mailako gaien ezagutza eta ulermena neurtuko ditu, bai eta kulturarteko ezagutza eta ulermena eta gazteek analisirako eta arrazoibide kritikorako dituzten trebetasunak ere. Gainera, ikasleen galde-sortetan jasotako datuen bidez, hauek ere aztertuko dira: trebetasunen artean, errespetuzko interakzio egoki eta eraginkorra, enpatia eta malgutasuna; eta, jarreraren artean, beste kultura batzuetako jendearengana irekitzea, beste kulturen errespetua, eta munduaren kontzientzia eta ardura (ELGA, 2016: 6). Ildo horretatik, probak “arrakasta duten hezkuntza-sistemen lehen ikuspegi orokor eta zehatza eskainiko du, komunitate baketsu eta askotarikoaren garapena babestuko duten gazteak horretarako hornituz” (ELGA, 2016: 3). 2016ko maiatzaren 14an G7-ko hezkuntza-ministerioek egindako bilkuran (Kurashiki, Japonia), ministroek adierazi zuten proba horrek adierazle egokia eskaini zezakeela arlo horretako aurrerabidea neurtzeko.

PISAk eta eskala handiko beste ebaluazio batzuek (esate baterako, Gizarte Hezkuntzako eta Herritarren Prestakuntzako Nazioarteko Azterketa, ICCS, 2016¹⁵) ekarpen handiak egin ditzakete GIHEZeko ikaskuntza-emaitzen garapena hobetzeari begira, eta GIHEZek kalitatezko hezkuntzari ekar diezazkiokeen onurak nabarmendu ditzakete. Horrez gain, 4.7 xedeko bi adierazle tematiko ikusaraz ditzakete: 26.a, “Munduko herritartasunarekin eta iraunkortasunarekin lotutako gaien buruz ulermen egokia erakutsi duten ikasleen ehunekoa, adin-taldean (edo hezkuntza-mailan) arabera”; eta 27.a, “Gizarte-zientzietan eta geozientzietan buruzko ezagutzan gaitasuna erakutsi duten 15 urteko ikasleen ehunekoa” (UNESCO, 2015b).

GIHEZ baloratu eta ebaluatzea lagungarri izan daiteke hainbat helburuetarako (ikusi 2.5.2 taula).

15. <http://iccs.iea.nl>

2.5.2. taula. GIHEZeko ebaluazioaren asmoak maila indibidualen

Informazioa biltzea eta ikasleek lortu nahi diren ikaskuntza-helburuetan egindako aurrerapen eta lorpenak erregistratzea

Ikasleei egindako aurrerapena adieraztea, indarguneak eta hazkunderako eremuak identifikatzea, eta informazio hori ikaskuntza-helburuak ezartzeko erabiltzea

Irakasteko eta ikasteko prozesuen arrakastaz iruzkinak egitea, planifikatzen laguntzeko; prozesu horiek ezarri eta hobetzea

Hezkuntza formalean, ikasleen kalifikazio eta aukera akademiko eta profesionalei buruzko erabakiak gidatzea

Modu asko daude ikaskuntzaren emaitzak neurtzeko. Testuinguruaren arabera hartuko da ikuspegi bat edo bestea (hezkuntza-sistemaren ezaugarriak, adibidez), edo GIHEZ emateko moduaren arabera: hezkuntza formalean, adibidez, ikasketa-planaren bidez edo ikasgai espezifikoko baten barruan, edo beste modalitatea batean. Ebaluaziorako metodo horiek bat etorri behar dute ikaskuntza-helburuekin eta irakatsi eta ikasteko jarduerekin. GIHEZekin lotutako ikaskuntza-helburuak eta kompetentziak askotarikoak izan daitezkeenez, metodoen sorta bat beharko da agian ikaskuntza zehazki neurtzeko.

GIHEZek irismen handiko asmo eraldatzaileak eskatzen ditu. Beraz, irakasleek aintzat hartu behar dituzte asmo handi horiek. Harago jo behar dute, eta ez erabili soil-soilik ikaskuntza ebaluatzen; ikaskuntzarako eta ikaskuntza gisa erabili behar dute ebaluazioa. Neurketarako, hezitzaileek metodo tradizionalak eta gogoetatsuagoak, zereginetan oinarritutakoak, erabili behar dituzte, bietarik, hala nola autoebaluazioa eta parekoen arteko ebaluazioa, ikasleek hainbat gairen inguruan egindako gogoetak jasotzeko: aldaketa pertsonala, ikerketa kritikoaren ulermen holistikoagoa, edota herritarren konpromisoa eta parte-hartzea, esaterako. Irakasle eta parekoengandik jasotako iruzkinak eta autoebaluazioak (gogoeten egunerokoak edo historialak erabiliz, adibidez) gaitasuna ematen die ikasleei beren prozesuak gainbegiratzeko edota hobetzeko, aukerak identifikatzeko.

Ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeaz gain, garrantzitsua da GIHEZen kalitatea etengabe aztertu eta neurtzea. Jarraipenak eta ebaluazioak hainbat esparrutan jar dezakete arreta: alderdi programatikoetan (ikaskuntzekin lotutako itxaropenak, baliabideak, irakaskuntzako kompetentziak, ikaskuntza-inguruneak, etab.); prozesuetan (irakaskuntza-praktikak, ikaskuntza-baliabideak, ikasleen parte-hartzea, etab.); emaitzetan (kompetentziak, balioak eta jarrerak edota eraldaketa-efektua); eta testuinguruarekin lotutako alderdietan.

GIHEZeko programen ebaluazio eraginkorra egiteko betebeharra txertatu behar da lehendik dauden ebaluazioetan, ahal den neurrian, eta kontu handiz zaindu behar dira zenbait faktore. Ebaluazioaren asmoak eta adierazleak argi eta garbi definitu behar dira, kontuan hartu behar dira irakaskuntzako eta ikaskuntzako jendearen izaera eta testuingurua, eta ebidentzia onargarriz hartuko den informazio mota eta datuak biltzeko metodoak zehaztu behar dira.

Programa-ebaluazioaren emaitzek hainbat asmotarako balio dezakete (ikus 2.5.3 taula).

2.5.3. taula. Programen ebaluazioaren asmoak

Programaren mugak identifikatzea

Hobetzeko eremu espezifikoak zehaztea

Tokiko, nazioko eta nazioarteko joeren eta emaitzen berri ematea

Programaren eraginkortasuna ebaluatzea

Erantzukizuna eta gardentasuna sustatzea

Hobetu egin behar dira jarraipena eta ebaluazioa, GIHEZen inbertsio handiagoak eta etengabeak lortzeko bidea emango duen ebidentzia bat lortzeko, eta GIHEZekin gogoetan oinarritutako konpromisoa hartzeko, hezkuntza berriro bideratzeko abian jarritako prozesua den aldetik. Beraz, beharrezkoa da GIHEZeko ikaskuntza-emaitzetarako estandarrak finkatuko dituzten esparru adierazgarriak sortzea.

3. Ondorioak

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza lagungarri gerta daiteke GIHak lortzeko, alde batetik, iraunkortasunarekin lotutako erronkei heltzeko eta helburuak elkarrekin erlazionatzeko beharrezkoak diren zeharkako iraunkortasun-kompetentziak garatzen dituelako. Eta, bestetik, GIHEZeko ikaskuntza-helburu kognitiboetan, sozioemozionaletan eta jokabideen eremuko helburuetan lortutako emaitzekin, ikasleek aukera izango dutelako GIH bakoitzaren desafio zehatzei aurre egiteko.

Munduko pertsona guztiak GIHen alde mobiliza daitezten, hezkuntza-erakunde guztiek pentsatu behar dute beren ardura dela garapen iraunkorrarekin lotutako gaiak sendo jorratzea, iraunkortasunarekin lotutako kompetentzien garapena sustatzeko eta GIHekin lotutako ikaskuntza-emaitza espezifikoak erdiesteko. Beraz, funtsezkoa da ikasketa-planetan GIHekin lotutako edukiak txertatzeaz gain, ekintzara bideratutako pedagogia eraldatzailea erabiltzea.

Dei egiten zaie bereziki hezkuntzako funtzionarioei, politikak lantzen dituztenei, irakasleei, ikasketa-planak egiten dituztenei eta bestelakoei, hezkuntza berriro planteatu dezaten, proposatutako epean, hau da, hemendik 2030era, GIHak lortzen laguntzeko. Gida honek orientabideak ematen ditu iraunkortasun-kompetentziez eta ikaskuntza-emaitza kognitiboez, sozioemozionalerik eta jokabideen eremukoerik, eta, horrez gain, GIHEZ bidez GIHen ikaskuntza ezartzeko zer behar den zehazten du.

1. eranskina. Aukeratutako online praktikak eta baliabideak

GIHei buruzko webguneak

- Giza Eskubideak eta Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda
<http://www.ohchr.org/EN/Issues/MDG/Pages/The2030Agenda.aspx>
- ELGA eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak: xede eta helburu unibertsalak lortzea
<https://www.oecd.org/dac/sustainable-development-goals.htm>
- GIHen adierazleak
<http://unstats.un.org/sdgs/indicators/indicators-list/>
- The Guardian: garapen iraunkorrerako helburuak: jakin behar duzun guztia
<https://www.theguardian.com/global-development/2015/jan/19/sustainable-development-goals-united-nations>
- NBEren Garapen Iraunkorrerako Ezagutza Plataforma
[sustainabledevelopment.un.org https://sustainabledevelopment.un.org/topics/sustainabledevelopmentgoals](https://sustainabledevelopment.un.org/topics/sustainabledevelopmentgoals)
- UNESCO eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak
<http://en.unesco.org/sdgs>
- NBE Garapen Iraunkorra / GIHak
<http://www.un.org/sustainabledevelopment>
<http://www.un.org/sustainabledevelopment/sustainable-development-goals>
- Munduko Ekonomia Foroa: Zer dira Garapen Iraunkorreko Helburuak?
<https://www.weforum.org/agenda/2015/09/what-are-the-sustainable-development-goals>

Ikasgelarako, curriculumerako eta gazteekiko lanerako baliabideak

- Britainiar Kontseilua: Garapen Iraunkorreko Helburuetarako baliabidea
https://schoolsonline.britishcouncil.org/sites/default/files/sdg_education_pack_v3.pdf
- Iraunkortasunerako Online Ikaskuntza Programarako Gaia Education erakundearen diseinua
<http://www.gaiaeducation.org/index.php/en/online>
- GlobalGiving: GIHetarako finantzaketa kolektiboa
<https://www.globalgiving.org/sdg/>
- Green Pack: iraunkortasunari buruzko irakaskuntzako materiala
<http://education.rec.org/green-pack.html>
- OpenLearn. The Open University: askotariko gaiet buruzko auto-ikaskuntzarako materiala
<http://www.open.edu/openlearn/>
- OXFAM: GIHen inguruko irakaskuntzarako ideien multzo hautatua
<https://www.oxfam.org.uk/education/resources/sustainable-development-goals>

- Sustainability Gamepedia: iraunkortasunarekin lotutako jolasen datu-basea
<http://www.games4sustainability.org/gamepedia/>
- Etorkizun Iraunkorrerako Irakaskuntza eta Ikaskuntza: iraunkortasun-gaiekin lotutako irakaskuntzako ikuspegi buruzko baliabideak irakasleentzat eta ikasgelarako jarduerak
http://www.unesco.org/education/tlsf/mods/theme_gs.html
- Irakatsi UNICEF: GIHei buruzko irakaskuntzako baliabideak
<https://teachunicef.org/teaching-materials/topic/sustainable-development-goals>
- The Goals.org: garapen iraunkorreko irtenbideei buruzko irakaskuntzako eta ikaskuntzako mundu-mailako ataria
<http://www.thegoals.org>
- Mundua salbatzeko alferrentzako gida
<http://www.un.org/sustainabledevelopment/takeaction>
- Gauzen historia: gizadiak zenbait materialez egin duen erabilera jasangaitza ikertzen duen baliabidea
<http://storyofstuff.org>
- Nahi dugun mundua. Gazte eta haurrei zuzendutako helburuei buruzko gida
http://www.unicef.org/agenda2030/files/TWWW_A4_Single_Page_LowRes_English.pdf
- MYCIren Youth baliabideen multzoa: gazteei GIHak informazioa emanez eta motibatuz aurkezteko metodologiak
http://www.youth.ie/sites/youth.ie/files/SDGs_Youth_Resource%20_Pack.pdf
- UNESCO: Jardunbide egokiak irakasleen prestakuntzako erakundeetan
<http://unesdoc.unesco.org/images/0015/001524/152452eo.pdf>
- Munduko ikasgela handiena: aurkitu gazteek GIHak aurkezteko, parte hartzeko eta ekiteko behar duzun guztia
<http://worldslargestlesson.globalgoals.org>
- Garapen iraunkorrari buruzko Maisu Gazteak Programa: garapen iraunkorrari buruzko online ikastaroak eta ikasleen trukeak
<http://www.goypm.org/en/frontpage>
- YUNGA desafioren intsigniak: NBEko agentziekin, gizarte zibilarekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan sortutako YUNGA desafioren intsignien bidez, ikasleak kontzientziatu, hezi eta motibatu nahi dira beren jarrera alda dezaten eta tokiko komunitatean aldaketaren eragile bihurtzeko. Irakasleek erabil ditzakete eskoletan, edota gazte liderrek ere erabil dezakete.
<http://www.fao.org/yunga/resources/challenge-badges/en/>

Erakundeak eta ekimenak

Eskola ekologikoen sareak

<http://www.ecoschools.global>

Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea (FAO)

<http://www.fao.org/home/en/>

GAIA Education. <http://www.gaiaeducation.org>

Ekoherrixken mundu-mailako sarea <http://www.gen.ecovillage.org>

Aztarnari buruzko mundu-mailako sarea

<http://www.footprintnetwork.org/en/index.php/GFN/>

Goi-mailako hezkuntzarako iraunkortasuneko ekimena

<https://sustainabledevelopment.un.org/sdinaction/hesi>

ICLEI: Iraunkortasunerako tokiko gobernua <http://www.iclei.org>

Garapen Iraunkorrerako Nazioarteko Institutua <http://www.iisd.org>

Garapen Iraunkorrerako Soluzioen Sareak <http://unsdsn.org>

UNESCOren ASPnet eskolak <http://www.unesco.org/new/en/education/networks/global-networks/aspnet>

Garapenerako Nazio Batuen Programa <http://www.undp.org/>

Ingurumenerako Nazio Batuen Programa <http://www.unep.org>

UNESCOren Klub, Zentro eta Elkarleen Munduko Federazioa (WFUCA)

<http://wfuca.org/>

Osasunaren Mundu Erakundea (OME) <http://www.who.int/en/>

Irakaskuntza eta ikaskuntza profesionalerako laguntza

Iraunkortasunerako Hezkuntzarako Hasierako Taldea <http://www.sustainableschoolsproject.org/tools-resources/starter-kit>

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako baliabideak

<http://www.esdtoolkit.org/>

Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarako Alemaniako curriculum-esparrua <http://ensi.org/global/downloads/Publications/418/Curriculum%20Framework%20ESD%20final%201.pdf>

Garapen Iraunkorrerako Gida <http://sustainableschoolsproject.org/sites/default/files/EFSGuide2015b.pdf>

Kalitaterako eta Iraunkortasun Hezkuntzarako Goi Mailako Hezkuntzarako Gida <http://efsandquality.glos.ac.uk/>

Nahi dugun mundua osatuz. GIHEZERako NBERen

hamarkada. Azken txostena <http://unesdoc.unesco.org/images/0023/002303/230302e.pdf>

GIHEZERako UNESCOren bide-orria. GIHEZERako Munduko Ekintza Programa ezartzea <http://unesdoc.unesco.org/images/0023/002305/230514e.pdf>

Etorkizun Iraunkorrerako irakaskuntza eta ikaskuntza (UNESCO) <http://www.unesco.org/education/tlsf/>

Irakaskuntza iraunkorrerako Vanderbilt-eko Unibertsitatearen Gida

<https://cft.vanderbilt.edu/guides-sub-pages/teaching-sustainability>

Iraunkortasunerako ikuspegia eskoletarako: lanean hasi aurretiko irakasleen prestakuntzako garapen-eredu profesionalen berrikusketa (Iraunkortasunerako Hezkuntzari buruzko Ikerketa Institutua) <http://aries.mq.edu.au/projects/preservice/files/TeacherEduDec06.pdf>

2. eranskina. Bibliografia

- AdomBent, M. eta Hoffmann, T. 2013. *The concept of competencies in the context of Education for Sustainable Development (ESD)*. ESD Expert Network. <http://esd-expert.net/assets/130314-Concept-Paper-ESD-Competencies.pdf> (2016ko urriaren 16an kontsultatua)
- Barth, M. 2015. *Implementing sustainability in higher education: learning in an age of transformation*. Londres, Routledge.
- Bertschy, F., Künzli, C. eta Lehmann, M. 2013. Irakasleen kompetentziak garapen iraunkorrerako hezkuntzaren esparruan hezkuntza-eskaintzak ezarri ahal izateko. *Sustainability*, 5. liburukia, 12 zk., 5067–5080. or.
- Bhutango Hezkuntza Ministerioa. 2012. *Matters: 30th Education Policy Guidelines and Instructions. EPGI 2012*. Thimphu, Bhutango Hezkuntza Ministerioa.
- de Haan, G. 2010. GIHEZekin lotutako kompetentzien garapena babes-esparru instituzionalean. *International Review of Education*, 56. liburukia, 2. zk., 315–328. or.
- Delors, J. 1996. *Learning, the treasure within*. XXI. menderako hezkuntzarako Nazioarteko Batzordeak UNESCOri aurkeztutako txostena. Paris, UNESCO.
- Garapen Iraunkorrerako Irakasleen Prestakuntzarako Aleman Hitzunen Sarea (2015). *Teacher education for a sustainable development from pilot projects and initiatives to new structures. A memorandum on reorienting teacher education in Germany, Austria and Switzerland*. http://www.leuphana.de/fileadmin/user_upload/portale/netzwerk-lena/Memorandum_LeNa_English_Stand_August_15.pdf (2016ko ekainaren 22an kontsultatua)
- Godemann, J. 2006. Diziplinarteko kompetentziaren sustapena, goi-mailako hezkuntzarako erronka gisa. *Journal of Social Science Education*, 5. liburukia, 2. zk., 51–61. or.
- Hezkuntza eta Kulturako Ministerioen (KMK) eta Lankidetzeta eta Garapen Ekonomikorako Ministerio Federalaren (BMZ) Konferentzia Iraunkorra. 2016. *Curriculum Framework Education for Sustainable Development*. J.R. Schreiber eta H. Siege (arg). <http://ensi.org/global/downloads/Publications/418/Curriculum%20Framework%20ESD%20final%201.pdf> (2016ko azaroaren 6an kontsultatua)
- Kolb, D. A. 1984. *Experiential Learning: Experience as the Source of Learning and Development*. Englewood Cliffs, N.J., Prentice-Hall
- GIHen Adierazleei buruzko Adituen Erakunde arteko Taldea (IAEG-SDGs). 2016. *Final list of proposed Sustainable Development Goal indicators*. <http://unstats.un.org/sdgs/indicators/Official%20List%20of%20Proposed%20SDG%20Indicators.pdf> (2016ko urriaren 29an kontsultatua)
- Garapeneko Boluntariotzarako Nazioarteko Foroa. 2014. *Limako Adierazpena*. <http://forum-ids.org/conferences/ivco/ivco-2014/lima-declaration/> (2016ko urriaren 6an kontsultatua)
- Lotz-Sisitka, H., Wals, A. E., Kronlid, D. eta McGarry, D. 2015. Ikaskuntza sozial eraldatzaile eta urratzailea: disfuntzio global sistemikoaren garaietan goi-hezkuntzaren pedagogia birpentsatzea. *Current Opinion in Environmental Sustainability*, 16. liburukia, 73–80. or.
- McCormick, K., Muhlhauser, E., Norden, B., Hansson, L., Foug, C., Arnfalk, P., Karlsson, M. eta Pigretti, D. 2005. Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza eta Gazte Maisuak Programa. *Journal of Cleaner Production*, 13. liburukia, 10-11. zk., 1107-1112. or.
- Mezirow, J. 2000. *Learning as transformation: critical perspectives on a theory in progress*. San Francisco, Jossey-Bass.
- Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (ELGA). 2009. *Green at Fifteen? How 15-year-olds Perform in Environmental Science in PISA 2006*. Paris, ELGA.
- Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (ELGA). 2016. *Global competency for an inclusive world*. <https://www.oecd.org/pisa/aboutpisa/Global-competency-for-an-inclusive-world.pdf> (2016ko urriaren 29an kontsultatua)
- Rauch, F., Steiner, R. 2013. Garapen iraunkorrerako hezkuntzarako kompetentziak irakasleen prestakuntzan. *CEPS Journal*, 3. liburukia, 1. zk., 9–24. or.
- Rieckmann, M. 2012. Etorkizunera bideratutako goi-hezkuntza: oinarritzko zer kompetentzia sustatu behar lirateke unibertsitateko hezkuntzaren eta irakaskuntzaren bidez *Futures*, 44. liburukia, 2. zk., 127–135. or.
- Rychen, D.S. 2003. Gako-kompetentziak: Bizitzako erronka handiei aurre egitea. Rychen, D.S. eta Salganik, L.H. (arg.). *Key competencies for a successful life and well-functioning society*. Cambridge, MA, Hogrefe eta Huber, 63–107. or.
- Schulz, W., Ainley, J., Fraillon, J., Kerr, D. eta Losito, B. 2010. *ICCS 2009 International Report: Civic knowledge, attitudes, and engagement among lower-secondary school students in 38 countries*. Amsterdam, Ikaskuntza Lorpenaren Ebaluaziorako Nazioarteko Elkarte.
- Slavich, G. M. eta Zimbardo, P. G. 2012. Irakaskuntza eraldatzailea: Oinarri teorikoa. Oinarritzko printzipioak eta metodo nagusiak. *Educational Psychology Review*, 24. liburukia, 4. zk., 569–608. or.
- Sleurs, W. 2008. *Competencies for ESD (Education for Sustainable Development) teachers. A framework to integrate ESD in the curriculum of teacher training institutes*. http://www.unece.org/fileadmin/DAM/env/esd/inf.meeting.docs/EGonInd/8mtg/CSC%20Handbook_Extract.pdf (2016ko ekainaren 17an kontsultatua)

- Tsuneki, H. eta Shaw, R. (laster): Egungo politikaren garapena Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzarekin eta Klima Aldaketarako Hezkuntzarekin lotuta Costa Rican. Kyoto, Kyotoko Unibertsitatea.
- Nazio Batuen Europako Ekonomia Batzordea (UNECE) 2005. *UNECE Strategy for Education for Sustainable Development*. <https://www.unece.org/fileadmin/DAM/env/documents/2005/cep/ac.13/cep.ac.13.2005.3.rev.1.e.pdf> (2016ko urriaren 30ean kontsultatua)
- Nazio Batuen Europako Ekonomia Batzordea (UNECE). 2012. *Learning for the Future: Competences in Education for Sustainable Development*. http://www.unece.org/fileadmin/DAM/env/esd/ESD_Publications/Competences_Publication.pdf (2016ko ekainaren 17an kontsultatua)
- UNESCO. 2009. *Bonn Declaration*. http://www.desd.org/ESD2009_BonnDeclaration080409.pdf (2016ko urriaren 30ean kontsultatua)
- UNESCO. 2014. *Shaping the Future We Want. UN Decade of Education for Sustainable Development (2005-2014). Final Report*. <http://unesdoc.unesco.org/images/0023/002301/230171e.pdf> (2016ko ekainaren 14an kontsultatua)
- UNESCO. 2014b. *UNESCO Roadmap for Implementing the Global Action Programme on Education for Sustainable Development*. <http://unesdoc.unesco.org/images/0023/002305/230514e.pdf> (2016ko ekainaren 14an kontsultatua)
- UNESCO. 2014c. *EFA Global Monitoring Report 2013/4 – Teaching and Learning: Achieving quality for all*. Paris, UNESCO. <http://www.uis.unesco.org/Library/Documents/gmr-2013-14-teachingand-learning-education-for-all-2014-en.pdf> (2016ko abenduaren 15ean kontsultatua)
- UNESCO. 2015a. *Rethinking Education. Towards a global common good?* <http://unesdoc.unesco.org/images/0023/002325/232555e.pdf> (2016ko urriaren 16an kontsultatua)
- UNESCO. 2015b. *Thematic Indicators to Monitor the Education 2030 Agenda. Technical Advisory Group Proposal*. <http://www.uis.unesco.org/Education/Documents/43-indicators-to-monitor-education2030.pdf> (2016ko urriaren 29an kontsultatua)
- UNESCO. 2016. *Education 2030. Incheon Declaration and Framework for Action. Towards inclusive and equitable quality education and lifelong learning for all*. Paris, UNESCO. <http://www.uis.unesco.org/Education/Documents/incheon-framework-for-action-en.pdf> (2016ko urriaren 16an kontsultatua)
- Nazio Batuak. 2012. *The future we want. Outcome document of the United Nations Conference on Sustainable Development, Rio de Janeiro, Brazil, 20–22 June 2012*. <https://sustainabledevelopment.un.org/content/documents/733FutureWeWant.pdf> (2016ko urriaren 16an kontsultatua)
- Nazio Batuak. 2015. *Transforming our world: the 2030 Agenda for Sustainable Development. Resolution adopted by the General Assembly on 25 September 2015*. http://www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=A/RES/70/1&Lang=E (2016ko urriaren 16an kontsultatua)
- Vare, P. eta Scott, W., 2007. Aldaketarako ikaskuntza: Hezkuntzaren eta Garapen Iraunkorraren arteko erlazioa aztertzea. *Journal of Education for Sustainable Development*. 1(2), 191–198.
- Wals, A.E.J. 2015. *Beyond unreasonable doubt. Education and learning for socio-ecological sustainability in the Anthropocene*. Wageningen, Wageningen University. https://arjenwals.files.wordpress.com/2016/02/8412100972_rvb_inauguratie-wals_oratieboekje_v02.pdf (2016ko ekainaren 14an kontsultatua)
- Wiek, A./Withycombe, L./Redman, C.L. 2011. *Key competencies in sustainability: a reference framework for academic program development*. *Sustainability Science*, 6. liburukia, 2. zk., 203–218. or.



Education
Sector

United Nations
Educational, Scientific and
Cultural Organization

Garapen Iraunkorrerako Helburuetarako

Hezkuntza

Ikaskuntza-helburuak

Mundu iraunkorragoa eraikitzeko eta Garapen Iraunkorrerako Helburuetan (GIH) iraunkortasunarekin lotuta ageri diren gaiei heltzeko, iraunkortasunerako aldaketa bideratuko duten artista bihurtu behar dute pertsonak. Askotariko ezaguerak, gaitasunak, balioak eta jarrerak izan behar dituzte, ahalduntzeko eta garapen iraunkorrari beren ekarpena egiteko. Beraz, garapen iraunkorra erdiesteko, oinarri-oinarrizkoa da hezkuntza, eta, ildo horretatik, ezinbesteko tokia betetzen du Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzak, hezigaiei gaitasuna ematen baitie funtsezko erabakiak har ditzaten eta arduraz joka dezaten ingurumen-integritatearen, bideragarritasun ekonomikoaren eta gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldietarako bidezkoak izango diren gizarteen alde.

Argitalpen honetan, irakurleei zenbait orientabide ematen zaizkie Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko hezkuntza erabiltzeko moduari buruz, batik bat Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzari erreparatuta. Ikaskuntza-helburuak identifikatu dira, zenbait gai eta jarduera iradoki dira GIH bakoitzarekin lotuta, eta hainbat mailatan nola aplikatu daitezkeen deskribatu da, ikastaroak eginez nahiz estrategia nazionalak erabiliz, esaterako. Honako agiri honek laguntza eman nahi die hezitzaileei eta ikasketa-plan eta politikak lantzeko ardura duten guztiei, GIHen aldeko ikaskuntza sustatuko duten estrategiak, ikasketa-planak eta ikastaroak lantzeko orduan.

